

**EUSKAL HERRIKO
BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 97**

Bertso hautatuak

Antolatzailea: EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA
Babesle Nagusia: Gipuzkoa-Donostia KUTXA
Bertso hautzaileak: Jon Abril eta Mikel Aizpurua
Bertso transkribaketa: Martin Aramendi
Azala: Jose Luis Zumeta
Argazkiak: Jagoba Manterola
Doinuen izendapena: Juanito Dorronsoro
Puntuazioen informatizazioa: Fermin Olaskoaga

Liburu honek, Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du

© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA
PRIVADO
Argitaratzaileak:

ELKARLANEAN
Portuetxe, 88bis
20009 Donostia

BERTSOZALE ELKARTEA
Igeldo pasealekua, 25
20008 Donostia

L.G.
I.S.B.N.
I.S.B.N.84-89283-12-5

AURKIBIDEA

Esker onez.....
Txapelketa Nagusiaren historia ttipia
Txapelketaren egituraz.....
Partehartzaileak eta puntuazioak
Bertsoa epaitzeko irizpideak.....
Hitzaurrea
Txapelketako bertso hautatuak
Doinuak.....
Indizeak.....

ESKER ONEZ

Euskal Herriko Bertsozale Elkartek esker oneko izan nahiko luke, hain garrantzizkoa suertatu den Txapelketa Nagusia gauzatu zedin, lankide izan dituen guzti-guztiekin. Egiten den guztiaren balioa, dirutan neurtzera ohitu nahi gaituen gizarte honetan, guztiz garrantzizkotzat dugu bertsolaritzaren eta oro har, euskalgintzaren inguruan, balio neurtezina duen borondatezko lana.

Bertsolaritzaren hamaika alorretan ardura ikusi dugun legez, Txapelketa honi zigilurik esanguratsuen borondatezko lanak ezarri dio. Dirutan zerbait jaso dutenek ere, beharko zuketaren hamarrena baizik ez dute jaso. Oroit ditzagun besteak beste, bertsolariek bizkarreratu duten zama, gai jartzaitzaren lan oparo bezain astunari aurre egin dion taldea, inoren ahotan egotea baino askoz onura gehiago gabeko epaimahaikoen lana, antolakuntza taldearen buruhauste eta ahaleginak, saioak gauzatu diren herrietako anitz bertsozale, eta oro har, antolakuntza lanetan bezala, beste hainbeste zerbitzutan lan egin duten guztien ezinbesteko laguntza, horren emaitza bikaina erdiestea bideratu duena.

Halaber, aipatu guziak ez ezik, Tolosa, Aramaio, Hendaia, Ondarroa, Iruñea, Getxo, Zarautz, Bera, Igorre, Beasain (Loinatz 97) eta Donostiako (Euskara Udal Patronatoa) udalak ere, eskertu gura ditugu, eskeini diguten abegi eta laguntzarengatik; Gipuzkoa-Donostia KUTXA babesle nagusia izan dugulako txapelketa honetan ere eta azkenik, Nafarroako Gobernu eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Saila esku bat luzatzeagatik.

Eskerrik asko guzti-guztiei.

Bertsozale Elkarteko
Zuzendaritza Batzordea

TXAPELKETA NAGUSIAREN HISTORIA TTIPIA

- 1.- 1935 - 01 - 20, Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedi Elkarteak antolaturik, Donostiako Poxpolin antzokian jokatu zen. Basarrik eskuratu zuen txapela.
- 2.- 1936 - 01 - 19, Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedi Elkarteak antolaturik, Donostiako Victoria Eugenia antzokian jokatu zen. Txirritak eskuratu zuen txapela.
- 3.- 1960 - 12 - 18, Euskaltzaindiak antolaturik, finaleko ekitaldia, Donostiako Victoria Eugenia antzokian jokatu zen eta Basarrik jantzi zuen txapela.
- 4.- 1962 - 12 - 30, Euskaltzaindiak antolaturik, Donostiako Astoria antzokian jokatu zen eta Uztapidek etxeratu zuen txapela.
- 5.- 1965 - 01 - 1, Euskaltzaindiak antolaturik, Donostiako Anoeta pilotalekuan burutu zen finaleko ekitaldia, bigarren aldiz Uztapide txapeldun izendatuz.
- 6.- 1967 - 06 - 11, Euskaltzaindiak antolaturik, Donostiako Anoeta pilotalekuan eman zitzaion txapelketari amaiera, hirugarren aldiz Uztapideren buruan txapela jantziaz.
- 7.- 1980 - 01 - 6, Euskaltzaindiak antolaturik, Donostiako Balda pilotalekuan burutu zen finaleko ekitaldia eta Amuriza izan zen oraingoan txapeldun.
- 8.- 1982 - 12 - 20, Euskaltzaindiak antolaturik, Donostiako Balda pilotalekuan jokatu zen finala eta Amurizak eskuratu zuen txapela bigarren aldikotz.
- 9.- 1986 - 03 - 23, Bertsolari Elkarteak antolaturik, Donostiako Anoeta belodromoan burutu zen Sebastian S.Lizasok txapela eskuratu zueneko finaleko saioa.
- 10.- 1989 - 12 - 17, Bertsolari Elkarteak antolaturik, Donostiako Anoeta belodromoan burutu zen finaleko saioa eta Jon Lopategi izan zen txapela eskuratu zuena.
- 11.- 1993 - 12 - 19, Bertsolari Elkarteak antolaturik, Donostiako Anoeta belodromoan eman zitzaion txapelketari amaiera eta Andoni Egaña izan zen txapela jantzi zuena.
- 12 - 1997-12-14, Bertsozale Elkarteak antolaturik, Donostiako Anoeta Belodromoan izan zuen bere azkena. Andoni Egaña suertatu zen bigarren aldiz txapeldun.

TXAPELKETAREN EGITURAZ

Txapelketa antolatzeko, Bertsozale Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak honako talde hau izendatu zuen:

1.- TALDE ANTOLATZAILEA

Arduraduna:----- Jexux Murua
Koodinatzailea:----- Koldo Tapia
Diruzaina:----- Joxe Mari Altuna
Gaiak eta epailetza:----- Felix Irazustabarrena
Nafarroatik:-----Joxema Leitza
Bizkaitik:----- Joxin Iturrioz
Gipuzkoatik:----- Karlos Aizpurua

2.- ARLO TEKNIKOA

Gai-jartzaile taldea:

Laxaro Azkune
Mirari Azula
Jose Luis Basterretxea
Arantza Iparagirre
Bernardo Mandaluniz
Manuel Olano
Nikolas Zeberio

Gai-jartzaile talde laguntzailea:

Inaxio Usarralde
Joxepa Madariaga
M^a Asun Oteiza
Arkaitz Goikoetxea
Meltxor Legorburu
Sabino San Sebastian

Epaimahaia:

Luis Baraiazarra
Antton Kazabon

Anton M^a Aldekoa-Otalora
Patxi Larretxea
Felix Irazustabarrena
Joseba Santxo
Arantzazu Loidi

Ordezkoak:

Mikel Aizpurua
Jon Abril

Epaimahaiko Idazkaria:

Joxe M^a Altuna

Puntuen informatizazioa:

Fermin Olaskoaga

Aurkezleak:

Laxaro Azkune
Bernardo Mandaluniz
Mikel Taberna

Libururako bertso hautatzaileak:

Mikel Aizpurua
Jon Abril

Transkribatzaileak:

Martin Aramendi
Jontxu Marcos

Doinuen saria eta izendapena:

Juanito Dorronsoro

Sintoniaren moldatzea eta grabaketa:

Joxean Goikoetxea

3.- DIETAK ETA SARIAK

Azken-laurdena: 35.000 pta. bertsolari eta saioko
Finalurrea: 45.000 pta bertsolariko
Finala: Txapeldunak, 500.000 pta; Txapeldunordeak, 300.000 pta ; eta gainerakoek
100.000 pta.
Dieta eta sari guztiei, P.F.G.Z.ari dagokion %15ekoa kendu zaie.

4.- IKUSENTZULEAK SAIOETAN

Azken-laurdenetan.....	4520
Finalaurreetan.....	.4059
Finalean.....	7101

Finaleko ikusentzuleen lurraldekotasuna
(Sarrera salmentaguneetan saldutakoaren arabera egina)

- Araban salduak.....	134	% 2,14
- Bizkaian salduak.....	891	% 14,24
- Nafarroan salduak: ...	203	% 3,24
- Iparraldean salduak	58	% 0,93
- Gipuzkoan salduak	4972	% 78,45

5.- BERTSOLARIEK EGINIKO LANAK

Kanporaketetan eta hurrenkera honetan:

- ◆ 8ko nagusian ofiziotan 3na bertso
- ◆ 8ko txikian ofiziotan 4na bertso
- ◆ Bakarka:
 - hasierako puntua emanda 2 bertso 8ko txikian
 - bertso amaierako errima emanda bertso bat 8ko nagusian
- ◆ 10ko txikian ofiziotan 3na bertso
- ◆ kartzelako lana:
 - 3na bertso kantatzeko gaia, neurri eta doinu librean
(bi gai paratu ziren hiruna papeletan errepikatuta bakoitza. Bertsolari bakoitzak bat berezi zuen kantatzeko)

Finalaurreetan eta hurrenkera honetan:

- ◆ 8ko nagusian ofiziotan 3na bertso
- ◆ 8ko txikian ofiziotan 3na bertso
- ◆ Bakarka:
 - hasierako puntua emanda 2 bertso 8ko txikian
 - azken-aurreko puntua emanda bertso bat 10ko haundian
- ◆ 10ko txikian ofiziotan 3na bertso
- ◆ 6 puntuakoan (aizak hi multil mainontzi... edo horren neurri berekoa) ofiziotan 3na bertso
- ◆ kartzelako lana:
 - 3na bertso kantatzeko gaia, neurri eta doinu librean
(bi gai paratu ziren hiruna papeletan errepikatuta bakoitza. Bertsolari bakoitzak bat

berezi zuen kantatzeko)

Finalean eta hurrenkera honetan:

Goizez (13 bertso)

- ◆ 8ko nagusian ofiziotan 4na bertso
- ◆ Bakarka:
 - hitz bat eman eta horren esanahia azaldu definitu edo deskribatu (hitza bera aipatu gabe), bertso bat 10ko txikian
 - lehen puntua emanda bertso bat 8ko txikian
 - hitz bat gaitzat emanda bertso bat 9ko txikian
- ◆ 6 puntukoan (aizak hi mutil mainontzi... edo antzekoa) ofiziotan 3na bertso
- ◆ Bakarka:
 - 3na bertso kantatzeko gaia, neurri eta doinu librean

Arratsaldez (13 bertso)

- ◆ 10ko txikian edo nagusian ofiziotan 3na bertso (neurria bertsolariek hautatu zuten) elkarrizketa edo egoera jakin baten gaineko garapena
- ◆ 8ko txikian ofiziotan 4na bertso
- ◆ “Iparragirre abila dela...” doinuan ofiziotan 3na bertso
- ◆ Kartzelako lana:
 - 3na bertso kantatzeko gaia, neurri eta doinu librean
 - (bi gai ipini ziren hiruna papeletan, errepikatuta bakoitza. Bertsolari bakoitzak bat apartatu zuen kantatzeko)

6.- SAIOAK ETA HERRIAK

6.1. AZKEN-LAUDENETAKO SAIOAK

Saio guztiak larunbata gauez eta igande edo jai eguneko arratsaldez jokatu ziren

TOLOSA, urriak 11

I. Elorza, S.Lizaso, U. Agirre, An. Otamendi, X. Legarreta, B. Gorostidi

ARAMAIO, urriak 18

I. Zelaia, X. Silveira, M. Lujanbio, A. Ugartetxea, K. Intxausti, J. Eizmendi

HENDAIA, urriak 19

A. Egaña, An. Otamendi, J.J. Eizmendi, J. A. Salegi, J. Respaldiza, O. Estanga

ONDARROA, urriak 26

B. Gaztelurrutia, **I. Murua, A. Lopategi**, E. Arozena, E. Fernandez, A. Larrañaga

GETXO, azaroak 1

J.M. Rezabal, **M.Mendizabal**, J.M. Narbaiza, **U. Iturriaga**, J. Munduate, **O. Enbeita**

ZARAUTZ, Azaroak 2

J. Maia, J. Sorozabal, J.L. Urdangarin, **A. Sarriegi, J.M. Irazu**, B. Elizagoien

6.2. FINALAURREAK

Igande arratsaldeak jokatuak.

BERA, Azaroak 16

Egaña, U. Iturriaga, J. Maia, M. Lujanbio, I. Zelaia, J.J. Eizmendi

IGORRE, Azaroak 23

S. Lizaso, I. Elortza, A. Mendiluze, I. Murua, J. Arzallus, U. Agirre

BEASAIN, Azaroak 30

M. Mendizabal, J.M. Irazu, A. Lopategi, J. Sorozabal, A. Sarriegi, O. Enbeita

6.3. FINALA

ABENDUAK 14, Donostiako Belodromoan

A. Egaña (txapeldun)

S. S.Lizaso

U.Iturriaga

J.M. Irazu

M. Mendizabal

A. Lopategi

J. Maia

M. Lujanbio

BERTSOLARI PARTEHARTZAILEAK

1.- TXAPELKETA OSOAN ZEHAR PARTE HARTU DUTENAK

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa honen azken fasea aurretik, herrialdeetako txapelketetan parte hartu duten bertsolarien zerrenda. Beltzez azpimarratuak, Txapelketa Nagusian parte hartzeko eskubidea lortu zutenak:

Araba / Bizkaia

1. .- Ajuria Ibon		Muxika
2. .- Ajuria Ireneo		Muxika
3. .- Aranburu Peru		Lekeitio
4. .- Areitio Juan Mari		Iurreta
5. .- Arregi Oier		Berriatua
6. .- Artza Joseba		Etxebarri
7. .- Arriaga Xabier	<Txiplas>	Errigoiti
8. .- Aurrekoetxea Iñaki		Bilbo
9. .- Azula Mirari		Lekeitio
10. .- Bilbao Leire		Ondarroa
11. .- Elortza Igor		Durango
12. .- Enbeita Oihane (3)		Gernika
13. .- Enbeita Zigor		Abornikano
14. .- Enbeita Zihara		Gernika
15. .- Estiballes Arkaitz		Galdakao
16. .- Galarza Mikel		Bilbo
17. .- Gaztelurrutia Beñat		Abadiño
18. .- Gonzalez de Durana Rikardo		Oreitia
19. .- Gonzalo Iñaki		Bilbo
20. .- Hormaetxea Unai		Zornotza
21. .- Ibarra Iratxe		Markina-Xemein
22. .- Intxausti Kepa		Igorre
23. .- Iriondo Asier		Gasteiz
24. .- Iturriaga Unai		Durango
25. .- Itza Ibon		Igorre
26. .- Kastaños Dani		Gasteiz
27. .- Larrañaga Gregorio <Mañukorta>		Markina-Xemein
28. .- Legarreta Asier		Mungia
29. .- Lopategi Aritz		Gernika
30. .- Meñika Igor		Igorre
31. .- Oleaga Ander		Bermeo
32. .- Ortiz Marta		Bilbo
33. .- Otamendi Asier		Gasteiz
34. .- Perea Oihane		Gasteiz

- | | |
|---------------------------------|----------|
| 35. - Respaldiza Juanjo | Orozko |
| 36. - Ugartetxea Arkaitz | Mallabia |
| 37. - Urdangarin Mikel | Zornotza |
| 38. - Urrutikoetxea Urtzi | Bilbo |

Gipuzkoa

- | | |
|--|-----------|
| 1. - Agirre Amaia | Billabona |
| 2. - Agirre Bittor | Legazpi |
| 3. - Agirre Iker | Hernani |
| 4. - Agirre Unai | Hernani |
| 5. - Aiestaran Jon | Ordizia |
| 6. - Aizpurua Egoitz | Oñati |
| 7. - Aldasoro Aitor | Beasain |
| 8. - Alustiza Iker | Donostia |
| 9. - Aranburu Mikel | Beasain |
| 10. - Azpillaga Bernardo | Errezil |
| 11. - Bergaretxe Asier | Oiartzun |
| 12. - Diaz de Gereñu Lander | Oñati |
| 13. - Egaña Andoni | Zarautz |
| 14. - Eguren Igor | Beasain |
| 15. - Eizmendi Juan J. <Loidisaletxe II> | Errezil |
| 16. - Eizmendi Jon | Hernani |
| 17. - Epelde Imanol | Zarautz |
| 18. - Esoain Ibai | Orio |
| 19. - Etxaniz Antton | Tolosa |
| 20. - Garmendia Jon | Urnieta |
| 21. - Gerriko Juan Ramon | Idiazabal |
| 22. - Gorostidi Bixente | Amezketza |
| 23. - Igartua Josu | Oñati |
| 24. - Irazu Jesus M. | Larraul |
| 25. - Iribar Jexux <Olalde> | Zumaia |
| 26. - Iruretagoiena Iñigo | Zarautz |
| 27. - Izeta Nikolas | Usurbil |
| 28. - Jauregi Jesus M ^a <Altzo-Txiki> | Zaldibia |
| 29. - Jimenez Alfonso | Tolosa |
| 30. - Karrera Ibon | Elduaian |
| 31. - Larrañaga Andoni | Azpeitia |
| 32. - Lasagabaster Joseba | Oñati |
| 33. - Lizaso Sebastian | Azpeitia |
| 34. - Lopez Joan Mari | Oiartzun |
| 35. - Lujanbio Maialen | Hernani |
| 36. - Maia Jon (3) | Zumaia |
| 37. - Manzisidor Iñigo | Zarautz |
| 38. - Meababasterretxea German | Elgoibar |
| 39. - Mendiluze Aitor | Andoain |
| 40. - Mendizabal Mikel | Itsasondo |

41. .- Munduate Joxe (3)	Ataun
42. .- Murua Iñaki	Gabiria
43. .- Narbaiza Juan Mari	Eibar
44. .- Narbarte Xabier	Lazkao
45. .- Nazabal Xabier	Elduaien
46. .- Oiarbide Asier	Idiazabal
47. .- Olalde Iñaki	Oñati
48. .- Otamendi Andoni	Lasarte
49. .- Otamendi Luis	Zarautz
50. .- Rezabal Martin <Olaso>	Aia
51. .- Salegi Joxe A. <Lizarreta> (3)	Lastur
52. .- Sarriegi Aitor	Beasain
53. .- Sorozabal Jokin	Andoain
54. .- Telleria Millan (1)	Albiztur
55. .- Urdangarin Jose Luis (3)	Hernani
56. .- Zeberio Xabier (2)	Ordizia
57. .- Zelaia Iñaki	Hernani
58. .- Zendoia Nikolas	Zarautz

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa / Nafarroa

1. .- Aire Mixel <Xalbador>	Urepel
2. .- Altzuart Mikel	Arizkun
3. .- Arozena Estitxu	Lesaka
4. .- Arozena Manolo	Lesaka
5. .- Arrosagarai Joannes	Antzila
6. .- Arzallus Jexux	Hendaia
7. .- Bruño Nerea	Atarrabia
8. .- Elizagoien Bittor	Arraiotz
9. .- Estanga Oskar	Gaintza
10. .- Fernandez Estitxu	Lesaka
11. .- Landa Ekintza	Iruñea
12. .- Legarreta Xabier	Arano
13. .- Leitza Joxema	Arbizu
14. .- Mendiburu Jean Pier	Heleta
15. .- Mihura Fermin	Azkaine
16. .- Olaetxea Iñigo	Lesaka
17. .- Olano Antonio	Arano
18. .- Silveira Xabier	Lesaka

(1)Txapelketa Nagusian aukera izan eta parte hartu ez zuena

(2) Txapelketa Nagusian ordezkotza aukerari uko egin ziona

(3) Txapelketa Nagusian aurrekoen faltan ordezkotzan sartu zirenak

(4) 93ko Txapelketan finalista izan eta 97koan parte hartzeko eskubidea izanagatik, parte hartu ez zutenak:

(Xabier Perez “Euskitze”, Jon Enbeita, A.M. Peñagarikano

2.- TXAPELKETAREN AZKEN FASEAN

Bertsolariak	Azken-laurdenak	Finalaurreak	Finala
A. Egaña	793.5	899.5	1340
S. S.Lizaso	762	834.5	1272.5
U. Iturriaga	693.5	856.5	1256
J. M. Irazu	719	825.5	1241.5
M. Mendizabal	733	828.5	1233
A. Lopategi	722	812	1224
J. Maia	731	841.5	1186
M. Lujanbio	731	817.5	1183.5
I. Zelaia	711.5	802	
I. Elortza	717	792.5	
J. Sorozabal	733	788.5	
A. Mendiluze	732	788	
A. Sarriegi	707.5	786	
I. Murua	730.5	785	
J. J. Eizmendi	709	785	
O. Enbeita	707	770	
J. Arzallus	698	768	
U. Agirre	708.5	764	
J. Munduate	691		
J. Urdangarin	689		
J. R. Elortza	683		
X. Silveira	682.5		
A. Ugartetxea	681		
As. Otamendi	676		
B. Elizagoien	674		
B. Gorostidi	666.5		
And. Otamendi	666		
E. Arozena	666		
J. Narbaiza	664.5		
G. Larrañaga	662		
I. Ibarra	660.5		
J. Respaldiza	659.5		
J.A. Salegi	657		
X. Legarreta	654		
A. Larrañaga	651.5		
J. Artza	650		
J. Eizmendi	648.5		
M. Rezabal	643.5		
E. Fernandez	637.5		
O. Estanga	625.5		
B. Gaztelurrutia	620		
K. Intxausti	606		

PUNTUAZIOEI BURUZKO OHARRA: Zabalik duzun liburu honen bertsoek aldean dituzten puntuak, epaimahikoen hurrenkera honi egokitu behar dizkiezu, ezkerretik eskumara: 1- L. Baraiazarra, 2- A. Kazabon, 3- A. Aldekoa-Otalora, 4- P. Larretxea, 5- F. Irazustabarrena, 6- J. Santxo, 7- A. Loidi.

BERTSOA EPAITZEKO IRIZPIDEAK

1.- ORIENTABIDEAK

Bertsozaleak berekasa egin ohi duen antzera jokatu behar du, oro har, epaileak: bertsoak entzun, dastatu eta beregan sortzen duen inpresio hori nolabait kuantifikatu. Bertsoaren kalitatea izendatzeko, terminologia gisa, honoko hau erabiliko da:

Aparta	10/9 puntu.
Oso ona	8 "
Ona	7 "
BALEKOA	6/5 "
Txar samarra	4 "
Txarra	3 "
Oso txarra	2/1 "

Ikusten danez , **Baleko** bertsoa da sailkapenaren oinarri. **Baleko** bertsoa da akats eta meritu nabarmenik ez duena, baina, baita akats hainbat meritu duena ere.

Baleko bertsoak 6tik 5erako puntuazioa izango du, eta hori izango da hortik gorako eta beherako puntuazioen oinarri eta abiapuntu.

Potoa, akats bezala oso errez nabarmentzen den arren, ez du esan nahi, akts bakarra hori denik. Badira, kontutan hartuko ditugun beste puntu garrantzitsu batzuk ere, hala nola, **gaiarekiko lotura, euskararen erabilera, bertso barruko koherentzia eta kohesioa, neurria, errima, errejistro-kontua...**

Hala ere, akatsak zigortzen baino, sormena eta merituak saritzen areago ahaleginduko da Epaimahaia.

2.- GAIARI DAGOZKION IRIZPIDEAK

2.1. Gaiak logika baten barruan eskaintzen dituen bide guztiak dira onargarri. Ez dago gaia estu-estuan hartu beharrik. Gaiaren globaltasunean kokatuko da bertsolari bat, beste batek ñabardura eta xehetasun bati helduko dio... baina denak izan litezke bide egokiak.

2.2. Hala ere, gaia zabaltzea, zehaztea, xehetasun berriz hornitzea baloratu egingo da. Eta gaitik aparte nabarmen aritzea ez da ontzat joko.

2.3. Ofiziotako lanean, elkarren arrazoiei jarraitzea oso positibotzat joko da, gaiaren barruan betiere.

2.4. Ofizioko lagunak okerreko papera hartuko balu, meritu handitzat joko da bertso bidez berbideratzea., zuzenketa egin eta ahalik eta azkarren hariari heltzea gomendatzen delarik.

2.5. Topikoen gehiegizko erabilera ez da hain ontzat kontsideratuko, baina norberaren nahiz beste inoren bertsoen aipuak zilegi dira egoki eta propio sartuz gero.

2.6. Bertsolaritza jendaurreko jarduna denez, ez dira txartzat joko entzuleei, giroari nahiz gaiari buruzko erreferentzi erretorikoak.

2.7. Bertso bakoitzaren puntutik punturako lotura eta bertsoen elkarrekiko osagarritasuna aintzakotzat hartu beharrekoa da.

2.8. Emandako gai edo ofizioaren arabera dagokion hizkera edo erregistro egokiak oso positibotzat joko da: *hitanoa, berorika, pasotena, aitona-biloba artekoa, kultua-herrikoa...*

3. HIZKERARI DAGOZKION IRIZPIDEAK

3.1. Bertsolaritza ahozko jarduna da, beraz ahozkoaren arau fonetikoak betetzea gomendatzen da:

<u>idatzizkoa</u>	<u>ahozkoa</u>
ez da	eza
ez zen	etzen
ez nuke	enuke

3.2. Ahozko tradizioaren arabera oa/ua eta ea/ia lizentzia moduan onar daitezke, baina bakoitza bere sailean errenditzea hobetsiko da: *gaztea, emaztea.../guztia, ezta...; osoa, gurasoa.../sua, musua...*

Bokal arteko kontsonante jateak ez dira hain gaitzesgarriak, baldin eta errimatzearen soilik egiten ez bada: *eaman, kaleaa, etxeaa...*

3.4. Baina jendaurreko jarduna ere bada bertsolaritza, eta jendaurreko hizkerari dagokion maila behar du. Ahozko hizkera da bertsotako jarduna, baina jendaurrekoa, lehen ere esan dugunez, beraz txokokeriak baztertuz, txukuna izan dadin komeni da. Bestalde, koherentzia minimum bat eskatzen da, hau da, bertso berean, forma barietateak ez erabiltzea.

3.5. Hizkerak, arina eta bizia izan behar du, elipsiak ondo eginez eta hariari jarraitzeko beharrezkoa ez den guztia saiestuz.

3.6. Esaldi jatorrak erabiltzeaz gain, sormen lanean egiten diren aportazioak primatzea bidezkoa da.

3.7. Joskera aldetik, hizkuntzak, behartu gabea izan behar du, berezko isuri edo jarioa bortxatu barik, sintaxi aldetik ordena aldaketa nabarmenik gabe.

3.8. Erderatiko hitzak, maileguak, egokiak eta erabiliak ontzat emango dira: *konbersazioa, prestamoa...* Gainera, ofizioak eskatzen duenaren arabera argotak direnean ontzat ez ezik komenigarritzat ere joko dira: *kolega, tronko...*

3.9. Gainontzean, erderazko esaldiak, nahiz euskaraz mozturrotu, beti erderazkoak izango

dira.

3.10. Euskalki guztiak onartu behar dira, baina jendaurreko gutxieneko maila horren galbahetik paseak noski.

3.11. Laburduretan, tradizioa dutenak onartu egin beharko dira, beti ere forma osoa hobetsiz:

<u>osoa</u>	<u>laburtua</u>
ez dira	eztia
ez ziran	etzian
gero ere	gerore
egin	ein / in
amaren	aman

3.12. Badira, bestalde, Euskal Herriko parte handi batean ohikoak diren formak: *zun, nun, genun, nekin, zula, nula, zenula, handina, dagola...* Hauek ere ontzat emango dira:

3.13. Hemen, ordea, beste puntu batean aipatu dugun bezalaxe, koherentzia ezinbestekoa, alegia, bertso berean forma berbera erabiltzea eskatzen da.

3.14. Luzadurak baliabide itsusiak dira behartuta sartzen badira: *sufritutzen, etorritzen...* Hala ere, tradiziozko formak ontzat emango dira: *oraindikan, lanikan, zurekilan...*

3.15. "A" itsatsia duten hitzetan hori errespetatzea hobesten da: *gauza-rik, bultzada-rik, arrosa-rik, gazta-rik...* Hala ere, "A" kendarren hitz-erroa bokalez amaitzen denean, aski onargarri da forma hori: *anai(a)rik, grazi(a)rik, handikeri(a)rik, egi(a)rik, Kontzientzi(a)rik, filosofi(a)rik ...*

Alabaina, "A" kendu ostean hitz-erroa kontsonantez amaitzen bada, ez da txukuna eta hain onargarria: *gauz-ik, bultzad-ik, arros-ik, gazt-ik, dud-ik, falt-ik, junt-ik, plan-ik, ardur-ik...* Ondorioz, azken sail honetako forma bat, batez ere neurriagatik baino areago errimatzeagatik sartzen denean, nahikoa errima pobretzat joko da.

3.16 Figura literarioetatik ere badatorkio bertsoari indarra eta, hauen erabilpena ere oso gomendagarria da:

3.16.1. Ironia: Aitzur kirten bat behin hautsi zuen
eta esango det nola:
kokotza jarri gainean eta
deskantsatzen zegola.

3.16.2. Metafora: Kaleko gautxoria
gaur ere kantari

3.16.3. Errepika: Zuretzat ez da eskuarerik
zuretzat ez da arraitzik
zuretzat ez da Iturriotzik
zuretzat ez da Larraitzik

3.16.4. Onomatopeia: Tarrapatatan bandoa joaz...

...
Haizearen txistua fiuka-fiuka.

...

3.16.5. Konparaketa: Loreak udan ihintza bezala...,

...
Arrosa baino zabalagoko
gure zazpi probintziak...
...
Armairu xokoan den arnoa bezala.

3.16.6. Hiperbolea: Lurrera botatzen du
euli baten kargak.

...

3.16.7. Elipsia: Tristura begian,
beti aulerian,
ez haren premian
gure familian...

3.16.8. Personifikazioa: Oh, baserritxo, hartuko dezu
bihotz barrenetikan min...

3.16.9. Kontrastea: Lehen bigun ziran guztiak gogor
ta gogor ziranak bigun...

...

4.- NEURRIARI DAGOZKION IRIZPIDEAK

4.1. Edozein bertso motak du, berez, 10eko nota lortzeko aukera.

4.2. Hala ere, epaimahaiak kontutan hartuko du aukeratutako edo ezarritako bertso motaren zailtasuna, onerako nahiz txarrerako.

4.3. Zenbait doinuk beste neurri batzuetarako bidea ematen duen arren, Zortziko Txikiaren neurria 7/6 silabatakoa da.

4.4. Etena doinuaren arabera erabakitzen da. Batzutan derrigorrezkoa izango den bezala, zenbait doinutan ez da beharrezkoa izango.

4.5. Larriago eta itsusiagoa da, askoz ere, lerrotik lerrorako gunean hitza puskatzea.

4.6. Betegarriak, garbi-garbi neurri-arazoan konpongarri direnean, itsusiak dira oso.

4.7. Dieresiak (diptongo hausketak): *ga-ur, se-i, na-u...* ez dira ontzat emango.

4.8. Sineresiak (hiato hausketak): *ba-goaz, zuek...* ez dira ontzat emango. Hala ere, usadio handia dutenak onar daitezke lizentzia moduan: *joan, behar...*

4.9. Sinalefa beti libre izango da: *gure izakera...*

5.- ERRIMARI DAGOZKION IRIZPIDEAK

5.1. Bertso batean, puntu bakoitzaren bukaerako hitzek behar duten hots-kidetasuna da errima.

5.2. Puntu bakoitzaren bukaeran doan hitza, oina da, eta oinek errimatu egin behar dute.

5.3. Errima, oin bakoitzeko azken silaba berdina edo berdintsua denean gauzatzen da. Silaba horiek ez dute berdin-berdinak izan beharrik; aski da kontsonanteak hots-kideak eta bokalak berdinak izatea, esate baterako: gabe, hobe, trebe, daude... Azken aurreko silabako bokalak berdinak badira, hobe.

5.4. Bertsogintzan errima on samarra lortzeko, kontsonante hots kideei eta beste zenbait jakingarriei dagokienez, kontutan hartzeko arau batzuk hauetxek izan daitezke:

5.4.1. Kontsonante hotskideak:

a) B-D-G-R

algara	atera	bira	albora	ardura
baba	batera	dira	nora	hura
gara	greba	erdira	igo da	ura
bolada	sega	ari da	gora	duda
hala da	hobe da	tira	boda	muga
...	
bare	errege	lakide	kolore	
gabe	fedea	bide	dotore	
sare	lege	senide	lore	
xuabe	ere	nire	hobe	
labe	bere	hire	ohore	
...	
ari	segi	hori	negu	dugu
kantari	ageri	inori	eredu	helburu
amari	neri	gori	zeru	zaitugu
gari	begi	hilobi	erregu	inguru

Beraz, azken aurreko silabako bokalak ere errimatzea komeni da. Dena dela, beste hauek ere onak dira: *gabe/hobe, ageri/ixuri, negu/sagu, algara/langa, eredu/heldu*.

b) P-T-K

zarata	beta	jarrita	bota	uka
patata	eta	barrika	jota	galduta
bata	arreta	tripa	nota	burruka
data	tarteka	apika	joka	maluta
...	
ate	bete	ote	dute	erabaki
kate	daiteke	dote	nuke	kezkati
alkate	neke	bote	truke	daki
jotake	egiteke	tope	bertute	aitzakia
...	

Baina beste hauek ere onak dira: *patata/galanta, nuke/bete, eduki/zapi, zapo/txarto, batu/hartu, alkate/ote...*

c) L

epela	odola	angula	azala
bestela	inola	dugula	dezala
gaudela	gola	tipula	berehala
ustela	axola	sekula	makala
...
bale	talo		
zale	txalo		
eskale	erregalo		
dale	auskalo		
...	...		

Beste hauek ere onak dira: *tartalo/lelo, eskale/bele, sekula/burla...*

d) IL

bila	saila
mutila	zaila
pila	maila
dadila	abaila
...	...

e) M-N

ama	dena	ona	eguna
esana	izena	broma	laguna
zama	pena	gizona	ezaguna
lana	dena	egona	duguna
...

Onak: *komeni/ipini, honi/eskaini.*

f) IN

egina	baino	mingaina
ezina	laino	gaina
bagina	oraindaino	liraina
mina	haraino	gaztaina
...

g) S-Z-X

erreza	ihesi	oso	usu	goza
babesa	hezi	eroso	duzu	poza
beza	hesi	gozo	musu	arrosa
promesa	merezi	zozo	...	osa
...	
lazo	izu	hasi		
akaso	dakizu	hazi		
paso	mukizu	galerazi		
eraso	zaikizu	ikasi		
...		

Onak: *ihesi/guzi, oso/akaso, hasi/merezi...*

h) TS-TZ-TX

antza	hitza	etzi	hutsa
dantza	bizitza	etsi	kamutsa
zalantza	ditza	hemeretzi	putza
esperantza	murrirtza	...	bilutsa
...
hotza	atzo	baratza	
bihotza	atso	erratza	
zorrotza	...	latza	
gorotza	...	akatsa	

Onak: *latza/esperantza, etsi/hautsi, atzo/otso...*

i) RR

zaharra	ederra	gogorra	elurra
bakarra	okerra	zilborra	zakurra
baldarra	alferra	gorra	beldurra

arra	xerra	zorra	apurra
...
jarri	barre	larru	
ekarri	batzarre	barru	
elkarri	larre	esparru	
sarri	

Onak: *jarri/berri, larri/neurri, barre/urre...*

5.4.2 Diptongoak: *au, ai, eu, ei, oi, ou.*

Diptongoak berez nahikoa indarra baduenez, ez du aurreko kontsonanteak errimatu beharrik. Esate baterako:

gai	sasoi	nau
zai	morroi	lau
alai	jipoi	hau
lasai	peoi	gau

5.4.3. **L, N, R, S, Z, X, TS, TZ, TX, K** kontsonantez bukatzen diren hitzek aski dute aurreko bokalaren berdintasuna. Esate baterako:

berez	nator	dakar	min
legez	jator	behar	ezin
mesedez	gogor	indar	egin
nekez	inor	baldar	berdin
...

5.4.4. Errima erraza. Errima errexa dela esaten da:

1/ (a, (ak mugatzaileak, deklinabideko erlazio atzizkiak *-an, -ra, -tik, -rekin...* eta beste atzizki eta juntagailuekin *-garri, -tasun, -keria, -tsu, -pe, -tzea, -ela, -gatik...* errima bezala erabiltzen direnean. Kasu hauetan, aurreko silabak ere errimatu egin behar du, bestela, nahikoa errima erraza bailitzateke.

bizartsu	ardiak	atzetik	agertzea	laburtu
indartsu	erdiak	etxetik	aspertzea	agurtu
behartsu	mendiak	kotxetik	aztertzea	egurtu
gihartsu	ipurdiak	eltzetik...	...	

2/ Aditzen inguruan sortzen den errima ugalketa ematen denean. Pertsona aldaketa esate baterako:

dago	nuen
hago	genuen
nago	zenuen

3/ Zenbait hitz atzizki bezala erabiliz sortutako hitz elkatu eta aditz lokuzioez baliatzean. Esate baterako:

alde egin	antzman	gabonak
hots egin	atzeman	zorionak
hitz egin	harreman	gizon onak
hutx egin	eskua eman	...
zoritxarra	topaleku	
eguraldi txarra	pilotaleku	
...	...	

4/ Sinonimoak direnean: *garrantzia /inportantzia...*

5.5. Akatsak. Potoa, laburdurak eta errimatzeagatik beste zenbait lizentziz baliatzea akatsak dira.

5.5.1. Potoa: bertso berean oin bera errepikatzea da poto egitea. Hitz homonimoak (forma bera baino esanahi desberdina dutenak) salbuespen dira. Adibidea: *eskutik heldu / herrira heldu, bertso berriz / etorri berriz...*

Potoaz baino potoez hitzegiteari egokiago deritzogu. Ezpaita berdin lapsus batez egindakoa, hau da, hitz bat pentsatu eta beste bat esan duela garbi ikusten denean, eta bertsoak alde egindakoa ezinbestean sartutakoa.

Hala ere, potoa beti izango da zigorgarri, besteak beste, bertsolariak ere hala sentitzen duelako, eta noski, akats nabarmena delako. Poto ezberdinak egon daitezkeenez, beraz, puntu batetik hirura bitartean jaitsiko da nota.

Aditz laguntzaile monosilaboak (*da, du, nai, dut...*) eta zenbaki monosilaboak (*bat* eta *bi*) ez dira poto baldin eta aurreko hitzek errimatzen badute. Bestela bai. Beraz, "gazte bi" eta "aste bi", oso baliabide aberatsa izango ez bada ere, ez da poto. Ezta "hartu du" eta "sartu du" ere.

5.5.2. **Laburdurak:** akatsa da laburduraz baliatzea errimatzeako orduan: Adibidez:

<u>osorik</u>	<u>laburturik</u>
ez dira	eztia
mezetara	mezeta
kalera	kalea

5.5.3. **Beste zenbait lizentzi:** errimatzeagatik bukaerako kontsonantea ahoskatzeke uztea

akatsa da. Adibidez:

beta
emeki
etxeti (k)

5. 6.- Azken gogoeta. Bertsotan errimak duen garrantzia ukalezina da. Hala ere, kontuan hartzeko irizpideak dira honoko hauek:

5.6.1. Ez da komeni orrazi estuegia, ideia, arrazoia eta edukiaren kaltetan baldin bada behintzat.

5.6.2. Errima ez da inoiz soilik aztertuko, bertsoaren barruan baizik: errima onarekin bertso traketsa molda daiteke, eta alderantziz.

5.6.3. Errimakerietan ibiltzea ez da betere sarigarria izango. Edukia da garrantzikoena. Errimaren mende bertsoa baino hobe da, errima edukiaren mende.

6.- BESTE

6.1. **Bertsoaren “arima” bukaerako arrazoia da.** Aurretiko beste puntuek ere, bai elkarrekin eta bai azken horrekin, ongi uztartuak izan beharko dute, pieza bakarra osatuz, nahiz ideia nahiz joskera aldetik. Alabaina, horrek ez du esan nahi beti lotura sintaktiko garbia egon behar duenik.

6.2. Bertsolari baten estilo edo estereotipoak izan lezakeen eraginaren aurrean, **bertsoa bera juzgatuko da inolako balio erantsirik gabe.**

6.3. Doinu eta **kantaera egokiak badu** bere xarma, eta ondorioz, baita **eragina** ere.

6.4. Bertsoa **kantatzen hasteko denbora luzeegiak itsusi ematen du**, giroa hautsi egiten du. Berdin, puntutik punturako gehiegizko isilaldiek.

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 97
Epaimahaiko taldea

HITZAURREA

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiogu Bertsozale Elkarteari aukera paregabe hau emateagatik. 1997ko Bertsolari Txapelketa behatzeko talaiarik ederrenean kokatu baikaitu. Bertatik, epaimahaiaren tentsiorik gabe baina hautaketa lanak eskatzen duen arretaz gozatu izan dugu txapelketa.

Uso asko ikusi dugu pasean eta ederren iruditu zaizkigun horiek hautatu ditugu libururako. Hala ere, sail osoak aukeratu beharrak bertso onen bat baztertzera bultzatu gaitu aldameneko bertsoak neurria ematen ez zuelako. Dena den, bertsolari guztiek dute tokia eta 42 bertsolarien ihardunak dituzu paperean.

Ahoz eta bat-batean sortutako bertsoak transkribatu behar izan dira, entzun eta idatzi. Lan eskerga (eta batzutan esker gabeko) hau Martin Aramendik egin du. Aurreko Txapelketako liburuetan eta Bertsozale Elkarteak argitaratzen dituen BAPATEAN liburuetan agertzen diren transkripzioarako irizpiderik ez goaz hona aldatzera. Baina aritu ez denak ez du jakingo zenbaterainoko lanak ematen dituen.

Bertsolari bakoitzak du bere estiloa, bere pentsamoldea, bere izakera, hau da, bere bertsokera. Txapelketa batean bertsokera guztiek dute tokia, denak dira aberasgarri. Bakoitza bere berezian gozatzea da bertsozalearen zoriona.

Gazte eta gazte izandakoek eman digute zer txalotua txapelketaren zehar. Guztiek, lan gaitza ondo burutu duen gai jartzaileen taldeak proposaturiko gaiari erantzun diete. Gizartea bere zabalean isladatu duten gaiak izan direla uste dugu.

Txapelketa batean, bertsolariak bere-berea duen mezua zabaltzeko aukera gutxi du. Agurreko bertsoez gain bakarkako zenbait ariketetan (azken oina, azken aurreko puntua emanda) emandako hitza, edo puntuaren zabaltasunaz balia daiteke horretarako.

Hona hemen 1997ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren haizeak ekarri dizkigun uso batzuk. Buru-bihotzeko heltzean poliki-poliki presta itzazu eta on dagizula.

Jon Abril
Mikel Aizpurua

AZKEN-LAURDENAK

Tolosa

1997-X-11

Aurkezlea: Laxaro Azkune

An. Otamendi

Neurria: 9 puntukoa
Doinua: Betroiarena

Hasierako agurra

eta gabon Leidor;
gaur atzerako dira
batzuk derrigor,
baina ahaleginen bat
ez ote degu zor?
Xebastian gaur egun
ez degu edonor;
Unai fuerte dator,
Legarreta gogor,
Bixente egoskor,
prestatuta Igor,
baina ni hauek danak
haustera nator. (bis)

Txapelketa hasi da

Gorostidi

Neurria: 10eko txikia
Doinua: Gogoratuko zara

Hasierako agurra

eta gauon Leidor;
guretzako saioak
nahiz dirudin zigor,
hona derrigorrean
ez da etorri inor,
beraz gu zuri ikusi
ta zuri ez jarri hor;
hona derrigorrean
ez da etorri inor,
beraz erruki izpirik
ez zaigu guri zor.

Gauon bertsozaleok

U.Agirre

Neurria: 9 puntukoa
Doinua: Betroiarena

Hasierako agurra Hauxen da hau taldea
tokatu zaiguna!
Igorren ironia
txit ezaguna;
aita Bixentek balu
gaur bere eguna...
Otamendi ere ez da
kontraio biguna;
Arano laguna,
fina ta txukuna,
neu ere jarduna
eta bizarduna?
Ona bainan sufritu
beharko duna. (bis)

An. Otamendi - Gorostidi

GAIA: Juradu popularrerako deitu dizuete bioi. Zu, Andoni, joateko prest zaude baina, Bixentek ez du ezer jakin nahi.

Neurria: 8ko nag. (ofiziotan)
Doinua: Balentin Berriotxoarena

An.Otamendi Orain artean nik juezengan
ez det askorik sinetsi
eta suertez aukeratxo bat
une hontan erdietsi.
Beraz joango naiz ta nere ahotsa
bertan nahi det erakutsi;
herriak dion ahotsa ezin da
orain isilpean utzi. (bis)

Gorostidi: Delituren bat egin duenak
beharko du zenbait zigor,
baino beste bat epaitutzea
guztientzako da gogor,
ta zinpekoen lege honekin
inola ere bat ez nator,
bere antzeko bat epaitutzeko
gizakia ez baita nor. (bis)

An.Otamendi Epaiketarik ez balego're
gizartea nahiko larri.
Benga Bixente, aukera on bat
gaur ez al digute jarri?
Nere iritzia epaiketetan

nahi nuke behintzat ekarri,
zuk'e badezu zer esana ta
zerorri ere etorri. (bis)

Gorostidi Arazo asko izaten dira
pertsonek denek bizitzan
eta ez nuke nik inorentzat
epaile lanean izan.
Epaiketena jarria dago
gizartean tranpa gisan,
delitu gehien egiten dunak
eskuak garbi izan ditzan. (bis)

An. Otamendi Motibo batzuk badauzkazu zuk
orain pentsatzen jartzeko
ta juezena gaizki dagola,
horretaz zu ohartzeko.
Auzitegia ikusten dezu
zuk nahiko esku beltzeko,
aukera dezu delitu gehien
duna kartzelan sartzeko. (bis)

Gorostidi Pekataria zigortzeko nahiz
jarri zuk borondatea,
ez da errexa errudun zein den
bat-batean esatea,
ta ez pentsatu nik onartzerik
ai, epaikide maitea;
inor epaitu baino nahio det
neu kartzelara joatea. (bis)

An. Otamendi: 17-19-19-18-17-16,5-18,5 = 125
Gorostidi: 17,5-18-16-19- 19-18,5-19,5 = 127,5

U.Agirre - I.Elortza

GAIA: Zuek aiton-amonak zarete, Igor aitona eta Unai amona. Eman dezagun astelehen goiza dela eta txukun-txukun jantzita Tolosako ferira joan da aitona, bazkaltzera itzuliko dela esanez. Goizeko ordu bietan dator etxera, taxian eta bastoia galduta.

Neurria: 8ko txikia (ofiziotan)
Doinua: Nere senarrarekin

U.Agirre Nere senarrak badu
hainbeste bertute,
hara zer egin didan

fiatzean truke!
Hola etorriko zanik
gaur ez nuan uste,
Tolosa alde hortan
zer egin dizute? (bis)

I.Elortza Tolosaldea ez zegon
gaur jenderik barik,
hiru-lau trago ere
hartu dut azkenik;
mozkortu egin naiz eta
ondo ez naiz oraindik,
baina galdetu zazu
zer egin dudan nik. (bis)

U.Agirre Galtzak ta alkandorak
zeharo zikinak,
zure ibilerak ditut
lehenago jakinak;
bastoia ere ahaztuta
bere ahaleginak,
gauetz ahazten zaizkio
herrenak ta minak! (bis)

I.Elortza Amonak dioena
ez ote dugu lar?
Nahikoa min badauzkat
gerrietan zehar.
Gauero ezin dugu
bada, egin negar,
behin etorri pozik ta
hauek entzun behar! (bis)

U.Agirre Berak esan duenak
badu garrantzia,
batzutan izaten du
kristoren trantzia.
Ez da harritzekoa
nik dudan letxia,
bihar ni irtengo naiz
zuk zaindu etxia. (bis)

I.Elortza Gauzarik errezena
dugu esatea,
baina ondorengoa
hola izatea.
Leku peligrsoa
Tolosa partea,

ez al dugu onena
batera joatea? (bis)

U.Agirre Mozkorra izaten da
zahartzaroan kalte,
horrelakoak hobe
nigandik aparte.
Alkohol kirats horrekin
nik ez zaitut maite,
galtzak erantzi eta
sofara joan zaite! (bis)

I.Elortza Esaten duenakin
nola egin kasu?
Alkoholaren usainak
antza enbarazu.
Bihar nire ondoan
etor zaitez aizu,
probatzen duzunean
gustatuko zaizu. (bis)

U.Agirre: $23,5-25-26-25-24,5-25,5-25,5 = 175$

I.Elortza: $25,5-24,5-27,5-23,5-25-25,5-25=176,5$

I.Elortza

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Azkune Eguraldia ez dago
gizakion esku;

I.Elortza ta gertatzen zaiona
ezin da sinestu:
udan euri ta neguz
eguzkia prestu.
Gizakiok menpean
bizi gara estu.

$7-6-7-7-7-6,5-6 = 46,5$

S.Lizaso

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Azkune Bizitzaren trenean
ba al goaz aurrera?

S.Lizaso Ta trenetik presaka
zertako atera?
Aukera berdina da
gutxi gorabehera
ta helmugara denok
iritsiko gera. (bis)

$6,5-6,5-7,5-6-7,5-7-7 = 48$

S.Lizaso

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Anai-arrebak hementxe nator

Euskal Herriko gizabidea
dago korapilatua;
hamaika bihotz ez ote dago
gorrotoak mailatua?
Zein gogorra den konponbidea
inun ezin bilatua!
Beti harrika hartzen baitegu (bis)
norberaren *teilatua*.

$7-7-8-7,5-6,5-8-8 = 52$

U.Agirre

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Azkune Guggenheimen daukagu
kultur ondarea,

U.Agirre batzuen eritzian
oso dotorea;
hori ez dute sortu
dirurik gabea,
nunbaitean sartua
han dago geurea.

$5-5,5-5,5-6-6,5-6-6 = 40,5$

X.Legarreta

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Saltarina da txepetxa eta

Tolosakoa da neretzako
lehendabiziko aproba,
nahiz eta denek joan nahi degun
beti aldapetan gora,
nolabait ere gaizki ari-ta
hemen egon beharko da,
gerora ere izango baita
gora heltzeko *denbora* (bis)

6-7-6-7,5-7-7,5-7 = 48

Gorostidi - U.Agirre

GAIA: Zu, Gorostidi, klausurako monja gaztea zara, monasterioan bizi dena eta, Unai Agirre estresak jota lasaitasun bila hilabete pasatzera monasteriora datorren mutil gaztea.

Neurria: 10eko txikia (ofiziotan)

Doinua: Esnesaltzailearena

Gorostidi Mutil gaztea dezu
hamaika meritu! (bis)
Lasaitasunan bila
honuntza abitu.
Ni pozez orain ezin
barruan kabitu;
honek lasaitzeko ere
aukera asko ditu,
baino arren ez zaitez
gehiegi lasaitu! (bis)

U.Agirre Ia biak zer moduz
gu konpontzen geran, (bis)
herri hortan ez nengon
lasai ta primeran,
baina hau'e onegia
ez degu aukeran,
zuri begiratuta
zer pentsatzen dedan:
pake bila etorri
eta gerra eman. (bis)

- Gorostidi Nik haseran pakea
eskeini nahi nizun, (bis)
beharrezkoa dezu
zenbait lasaitasun,
barruan dezulako
makina bat hutsun;
hemen lortu daiteke
nahi aina osasun,
esan zaidazu ze otoitz
klase dakizkizun. (bis)
- U.Agirre Poliki hasi gera
ta noraino junak! (bis)
Hemen dabiltzan monjak
ez dira txukunak;
nere gaztetasunak
oso ezagunak,
errezu askorikan
ez daki lagunak,
baina esango' izkizut
zuk nahi dituzunak. (bis)
- Gorostidi Ondo konpon gaitezke
gu biok horrela, (bis)
ulertu baitidazu
nere asmoa bela.
Zure egonaldia
izango da itzela,
etorri nere atzetik
nik esan bezela,
erakuts diezaizudan
zuretzako gela. (bis)
- U.Agirre Monja honek larrua
dauka nahiko lodi, (bis)
lasai ez dagonantzat
hainbat kategori.
Hemen barruan degu
hamaika istori
ta azkar nere gela
erakutsi neri!
Baina ate sekreturik
ez dadukan hori. (bis)

Gorostidi: 16-19-16,5-17-17,5-18-19= 95
U.Agirre: 17,5-18-19-18,5-19,5-19,5-19= 131

AZKEN-LAURDENAK

Aramaio

1997-X-18

Aurkezlea; Bernardo Mandaluniz

Lujanbio

Neurria: 10eko txikia
Doinua: Gogoratuko zara

Hasierako agurra	Hasi ta buka zagun
gaurko bertso lata, bi aldetara dago hintxada aparta; famili artean gaude hobe hola kanta, nahiz ta hau osatzeko silla asko falta; famili artean gaude hobe hola kanta, inkondizionalenak etorri dira-ta.	

Zelaia

Neurria: 10eko nag.
Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan

Hasierako agurra	Tolosan gendun lehen saioa
ta Aramaixon hurrena, udazken osoz jardungo gera Euskal Herrian barrena. Nahiz eta jende gutxi bilduak barruan eman dun pena, lasai jarri ta lasai kantatu da egin behar detena; gure barrua gozatzen bada gozatuko da zuena. (bis)	

Silveira - Lujanbio

GAIA: Zu Xabier herriko alkatea zara eta zu Maialen herriko gaztea. Pub edo tabernak
ixteko ordutegia aldatu egin da eta egoera horrek aurrez aurre jarri zaituzte.

Neurria: 8ko nag. (ofiziotan)
Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Silveira	Orain artean katxondeoa zebilen gora ta behera, nik pentsatu nun "fundamentua ekarri behar da honera; gazteak goiz-goiz bidali behar
----------	--

- pubetatikan etxera,
kalean alfer-alferrik daude
gauerditikan aurrera.”(bis)
- Lujanbio Esaten dezu maiz gabiltzala
erreta eta edanda,
abstinentzian aldekoa da
beraz zure propaganda.
Jartzen badezu gauerdirako
tabernak ixteko txanda,
parranda berdin egingo degu
zure leihopera joanda. (bis)
- Silveira Beraz herrian dauden tabernak
denak ixten direnean,
omen zabilta nere leihora
hurbildutzeko planean;
zaratarikan entzuten badut
etxeko ingurunean,
a toda hostia joango zara
Ertzantza datorrenean. (bis)
- Lujanbio Politikoez beti dituzte
ahopean mila truko;
beraz Ertzantza hartu nahi dezu
babesle, zure gertuko;
korrika aldegin beharko degu,
zu izango zera lekuko,
baina gutxinez zuk ere ez dezu
belakuan lo hartuko. (bis)
- Silveira Aizu hau ez dut nik erabaki
ez zaitezela aztora,
azken urteetan haxe izan da
europar guztien moda:
litronak hartu ta mozkortzera
guztiak etxe zulora,
ta European hola egiten bada
ongi egina egongo da. (bis)
- Lujanbio Hitz jariora entzun dizut ta
berriro hartu nau penak,
zure buruko hutsune horiek
dira horren nabarmenak!
Beti zaudete Europari so,
Europari miresmenak,
ta kopiatzen dizkiezue
beti neurririk txarrenak. (bis)

Silveira: 18-19,5-18-20-19,5-18,5-19,5= 133
Lujanbio: 20-19-20-20,5-18,5-20-20,5 = 138,5

Ugartetxea

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Xarmangarria zera I

Mandaluniz Eskale umilari
aterik ez itxi,

Ugartetxea lehen ere ez baitauka
sufrimendu gitxi;
hark ere beharko du
nonbaitera iritsi,
hil beharko baitu hark
bihar edo etzi.

6-5,5-7-6,5-6,5-6,5-6 = 44

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Esaminatu izan tut ongi

Guk bageneukan txakur txiki bat
oso dotorea zana,
bere denboran gure etxean
edo zertarako emana.
Baina gaurkoan aldegin digu
hau da pena daukadana!
Harek gogoan edukiko du
nere azkenengo *laztana*.

6,5-6-6-6-7-8-7,5 = 47

Eizmendi

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Donostiako hiru damatxo

Tabladu hontan kantatutzea
ez da hain trantze earra,
besteak berdin daude nere ustez,
ez naiz izango bakarra;
nerbio hauek egiten dute
holako eragin txarra,
martxa honetan bertsoak utziz
hartzera noa *gitarra*.

6,5-7-7,5-6,5-6,5-7-7,5 = 48,5

Silveira

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia.

Doinua: Xarmangarria zera I

Mandaluniz Aberatsak ez daki
errukia zer den,

Silveira adibide ugari
jar lezake hemen;
bat aipatu behar badut
horra hor Guggenheim,
euskaldunontzat ez da
deus ere izanen.

6-5,5-5,5-5,5-6-6,5-6 = 41

Lujanbio

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia.

Doinua: Xarmangarria zera I

Mandaluniz Mundura ez da inor
etorri betiko;

Lujanbio bizi geran artean
denak gaude tinko,
baina badakigu guk
geradela hilko;
itzaltzen geranian
ahaztu ta kito.

6,5-6,5-6-7-7-7-6,5-6,5 = 46,5

Lehen puntua jarrita

Mandaluniz Zailtasunari beti
erantzun umorez;

Lujanbio hala esaten da baina
ez da izaten errez.
Zailtasunan aurrean
beti gaude nekez,
baina jarraitu behar da
gure ahaleginez.

$6-6-6,5-5-6-6-6 = 41,5$

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Herri txikien negu gordina

Ondo dakigu gure txanponak
Bilbora jua dirala,
Nerbioi ertzean egin baitute
eraikuntza mundiala.
Museo horrek itxura dauka
sagar ustelak bezala:
barrua dauka usteldua ta
diztiratsua *azala*.

$7,5-7-7-8-8,5-7,5-8 = 53,5$

Zelaia

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia.

Doinua: Xarmangarria zera I

Mandaluniz Itsasoa aberats
eta emankorra,

Zelaia nahiz eta sarritan dan
latza ta gogorra;
istripu asko izan
ditugu guk, horra!
Hala ta guztiz berai
badiogu zorra.

6-6,5-5,5-7-7-6,5-6 = 44,5

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Donostiako hiru damatxo

Gaur egunean parrandan pozik
ibili ohi da jendia,
etxera heltzen gera goizean
eta gauean abia;
ama oihuka hasten denean
nere erantzun argia:
“guk eguzkia baino gehiago
maite degu *ilargia*.”

6-6,5-6,5-7-6,5-7-7,5 = 47

Lujanbio

GARTZELAKO GAIA: Bihotzeko aldizkari batek bostehun milioi eskaini dizkizu zure abentura pertsonalak kontatzearen truke. Jarri izango dizu nahikoa buruhauste.

Neurria: Zazpi puntukoa

Doinua: Gregario edo laguntzaile naiz

Rebista merke horiek badute
Euskadin nahiko entzute,
ustekabeen neri zirikan
jo eta ke dihardute!
Esaten dute “bihotz hautsin bat
izango dezu bai zuk’e”.
Ez nuen askorik uste
izaterik hainbat suerte! (bis)
Abizena’re salduko nuke
nik bostehun milioiren truke!
Silveirarekin erromantze bat
denek sinistuko dute. (bis)

Beraz Silveira hartu behar det
nik nere aldamenean,
gorputzez ere ez al gaude ba
biok aldarte onean?
Ta jada nago argazkilari
bati deitzeko planean;
hasi dedila lanean,

hala hobe gehiengan. (bis)
Ta argazki bat aterako det
mingaina mingainean,
komon batean biok biluzik
baskula baten gainean. (bis)

Modak ez dio inoiz egiten
gure buruei mesede,
baina eragina izaten dute
eta asko daude grabe.
Beraz eskemak aldaraztea
izango da askoz hobe;
Xabier ta ni parez pare,
igurtziz gure goi ta behe. (bis)
Pasarelako modelo horiek
modaz pasatuta daude,
aldarrikapen bat eingo degu
gure mitxelinen alde. (bis)

20-21-21-21-21,5-21-21,5 = 147,5

Eizmendi

Neurria: 8ko txiki zaharra
Doinua: Jende onak azken finez

Azken agurra Azken bertso batekin gu
gera orain agurtzen,
heldu ginen bidexkatik
berriz ere gordetzen.
Gaur jotako txalo denak
dizkizuet eskertzen;
gabon denoi, zuek ta gu
ondo bizi gaitezen.

Lujanbio

Neurria: 10eko txikia
Doinua: Gogoratuko zera

Azken agurra Suerteari hainbeste
eske ta erregu!
Zertarako izan dan
ikus dezakegu;
kanpoan hegoaize,

izar bete zeru,
mikrofono aurrean
lur jota gaude gu,
kanpoan hegoaize,
izar bete zeru,
orain akelarre bat
egin behar degu.

Intxausti

Doinua: Batean tripako minez

Azken agurra Hobeto eitea nahio, (bis)
baina orain ze arraio!
Milagrorik ez da egon
beraz zer egingo zaio? (bis)

AZKEN-LAURDENAK

**Hendaia
1997-X-19**

Aurkezlea: Mikel Taberna

Respaldiza

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Hasierako agurra Txapelketatik txapelketara
lehiakide zahar antzera,
ohituta gaude asko ibiltzen
batera eta bestera.
Ahal dala behintzat nik ez nuke nahi
nire mailatik atera,
Egaña ere urduri dago
eta zergatik ote da? (bis)

Lizarreta

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koxkor bat itsuarreko

Hasierako agurra Arratsaldeon, ordua heldu da,
erasoteko prest gaude;
guztio berdin pentsatzen gaude
“pasata balego hobe!”.
Potoak edo hankasartzeak
igoal izango dirade,
baina entzule horren zalantzan
jarrita baldin bazaude,
dugun guztia emango dugu
tongorikan egin gabe. (bis)

Respaldiza - Egaña

GAIA: Bertsolari gaztea zara, Andoni, eta Juanjo zure ama. Orain arte kafesnea izan da zure gosaria egunero, gaur ordea, arrautza pareta ardoarekin eta kafea koparekin jarri dizu gosaritarako.

Neurria: 8ko txikia (ofiziotan)

Doinua: Kantatzera nijoa

Egaña Zingarra ta arrautzak
det gaurko aukera,
pizgarri bat nahi nuke,
kafea da bera;
gero kopa ekarri
mahaiaren ertzera,
fuerte kantatu nahi det

S.Lizason antzera. (bis)

Respaldiza Fuerte jarri dizut
horixe da plana,
badakit gaur duzula
bertsotako lana;
gogorra behar duzu
jana ta edana,
bertsolari erdi da
gizon erdi dana. (bis)

Egaña Orain artean badet
gaxtearen sona,
bertsoen mundu hori
ama ez da broma!
Nahiz eta eskuratzen
zail den zoriona,
sabeletik hasten da
bertsolari ona. (bis)

Respaldiza Ez dut nahi izaterik
kantuan baldarra,
badakit zure sena
ez dala hain txarra.
“ Sabeletik hasten da”
esaldi edarra!
Plateretik burura
joaten da indarra. (bis)

Egaña Lana egin behar det
gaur egun osuan,
gosaria ipini
fuertea goxuan.
Plateran bi pizza ta
esnea basuan,
Peñak ultzera hola
harrapatu zuan. (bis)

Respaldiza Nik ipiniko zaitut
puntuan-puntuan,
aprobetxatu ondo
zure talentuan;
zu ez zara jausiko
ultzeran kontuan,
amak'e kontaktzen du
bertsoen kantuan. (bis)

Egaña: Zuregana joan naiz

gosari peskisan,
beti ibiltzen bainaiz
amaren gerizan.
Portatu zeralako
nik nahi nuen gisan,
txapeldun sentitzen naiz
nahiz eta ez izan. (bis)

Respaldiza Hau inportantea da
zeuk ere dakizu:
ama euki behar da
kontu hontan maisu;
txapeldun izatea
gerta leike, aizu! (bis)
Hendaian Egaña ere
harrituko duzu.

Respaldiza: $24-23-21-23-22,5-24,5-25,5 = 163,5$
Egaña: $27-26,5-25-27,5-26-27,5-28 = 187,5$

Respaldiza

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Xarmangarria zera I

Taberna Bertsoak batu gaitu
hego ta iparra,

Respaldiza eta ikusi leike
aurrean indarra;
pozik botako nuke
nire deiadarra:
beste arlo batzutan
badago beharra.

$6-6,5-5,5-7-6,5-6,5-6 = 44$

Lizarreta

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Eguna pasa nekean eta

Lasai etorri hala egoteko
izan da nere ustea,

hemen dardarka jarri naizela
izan da gauza tristea;
konturatu naiz zerk eman didan
horrelako atakea:
sudurzulotan sartua daukat
Egañan puruan *kea*. (bis)

6,5-7,5-7,5-7-6-6,5-6,5 = 47,5

Estanga

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Zeru altuan zegoen jaunak

Gure makilek egina dute
aurrerapausu galanta,
baina halare nere ustetan
sustrai pixkat zaigu falta;
telefonokin ibiltzen dugu
horrenbeste zalaparta!
Lehenagokoez alde-aldekoa
bazeukaten *txalaparta*.

5-6-6,5-7-5,5-5,5-5,5 = 41

Egaña

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Taberna Penak kanporatzea
ez da lan erraza;

Egaña batzuk irteten dira
sarri bere kasa,
baina sentimentuek
a zer anabasa!
Nik sarritan egin dut
gorde eta pasa.

7-7-8-7,5-8-7-7,5 = 52

Lehen puntua jarrita

Taberna Eguna eta gaua
elkarren ondoren,

Egaña hori beti horrela
gertatu da hemen,
baina parrandazale
haundi nola garen,
maiz etortzen zait bata
bestea baino lehen.

$7,5-7-7,5-7,5-7,5-8,5-8 = 53,5$

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Herri txikien negu gordina

Denok dakigu nolakoa den
ispiluen iruzurra:
ikuspegiak nahastu ditzake,
egia eta gezurra.
Guggenheimekin hala gabiltza
eta badaukat beldurra
hori ote zen euskal kulturak
eskatzen zuen *gailurra*.

$8-7,5-8-9-9-9-8,5 = 59$

As.Otamendi

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Taberna Pertsonak gara baina
desberdinak oso;

Otamendi batzuek bizi dira
lasai eta gozo,
eta pobreaki berriz
urtero eraso;
berdintasuna noizbait
hel leike akaso.

$6,5-6,5-6,5-6,5-5,5-6-6 = 43,5$

Loidisaletxe II

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Taberna Aspaldian ez duzu
 parrandarik egin;

Loidisaletxe II nere berri nundikan
 ote dezu jakin?
 Nahiz ta parranda dedan
 nik oso atsegin,
 hiru haurren aita naiz
 eta egin ezin.

$6,5-8-8-7,5-6,5-7-7 = 50,5$

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Ez nau izutzen negu hurbilak III

Inola ere ezin da bete
bakoitzaren kutizia.
Mahai Nazionalan zapalkuntza hori
garbi degu ikusia;
hemen badago jasan ezin den
ainako injustizia,
gizarte hortan horixe degu
benetako *minbizia*.

$6,5-7-7,5-6,5-6,5-7-7,5 = 48,5$

Respaldiza

GARTZELAKO GAIA: Kamioi batean gordeta zatozen marrokiarra edo marokanoa zara. Kamioia aztertzen ari diren berrogei bat gendarmez inguratuta zaude.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Beste bateko inularretan

Gure herrian ekonomiak
ez dauka hainbat birtute,

eta gosea dago ugari
langintza eskasan truke.
Zerbait egiten ausartu naiz ta
neure herritik aparte,
bizibidea egin nahi nuen,
lapur gisa hartzen naute. (bis)

Aurrerapide gutxi zegoen,
nintzen aspertu samarrik,
telebistatik hemengo berri
entzun dut baina okerrik;
demokrazia bazala hemen
baina gehiena alferrik,
hemen ez dago muga asko ta
barrukoentzat bakarrik. (bis)

Harrapatzeko puntuan nago
ta egingo dut akabo,
ia ezingo dut hemen aurrera
hemengo muga igaro.
Kasik Afrikan bizitzea ere
izango nuke nahiago,
Europar lege ederrak daude,
gizatasunik ez dago. (bis))

17,5-15,5-16-16,5-17-18,5-19,5 = 120,5

Egaña

GARTZELAKO GAIA: Kamioi batean gordeta zatozen marrokiarra edo marokanoa zara. Kamioia aztertzen ari diren berrogei bat gendarmez inguratuta zaude.

Neurria: Zazpi puntukoa

Doinua: Munduan libre bizi izatea

Inundik ere ezin atzendu
barne-zolaren dardarra,
ez dut ulertzen gendarme hauen
hizketa edo marmarra;
batek ahapeka hitz egiten du
eta besteak oharra.
Europa bakar-bakarra,
nunbait batasunan marra,
diferentziak dira oraindik
daukat aipatu beharra
eta denetan haundina degu
hegoa eta iparra. (bis)

Ez dakit zenbat gendarme edo
ez dakit zenbat soldadu!
Neri benetan berdin-berdin zait
horko galoi eta gradu!
Honuntz etorri bizimodua
atera nahi dut ondradu,
halare beltzak gera gu,
egin zaitezte kargu!
Zapalkuntzarik zapalkuntzenen
ispilu eta eredu,
baina bizitza kudeatzeko
eskubidea daukagu. (bis)

Behin Xalbadorrek atera zuen
barreneko irrintzia,
aipatuz hemen bizitza orok
berez duen garrantzia;
ta Xalbadorren irakaspenen
eskasa edo gutxia,
dena daukagu ahantzia,
edo eskutik utzia;
frantsez gendarme dalako horiek
ia naute irentsia.
Beraz alferrik izango degu
Xalbadorrek idatzia. (bis)

22-21-23,5-20,5-21-22,5-23 = 153,5

Lizarreta

Neurria: 10eko txikia
Doinua: Esnesaltzailearena

Azken agurra Gaur Hendaiako zita
oso goiz genduan; (bis)
bazkaldu ezin egin
ordu beranduan.
Orain goseak hiltzen
behar dan moduan,
oroigarria hartua
hor detan orduan,
San Blas puska ote zan
pentsatzen nenguan! (bis)

Egaña

Neurria: Berezia

Doinua: Ikusten duzu goizean

Azken agurra Ikusten dut epaimahaia,
horrek jartzen du arraia,
horren esku da galbahia.
Eskerrik asko entzule denoi,
dena dugula epaia.
Bukaeraren usaia,
hauxe momentu lasaia,
hurrengora arte Hendaia!

AZKEN-LAURDENAK

Ondarroa

1997-X-25

Aurkezlea: Bernardo Mandaluniz

Arzallus

Neurria: Berezia

Doinua: Iparragirre abila dela

Hasierako agurra Ondarruako jende beroa
denok omen dugu alde;
gu lasai gatoz lau legatz fresko,
ni bakailau, Mañu bale.
Marea itsusia
det egun ikusia,
arriskuan denak gaude,
bainan olatu azpitik ere
pasa leike ito gabe. (bis)

Artza - Mendiluze

GAIA: Oso ohitura desberdinak dituzten bi txofer zarete. Zuk, Joseba, auto-stopeko jendea hartu egiten duzu; Aitorrek, oster, ez du inor hartzen.

Neurria: 8ko nag. (ofiziotan)

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Artza Bi txofer gara, gure artean
desberdintasun itzela;
nire iritziz zure aukera
egiz ere da txepela.
Autoestopistak hartzen ditut nik
beste zenbaitek bezela,
eta horrela pentsa dezaket
pertsona hobea naizela. (bis)

Mendiluze Errepidea betea dago
arrisku latz eta kaltez,
ta horregatik ez naiz ariko
ni kotxea jendez betez.
Ona zerala erakutsi nahi
ta zabilta borondatez,
ni lagunekin gutxi fio naiz,
ezezagunekin batez. (bis)

Artza Ezezagunak etsai bezala
zergatik hartu mutiko?
Erabaki bat hartu zenuen,
behin hartu eta betiko.
“Zu konbentzitzen alferrik nabil”

hori diot nerekiko,
borondaterik ez duen bati
eskatzen ez naiz hasiko. (bis)

Mendiluze Eta hasiko bazina ere
alferrik litzake kasik,
neure aldetik eskatu ezean
gelditu ninteke pozik;
baina nik ez det inor juzgatzen
aukera bat eman ezik,
nik ez det esan txarrak direnik
izan daitezkeela baizik. (bis)

Artza Ta onak ere izan daitezke,
gainera modu berean;
egia esan prejuizioak
daude zure barrenean.
Gerora ere segiko dugu
bakoitzak bere bidean,
zoriontsuak izan gaitezen
zu zeurean, ni neurean. (bis)

Mendiluze Ni kontu eske ez naiz hasiko
beste inorren etxera,
horrexegatik segi zazu zuk
orain arteko antzera.
Nik lehen ez nuen inor hartzen ta
ez det hartuko atzera;
Ondarrun topo egingo degu
iristen baldin bazera. (bis)

Artza: $19-18-18,5-17,5-18,5-19-17,5 = 128$

Mendiluze: $20-19-19,5-21-19,5-19,5-20,5 = 139$

J.R.Elortza - Arzallus

GAIA: Zu, Jose Ramon, baserritarra zaitugu. Zure baserria monumentu historiko izendatuta dago. Berritzeko asmotan joan zara Diputaziora eta Jexux diputatuak ez dagoela berritzerik esan dizu.

Neurria: 8ko nag. (ofiziotan)

Doinua: Balentin berriotxoarena

J.R.Elortza Bere zutabe horiek diote
baserria zein zaharra den,
bostehun urte pasa ta gero
pipiak jota hor-hemen;

erabaki bat hartu beharra
daukagu beraz lehenbailehen;
hori berritu nahi nuke, aizu,
behera erori baino lehen. (bis)

Arzallus Bakoitzak bere asmoak hemen
behar baititu agertu,
behien kakatik urrundutzeko
orain zaude oso gertu;
zer egin leiken bakoitzak berak
nola behar dun neurtu,
monumentu bat agroturismo
ezin liteke bihurtu. (bis)

J.R.Elortza Zure arrazoi hori nik ez det
behar dan bezela jaten,
monumentua polita dela
hor ari zera esaten,
bainan berritzen hasi behar naiz
gogo onetik bat-baten;
horrek polita izanagatik
dirurik ez du ematen. (bis)

Arzallus Dirurik ez ta, etxe zaharrari
egin nahi dio adio!
Baina inbidiak bizitza hontan
denerako ez du balio;
etorkizuna aztertu zazu
orain serio-serio,
eta zerorri jarriko zaitut
etxe hortan funtzionario. (bis)

J.R.Elortza Behiekin jai dut, txekorrak berdin,
nago erabat etsita,
ta aldatzea komeni zaigu,
hala nago iritzita.
Nere baserri hori nahiz izan
bikaina eta polita,
Europan ezin gintezke sartu
iraganean bizita. (bis)

Arzallus Baina Europa ere guretzat
ez da inola mundua,
aztertu zazu zeure bidea
ta bizitzeko ordua;
lasai-lasai hor pasa dezazun
udara eta negua,
Guggenheim bezin beharrezko da

izanaren testigua. (bis)

J.R.Elortza: 18-19-17-16,5,17-18-19 =124,5

Arzallus: 18-20,5-19-19-18,5-19-19,5 = 133,5

Mendiluze - J.R.Elortza

GAIA: Zu, Aitor, apaiza zara eta zu, Jose Ramon, arotza. Elizan lapurretak izan zirela eta, zuk Aitor ateak tajuz ipintzeko agindu zenion Jose Ramon arotzari. Meza nagusiko ordua da eta atea ireki ezinik zabilzate biok.

Neurria: 8ko txikia (ofiziotan)

Doinua: Maritxu nora zoaz I

Mendiluze Elizatik gehiago
 gaur ez lapurtzeko,
 esan nizun atea
 ondo konpontzeko,
 baina ulertu zenidan
 aurrekoz atzeko;
 ixteko esan nizun,
 ez kondenatzeko.

J.R.Elortza Hara, nik bete nuen
 emandako hitza,
 eta ate horrekin
 hainbeste baldintza.
 Orain iriki ezinik
 zu nola zabilzate?
 Zerrojua jarri nuen,
 nun daukazu giltza?

Mendiluze Egia da atea
 dagola primeran,
 faktura haunditxo
 zekarren aukeran.
 Zerraila jarri dezu
 esandako eran,
 baina giltza oraindik
 ez didazu eman.

J.R.Elortza Arrazoi hori egin
 behar zait arraro,
 atearekin dezu
 hainbat erreparo.
 Giltza nun ote dagon
 harritura nago,
 hantxe utzi zenun ta

sakristian dago.

Mendiluze Giltzak egin behar dira
bi ez bada hiru,
bestela sarri askotan
galtzen baitzaizkigu.
Giltza han utzi zendun,
hortan naiz testigu,
ta orduan atea
zeinek itxi digu?

J.R.Elortza Dena konpondu liteke
aizazu, sosegu,
berdin ibiltzen zera
udara ta negu.
Giltza hori dela-ta
hainbeste ernegu!
Llaveroren bat zuri
oparituko degu.

Mendiluze Beti ibili behar
apaiza arraro,
herritarren fedea
hainbestez akabo!
Lehen gutxi sartzen ziran,
orain gutxiago
ta okerrena dena
arrazoia dago.

J.R.Elortza Hara, gai hau ez dakit
hemen nola eten,
bainan hasi behar naiz
egia esaten:
zertan ari zera zu
tabarra ematen?
Herria ez dalako
eleiza juaten.

Mendiluze: 26-24-25,5-29-29,5-31-28,5 = 193,5

J.R.Elortza: 22-22,5-20,5-26-23,5-24,5-24,5 = 163,5

Mendiluze

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Mandaluniz Nola pasa daiteke
gerratik pakera?

Mendiluze Horretarako bide
motzik ba ote da?
Luzetik izango da
gaur degun aukera,
baldin bagoaz behintzat
guziok batera.

$6,5-7-7,5-6,5-7-7-7 = 48,5$

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Bihotz gureko Tolosa zarra

Gorrotoa da gure herria
menperatu duen gaitza;
batzuek ezetz diote baina
izan leike sendakaitza,
eta nahiz beti lasaitasuna
omen den horren emaitza,
bildur naiz hauxe izango ote den
bukatzen ez den *ekaitza*.

$6,5-6-6-7-6,5-8-8 = 48$

Ibarra

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza I

Bertsotan sarri sortu ohi dugu
guk begiz sua ta kea,
eta lagunek ondolik ostu
komentarioz bakea.
Hor ikusten da nola banatu
daitekeen gaur gizartea:
guretzat jolas hutsa da baina
askorentzako *artea*. (bis)

$6,5-6,5-6-6-6-6-6,5 = 43,5$

Mañukorta

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Kontzientzia izaten degu

Arrantzaleak gure Ondarrun
irtena eta sartua,
bizitzarako hainbeste arrain
itsaso horretan hartua;
beste batzuek bizia galdu,
negar malkoak lortua.
Alaia eta negargarria
Ondarruako *portua*.

$7-7,5-6-6-6-7,5-6,5 = 46,5$

Arzallus

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak

Gizonentzako eginak daude
lur, itsaso eta lainua;
itsas gaineko arazo latz bat
aipatu asmoz banua:
arrairik eza izan ez dedin
denbora joanda damua,
pelajikoak baztertu eta
landu dezagun *amua*.

$7-6,5-6-6,5-7-6,5-6,5 = 46$

Artza - Ibarra

GAIA: Negu beltzaren bihotzean zer janik ez duzuen bi otso zarete. Iratxek arkume bat hil du; zu, Joseba, hurbildu zatzaizkio baina, Iratxek ez du zurekin banatzeko asmorik.

Neurria: 10eko txikia (ofiziotan)

Doinua: Espainian behera

Artza Negu oso gogorra
izan dugu aurten;

zerbait ehizatu duzu
halakoren baten!
Ez zenuke hasi nahi
zati bat ematen,
baina beti ere ez da
egia izaten,
otsoak ez duela
otsokirik jaten. (bis)

Ibarra Baina ez nago hobe
janari gabea,
ta neuk harrapatu dut
gaurkoan ordea.
Ez duzu probatuko
nire arkumea,
neure ehiza da hau ta
bakarrik neurea,
bakoitzari berea
Jaunaren legea! (bis)

Artza Oso gustora zaude
dantzatzuz atzea,
zurea bai unea,
nirea trantzea.
Otsoen legea da
jana banatzea,
Jauna alde batera
hobe lagatzea...
Hobe dira bi argal
ta ez bat hiltzea. (bis)

Ibarra Lepoan ez dut hartu
gura horren zama,
neuk izan dut bakarrik
afaltzeko afana.
Ez duzu jango orain
nik eindako dana,
nahiz ez duzun probauko
mami honen xarma,
lasai, emango dizut
sobratzen zaidana. (bis)

Artza Aspaldiko urteetan
honelako hotzik!
Aspaldiko urteetan
honako goserik!
Ez didazu eman nahi
zeuk lortutakotik,

ez dut eskeintza asko,
onar zazu hortik,
buztanaren partea
emanda ni pozik. (bis)

Ibarra Zuk ez dezazun pasa
holako trantzea,
tori buztana ta ahaztu
zuk malaletxea,
azkenean biona
baitugu etxea;
batak gura ezkerro
ondo bizitzea,
besteai tokau behar
txarto pasatzea. (bis)

Artza: 18,5-16-15,5-17,5-19-19,5-19,5 = 125,5

Ibarra: 18-18,5-17,5-17-18-19,5-19 = 127,5

Arzallus - Mendiluze

GAIA: Zuek aita semeak zarete, zu, Jexux, aita eta Aitor semea. Goizaldea da eta zu, Aitor, ohean lo seko zaudela, etxean sartu ezinda ate joka dabilen Jexux aitak esnatu zaitu.

Neurria: 10eko txikia (ofiziotan)

Doinua: Antton eta Maria

Mendiluze Ohean nengoen ni
goizean patxadan
eta ate soinua
hor nun entzuten dan!
Iriki det ta aita
bistan dagon eran:
ene aita maitea,
badezu nahiko lan!
Zer ez den egin behar
ikasi dezadan! (bis)

Arzallus Nere etxe ondoan
bada nahiko traba,
lehendabizi jo diot
ateko aldaba;
semea lotan zegon
ohean etzanda,
gazteak maiz egiten
baitute parranda,
aitak ere gaur behar

zuen bere txanda. (bis)

Mendiluze Aita hola ikusi
eta hau trantzea!
Tristea da atea
neuk irekitzea;
semea joaten dala
zuk erantzutea.
Aita ez zen komeni
behin ateratzea
ta galdutako denak
rekuperatzea. (bis)

Arzallus Semea harriturik
daukat gaur zeharo,
nik parranda egitea
al da hain arraro?
Gaztetan ez nun egin
zuk bezain oparo,
beti bizi izan naiz
lanaren esklabo.
Berandu nator baina
oso sano nago (bis)

Mendiluze “Edanarekin sano
eta indarrean”,
ez du berdin esango
amaren aurrean.
Etxera zatoz aita
itxura txarrean,
sartzen utziko dizut
nik derrigorrean,
baina gogoan hartu
neu natorrenean. (bis)

Arzallus Etxeko sarrerarik
ez dizut nik uka,
etxeko aterpea
neri esker dauka.
Modu txarrean ez zuk
orain egin zaunka,
ez nator mozkorra ta
ez jar harrituta;
edana gauz ona da
neurria hartuta. (bis)

Arzallus: 20-18-19,5-19,5-18,5-18,5-19 = 133

Mendiluze: 19-19-17-18,5-19-19,5-19,5 = 131,5

Mendiluze

GARTZELAKO GAIA: Hainbat jira-bira eman zenuten elkarrekin, beti itsasoa tarteko.
Orain dela gutxi, itsasoak berak eraman dizu zure lagunik onena.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Gogoan daukat ez dula aspaldi

Hainbat urtetan ibili ginen
zu eta biok batean,
honen usterik ezin eduki
txaluparekin joatean,
baina olatu txar bat etorri
eta zuretzat kaltean;
eraman zaitu eta nahiz orain
zauden oso apartean,
zertarako det negarra hemen
malko itsaso batean? (bis)

Lehenengo aldiz atera ginen
ginelarik bi mutiko,
urteak pasa ta gogoari
guk eutsi genion tinko.
“Itsaso honen bildurrik gabe”
pentsatuaz gurekiko,
ta orain nola bota errua
galdu bazaitut betiko?
Olatu batek eraman zaitu
baina amets batek ito. (bis)

Hitzak alferrik izaten dira
halako bat gertatzean,
sentimentuak korapilatzen
baitzaizkigu bihotzean.
Asko da ia, gehiegi ere
utzi dezuna atzean!
Agur batekin agurtzen zaitut
ta hemen nago etxean,
zure irri bat somatu nahian
ni olatu bakoitzean. (bis)

18,5-16,5-17-18,5-18-18,5-19,5 = 126,5

J.R.Elortza

GARTZELAKO GAIA: Hainbat jira-bira eman zenuten elkarrekin, beti itsasoa tarteko.

Orain dela gutxi, itsasoak berak eraman dizu zure lagunik onena.

Neurria: 10eko nag.

Doîua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Zeinen tristeak diran oraingo
nere mezuaren hitzak!
Hamaika aldiz esan genuen
“gu arriskuan gabiltzak!”;
oso gutxitan barkatzen digu
gure itsaso bortitzak.
Zer egingo da, gizonarentzat
dauzkagu halako gaitzak!
bizitza hontan destinoren bat
nola daukagun bakoitzak. (bis)

Guk itsasoko lanbide hori
urte askotan nagusi,
eta gaingitu izan ditugu
ez dakit zenbat erauntsi!
Zeinen polita bere kolore
berde, urdin eta guzi!
Bainan gaurkoan ezin dezaket
nik begi onez ikusi;
horren polita izanik nola
portatu da hain itsusi? (bis)

Itsaso hortan pasa ditugu
majina bat abentura,
baina esaerak dion bezela
“gerritikan behera ura”.
Ez zenduen zuk hala uste ta
heriotza hor eskura,
baina itsaso hori gorrotoz
ez det hartzen, ez apura;
nola gorrota ote dezaket
zuk maite zenduen hura? (bis)

19,5-23-19,5-19-20-22,5-21 =144,5

Mañukorta

GARTZELAKO GAIA: Aspaldian ez zenuen arreta handirik jarri ispiluauren aurrean. Gaur, ordea, adi-adi egon zara denbora luzez.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mundu honetan holako gauzak

Mundu honeri eman beharra
degu bakoitzak beria,
ume denboran dana polita
hura-hura adoria!
Gorputza ere lirain-liraina,
eguzkian koloria,
txiste ta bertso, herri ta auzo,
danerako umoria,
hogei urtekin gazte polit bat
izaten da dotoria.

Aitona zanak ongi esaten
eiten zidan ahalegina,
ni ere lehenau polita nintzen,
oso jatorra ta fina;
urterik urte zahartzen ai gera,
hori da gauza jakina,
nahiz ta zahartzeak ematen digun
bihotzan erdian mina,
gazte denbora mundu honetan
ez da betiko egina.

Ai, Mañukortak garai batean
bazuen bere grazia!
Gantzontzilorik gabe gorputza
ispilutik ikusia;
halabeharrez urte batzutan
ni egon naiz berezia,
igarri gabe iritsia zait
betirako desgrazia,
horri begira egon naiz eta
hau da gorputz itsusia!

20,5-19-20,5-16,5-16-17,5-17 = 127

Mendiluze

Neurria: 10eko txikia
Doinua: Agur sagar beltzaran

Amaierako agurra Agurretan guztiok
 badakigu jada,
 hitz politek egiten
 digutela traba.

Beraz agur bat denoi
zer izango da, ba?
Jada berreskuratu
baitegu patxada;
lehen ezetz nion baina
ekaitza pasa da.

AZKEN-LAURDENAK

Iruña

1997-X-26

Aurkezlea: Mikel Taberna

Murua

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Hasierako agurra Arratsaldeon, ongi etorri:

 hau da areto bikaina,
 hementxe egin beharko degu
 gure lehen ahalegina.
 Lau erle mando etorri gera
 ta beste bi erregina;
 bata Estitxu, bestea Estitxu,
 zelako biko apaina!
 Ea gaurkoan egiten degun
 ezti ona eta fina. (bis)

Fernandez

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Herri txikien negu gordina

Hasierako agurra Goizez urduri nengoelako

 bakarrik ezin moldatu,
 ama izan dut aurrean eta
 laguntzaile bilakatu;
 lasaitasuna aholkatu dit
 ta ze arropa paratu,
 ze pena orain ezin duela
 nere tokian kantatu! (bis)

A.Lopategi - Murua

GAIA: Haritz laurogei urteko aitona zara eta Iñaki zure biloba da. Zuk, aitona, uste duzu eguraldi kontuan oso iaioa zarela. Biloba aurten lizentziatu berria da Meteorologian. Ez zarete bata bestearen teoriekin fidatzen.

Neurria: 8ko nag. (ofiziotan)

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

A.Lopategi Zerbait direla pentsatuz dabiltz
 hamaika gazte halako!
 Nire biloba trakets honi ere
 zerbait azaldu beharko:
 meteorologo ikasi arren
 zuk estudiante lez, bapo,

- bihar euria egin behar du
aitonak esan dulako. (bis)
- Murua Zeure ustetan zerorri zera
kontu horietan maisu;
ni lizentziatu izanagatik
ezjakin eta mukizu.
Biharko berri ta etzikoa
dionun gisan dakizu,
eta urtero zuri belarrak
euriak bustitze'izkizu. (bis)
- A.Lopategi Hainbeste urte bizitza hontan
nik pasatzearen truke,
eguraldiaz guztia dakit
ta jakin behar zenuke:
nahiz lizentziatu kategorian
euki hamaika birtute,
telebistako jakintsu denek
ere huts egiten dute. (bis)
- Murua “Jakintsu usteko” esango dezu
“ez dira tipo ederrak”,
egite'ituzte kamara aurrean
berebiziko okerrak;
nik miatze'itut gau eta egun
ingurugiro bazterrak,
eguraldia iragartzen dut
Meteosati eskerrak. (bis)
- A.Lopategi Meteosat ta holako hitzak
nik ez ditut atseginak,
sasi jakintsu guzti hauexek
den-denak dira berdinak.
Bihar ona egin behar duela,
hortan zure ahaleginak,
baina holakorik ez du esaten
nire bizkarreko minak. (bis)
- Murua Aspalditikan teknologiak
aurrerapena munduan,
eta nik horiek gaur darabilzkit
eskura eta onduan.
Asmatu ez dezun aldiero zu
jo bazintuzte buruan,
bizkarren dezun min hori ere
doble izango zenduan. (bis)

A.Lopategi: 19,5-18,5-19-18,5-19-19-18,5 = 132

Murua: 19,5-20-20-19,5-20-18,5-19,5 = 137

Gaztelurrutia - Fernandez

GAIA: Beñat, kalean barna zoazela, urez beteriko globo bat bota dizute. Gora begiratu eta bi ume ikusi dituzu hirugarren solairuko leihoan. Hitz egitera igo eta atea jo duzunean, Estitxu gurasoa irten zaizu.

Neurria: 8ko nag. (ofiziotan)

Doinua: Santa Barbara zure bizitza II

Gaztelurrutia Kalean zehar abiatuta
globo haundi bat ahora;
begiratu ta ume txiki bi,
hori ez dugu ganora!
Tinbrea jo ta egin nahi nuen
ahal baldin bazen aproba.
Norbaitek zerbait bota dit eta
ez zinen zeu izango, ba? (bis)

Fernandez Ni ez naiz izan globoen hori,
haurren itxura ez dut nik;
kontu horietan ez naiz ibiltzen
balkoi aldean jadanik.
Seme-alabak hor ari ziren
globoekin aspalditik,
kulpa zuk duzu une horretan
behetik pasatzeagatik. (bis)

Gaztelurrutia Galdera egiten etorri naiz ta
laster baten honek heldu;
guraso batek izan behar du
umeentzako eredu.
Itxura danez zure umeak
balkoitik ezinez kendu,
katearekin lotu itzazu,
batzutan funtzionatzen du. (bis)

Fernandez Erraten duzu seme-alabek
gaurkoz daukatela kulpa;
nere ustetan zerorri zara
pertsona nahiko ilupa.
Hortxe zebilen pasiatutzen
orduantxe ernatuta;
mesede ederra egin dizute
aurpegia garbituta. (bis)

Gaztelurrutia Kulpa nerea izan omen da,
hori da gero nahastea!
Lotsabakoa izan daiteke
gauza horiek esatea.
Mesederako izan omen da
aurpegia garbitzea...
Neuk ere laster garbituko dut
bat eta gero bestea. (bis)

Fernandez Gure laguna une batean
jarri da hagitz erreta,
ez dut errea gainditzen orain
jarri didan azterketa;
bere haserre musaje horri
jarri behar diot arreta:
ez hola jarri zu ere noizbait
ume izan zinen eta. (bis)

Gaztelurrutia: $18-19-19-19-18,5-18,5-18,5 = 130,5$

Fernandez: $18-21-20-20-19,5-19,5-19 = 137$

H.Lopategi

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Taberna Minetan okerrena
bihotzeko mina;

H.Lopategi egia da bai hori
ez da atsegina.
Berak itzali ohi du
barreneko grina,
ta sarri gertatzen da
sendatu ezina.

$6,5-7-7,5-7,5-7,5-9-7,5 = 52,5$

Murua

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Xarmangarria zera I

Taberna Eguna pasa duzu
 zerura begira;

Murua hainbat uso zebilen
 buelta eta jira,
 ehiztaria bortitz
 tira eta tira,
 baina nere parean
 denak pasa dira.

6,5-6,5-7,5-7,5-7-7-7 = 49

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag
Doinua: Hautxo txikia negarrez dago I

Denok dakigu hainbeste jende
herritik urrun dagola.
Preso daudenen egoerarik
ez al zaizue ajola?
Hainbat euskaldun bere etxean
malko gazi dariola,
ama hor dabil ireki ezinik
seme-alaben *kaiola*.

7-7,5-7-6,5-7-7-7 = 49

Gaztelurrutia

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Arratsaldeon lehendabizitik

Lehen bertsoan pozik irten naiz
mikrofonora kantura;
lehorte batek bisita egin dit
nere aho ingurura.
Atzo gauean halako formal
ez nintzen jardun itxura;
urrea baino preziatuago
bihurtu daiteke *ura*. (bis)

5-6-6-5-6,5-6,5-6 = 40

Larrañaga

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Beste bateko inularretan

Kanpora nahian gabiltza beti
gure barreneko harra,
kezka bat daukat nere barruan
haundia eta bakarra:
gure herrian orain guztiok
egin dezagun indarra,
egun batean batu ditzagun
hegoa eta *iparra*. (bis)

7-7-6,5-5,5-5-7-7 = 45

E.Arozena

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Taberna Aspaldi hontan modan
 dago ile motza;

E.Arozena eta nik moda hori
 ez daukat arrotza,
 behin kendu nuelako
 luzean morrontza,
 ta hori egiteaz
 inoiz ez naiz lotsa.

7-6-7,5-6-7-7-6 = 45,5

Larrañaga

GARTZELAKO GAIA: Armak egiteko lantegi batean lan egin duzu gaur arte. Gaur, lantegia behin betiko itxi dute eta langabezian gelditu zara.

Neurria: Sei puntukoa

Doinua: Ligoiz bizitza ez da izaten

Goizetan ez dut orain entzuten
lehengo sirenaren hotsa;
etxean geldi egon beharrak
ematen dit nahiko lotsa.
Egia esan lantegi hori
ez zen oso aproposa,
bizitza behar nun osa. (bis)
Une hauetan gauza batetaz
nik sufritu eta goza:
langabezian pena dadukat
eta pakearen poza. (bis)

Egun batean hartu genuen
despedidaren gutuna;
egia esan hori ez degu
inoiz abisu kuttuna,
baina bertsotan eman beharko
gertatuan erantzuna.
Ni hemen nago zer suma; (bis).
nahiz urrutira ailegatzan dan
langabea oihartzuna,
nere bizitza arriskuan dut
eta lehen beste batzuna. (bis)

Orain artean beti lan ta lan,
ez det hartu atsedunik,
deskantsatzeko unea ere
ailegatu zait azkenik.
Lanpostu baten bila oraintxe
ondo saiatu behar nik,
nahiz ez dagon gauza onik. (bis)
Poz pixka bat'e euki nezake
armetatik alde eginik;
lanposturen bat bilatzen badut
nik ez dut izango penik. (bis)

20,5-19-20,5-16,5-16-17,5-17 = 127

E.Arozena

GARTZELAKO GAIA: Armak egiteko lantegi batean lan egin duzu gaur arte. Gaur, lantegia behin betiko itxi dute eta langabezian gelditu zara.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Bukatu dira nere diruak
ta itxaropen guztiak;
bukatu dira visa txartelak
ta holako eguzkiak.
Hala ta guztiz zerbait botako
digu orain aitzakiak.
Gauza bakarra erakutsi dit
lan honen esperientziak:
balore denak gainditzen ditu
diruaren garrantziak. (bis)

Haseran nahiko lan izan nuen
lan hortarako ausartzen;
dakizuenez gizaki oro
denetara zaigu ohitzen.
Langabezian gelditu naiz ta
orain hasi naiz pentsatzen,
armak ta gerrak, fusila, guda,
dena bazterrera uzten;
gauza bakarra gogoratzen dut:
soldata nolakoa zen. (bis)

Lan harek pena eman zidanik
ez duzue bada usteko,
baina bakeak neri sortzen dit
behar aina errespeto.
Hala ta guztiz ni garaiz nago
oraindikan aldatzeko;
gauza bakar bat egin behar dut
kontzientzia lasaitzeko:
bakezaleen taldean sartu
lehengoa konpentsatzeko. (bis)

18-18-18-19-19-19-19 = 130

E.Arozena

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Saltarina da txepetxa eta

Amaierako agurra Nere barnean referentziak
sailkatzen hasi beharko,
txapelketa honek lasaitasuna
irentsi egin didalako.
Final erdian parte hartzea
faltan ez nuke botako,

lasaitasuna lortu ezker
bertze lau urtetarako. (bis)

AZKEN-LAURDENAK

Getxo 97-XI-01

Aurkezlea: Bernardo Mandaluniz

O.Enbeita

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Esperantzarik gabeko zeòbait

Hasierako agurra Galtzeko ezer ez daukat eta
ikasteko horrenbeste;
hauekin saio astun bat irten
daitekeenik ez dut uste.
Eserlekuak okupatuta
emozioaren eske,
azken aurreko kapituloa
grabatzeko hartu gaituzte;
eserlekuak okupatuta
emozioaren eske,
pelikula hau hastera doa,
komodo jarri zaitezte.

Olaso

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mundu honetan holako gauzak

Hasierako agurra Barkatu agurra ahaztu egin zait
nahiz etxean izan sorta;
gainontzekoak onak badira
hori ez zaio inporta.
Zazpirehun puntuz omen daukagu
goian dadukagun kota;
hogei gehiago ateratakon
arren, hemendikan bota,
alferrikako lanak egiten
nazkaturikan nago-ta.

Iturriaga - O.Enbeita

GAIA: Oporrak datoz eta zuek biok diruz urri zabilzate. Zuk, Unai, kreditua eskatu eta oporretara joatea erabaki duzu; Oihane, aurtengoz, ez da inora joango.

Neurria: 8ko nag. (ofiziotan)

Doinua: Balentin Berriotxoarena

Iturriaga Oporretara joan nahi eta
hori zan nere desira;
kartila hutsik, ez dio ajola,

konponduko gara, tira!
Ez naiz egongo kredituaren
ordainketari begira;
lau egun dira bizitzan eta
aprobetxatu behar dira. (bis)

O.Enbeita Kredituekin ez dut beteko
nik behintzat neure karpeta,
nahiz oporretan juateko nengon
ilusioaz beteta.
Ahorratzea erabaki dut
nahiz ta ibili erreta,
lau egun baino askoz gehiago
bizi nahiko nuke eta. (bis)

Iturriaga Lau egunetan banatzen da hemen
jango dutenen pastela,
ta horregatik aukeratu dut
Karibe aldeko epela.
Joan da gehiago etortz'ez banaiz
pentsatu dudan bezela,
esan zaiezu bankukoeri
Curroekin nagoela. (bis)

O.Enbeita Karibe aldean ikusi nahi du
handik dabilen dizdira;
hala ta guztiz nik neuk lanean
eman behar hainbat bira.
“Esan zaiezu”, esan didazu
ta nago zuri begira:
hemen kurratzen bate ez dakiten
Curro asko bizi dira. (bis)

Iturriaga Alde egingo dut hondartzetara,
aldegingo dut lehenbailehen;
neri berdin zait bankua eta
kreditua non dagoen.
Zu gera zaite zure Gernikan,
zuk nahi baduzu bederen,
haritz zaharrari begira ia
pixkat kontsolatzen zaren. (bis)

O.Enbeita Ni haritzakin kontsolatzera,
zuk Karibe aldean jai;
ni marroiekin goraino eta
zu hondartza batean blai.
Neure bizitza neurea da-ta
nik zure planik ez det nahi,

abenturarik ez dut izango
baina ziurtasuna bai. (bis)

Enbeita: 20-19,5-20,5-20-20-21-20,5=141,5

Iturriaga: 19,5-19-20-21-20-20,5-20=140

Narbaiza - Iturriaga

GAIA: Zuk, Juan Mari nagusiak, etxegintzarako egurrak ekarri zenituen atzo. Unai langilea, gaur goizean hotz handia zela-eta, egundoko sua eginda haren ondoan aurkitu duzu.

Neurria: 8ko txikia (ofiziotan)

Doinua: Kantatzera nijoa

Narbaiza Hemen daukat faktura,
 hemen daukat nota,
 diru asko gastatu nun,
 hori det gorrota;
 teilatuko egurrak
 zuk sutara bota,
 neuk berotuko zaitut
 bizkarrean jota! (bis)

Iturriaga Hotz galanta genduen,
 hiru zeropeko;
 zu zeu ere ez zabiltz
 moderno antzeko,
 egurra ez da ona
 etxeak eiteko,
 hormigoia izan balitz
 ez nukeen erreko! (bis)

Narbaiza Baserrian hormigoi
 guk ez degu jartzen,
 hargatik saiatu naiz
 haritzak ekartzen;
 moteil, errez zendukan
 gorputza berotzen:
 aizkora hartu eta
 enbor horiek lantzen. (bis)

Iturriaga Kontratista mafioso,
 bere hortan dirau,
 ta azkenerako ni neu
 haserre jarri nau,

atzeratuko dala
bi hile edo lau,
beste fraude bat baino
ez da izango hau! (bis)

Narbaiza Andaluz itxurakin
tipo txarra dauka,
bizi guztian dabil
nagusian aurka.
Orain fraude kontuan
nahi dezu burruka?
Zeuk sutan erre eta
neretzako kulpa. (bis)

Iturriaga Berandu eman didazu
nagusi abisu,
ez zaitez jarri orain
haserre ta izu;
tontoa ere ez naiz
zeuk be badakizu,
Expon irabaziak
margena uzten dizu. (bis)

Narbaiza Hitz potolo ugari
jakitun modura,
baina ez zait gustatzen
kinkien itxura;
ikuste al dezu goian
dagon poste hura?
Habe bat jarri nahi det,
zoaz teilatura. (bis)

Iturriaga Badakizue obra
zelan izaten dan:
goizeko hotzak jota
buruakin teman,
eskabadorai ere
gasoleoa edan,
sua piztea asko
kostatzen zitzaidan. (bis)

Narbaiza:24-25-24-24,5-24,5-23-23,5=168,5

Iturriaga:25,5-24,5-24,5-25-24-27-26,5=177

O.Enbeita

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Herri txikien negu gordina

Batzuentzako zigorra eta
besteentzako saria;
batzuk bizitza horren iluna,
besteek horren argia;
injustizien kontra borrokan
nahiz ta aritu gudaria,
egoismorik ez egotea
litzateke *miraria*.

6,5-7-6-6-6-7-6,5=45

Mendizabal

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Beste bateko inularretan

Bertsolariak jende aurrean
behar du izan adorea,
emozioa gertatu dadin
langintza hontan doblea.
Zuek eta guk badadukagu
konbinazio dotorea:
txalpelketa da gure arantza,
zuen txaloa lorea. (bis)

7-7-6,5-7-7-6,5-7=48

Iturriaga - Munduate

GAIA: Herri txiki batean bizi zarete, ingurune zoragarrian. Joxek, paraje honetaz baliatuz turismoa erakarri nahi luke. Unaik, ordea, bere horretan mantendu nahi du..

Neurria: 10eko txikia (ofiziotan)

Doinua: Antton eta Maria

Iturriaga Leku hau danik esan
ezin nik inori.
Håmen natura dago

- bizi eta jori;
udazkenean lurra
dugu gori-gori.
Turismo kontu hortan
ez zaite erori,
gehiegi ikusten duzu
Benta Berri hori. (bis)
- Munduate Mendi eta itsaso
berekin du dena;
Euskal Herriak duen
herri ederrena.
Aldatzea ez al da
izango zuzena?
Idea bat badaukat:
turismoarena;
bere hortan hiltzen da
aldatzen ez dena. (bis)
- Iturriaga Pagadi ederra ta
mendirako beta,
ur gardenez datorren
ederren erreka;
zoriontsu naizela
uste dut tarteka.
Zuk kanpotarrak hona
ekarri nahi eta,
laster da bilbotarrez
goraino beteta. (bis)
- Munduate Bilbotarrak badatoz
etor daitezela!
Denak hartuko dira
anaiak bezela.
Baserri ta marinel,
aukera itzela,
produktoak saltzeko
egokia dela;
geuk aterako dugu
hemengo labela. (bis)
- Iturriaga Zuk Rosa Diezekin
nahi zenduke bizi.
Hala bada joan zaitez
hemendik igesi.
Sekula ez naiz hola
haserratzen hasi.
Euzkia irteten ta

sartzean ikusi,
apreziatzen ez dunak
ez du hori merezi. (bis)

Munduate Aldatzean hor dago
 bizi-arrazoia;
 alferrik da oraingoz
 zerorren sermoia.
 Herri honetan igo
 behar da listoia,
 ta oraindik urruti
 jarri behar da goia.
 Zuk itxura bakarrik
 duzu aurrerakoia. (bis)

Iturriaga:20-19,5-20,5-20-20-20,5-20,5=141
Munduate:19,5-20-20,5-18,5-19-20,5-20,5=138,5

O.Enbeita

Neurria: 10eko nag.
Doinua: Esperantzarik gabeko zerbait

Amaierako agurra Gauza bat behintzat ondo dakigu:
 hasi ezkerro bukatzen,
 posible bada luzitzen eta
 behar denean sufritzen.
 Gure bertsoak entzule gabe
 airean baitira galtzen,
 ez dakizue animo denak
 zenbat ditudan eskertzen;
 posible bada luzitzen eta
 behar denean sufritzen,
 nire saio hau bukatu nahi dut
 zuen txaloak txalotzen.

Mendizabal

Neurria: Neurri txikia
Doinua: Itziarren semea

Amaierako agurra Getxon pasa ondoren
 kantari arratsa,
 adio esan gabe

ezin egin martxa.
Orain dator guretzat
momentu zehatza,
egina egina dago
ta izan konfidantza;
sailkapenen dantza,
prest daukagu, antza;
ikusiko da zer den
lorea edo arantza.

AZKEN-LAURDENAK

Zarautz 97-XI-02

Aurkezlea: Laxaro Azkune

Urdangarin

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Herri txikien negu gordina

Hasierako agurra Askok gaurkoan erabat jokoz
kanpo nagola uste dute,
baina hauetako edonor banintz
kontu haundia izango nuke.
Nahiz horren merke lor daitekeenik
inolaz ez dedan uste,
infanta ere saltzeko gai naiz
sailkapen on baten truke.

Sorozabal

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Esnesaltzailearena

Hasierako agurra Kantuz hasi baino lehen
erantzuna txaloz; (bis)
frontoia bete zaigu
hintxadaz ta morboz.
Zazpirehun puntuetan
listoia apropos,
gure intentzioa
hobea da askoz:
iristera ez baina
egitera gatoz. (bis)

Irazu

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Saltarina da txepetxa eta

Hasierako agurra Bertsota ezin etorri leike
urduritasunak jua;
patxara berriz izan liteke
komeni ez dan lujua.
Beti bezela gaur'e tenplian
egon liteke gakua,
bertsolaritzan bi aurpegiren
islada baita gaurkua:
jolasa eta jokua.

Elizagoien - Maia

GAIA: Zu, Bittor, txakur emea zaitugu. Alta zauden bakoitzean, zure nagusiak, Jonek, etxetik irteten ere ez dizu uzten, gela itxi batean sartzen zaitu egunetarako.

Neurria: 8ko txikia (ofiziotan)

Doinua: Kantatzera nijoa

Elizagoien Etxe barruan nago
 zaunka ta garrasi,
 ez dakit zertaz nauen
 horrela berexi;
 kontzientzi izpirikan
 ez al dezu nausi?
 Edo goxamenikan
 ez al dut merezi? (bis)

Maia Aspaldi erosi det
 bi metroko soka
 ta lotuta jartzen det
 paretaren kontra,
 baina irtenda ere
 ez zaio inporta,
 itsusi honi inor
 ez zaio joango-ta. (bis)

Elizagoien Horra nundik heldu den
 nagusi sorgina!
 Eta sentitzen dut nik
 ar on baten grina;
 oso itsusia naiz,
 ez naiz horren fina,
 baina zu bezelaxen
 haragiz egina. (bis)

Maia Txarra pasatuko du
 txakurrak tragoa,
 hainbeste hilabete
 bertan igaroa.
 Zu lotuta egotea
 ez da arraroa,
 zerbaitengatik naiz ni
 razionalagoa. (bis)

Elizagoien Bere burua altxa
 lehenengo hitzetik,

kontzientzirik gabeak
guzien gainerik;
txakur gaixoa lotu
egin du katetik
ta bera ibiltzen da
neskatxen atzetik. (bis)

Maia Horretarako badet
 abilidatea,
 baina zuretzat ez da
 hori mesedea;
 ulertu behar dezu
 nola den legea
 zu zerala nirea
 ta ez ni zurea. (bis)

Elizagoien Berea omen naiz ni,
 hori da txarrena,
 nere egoera honek
 ematen dit pena;
 nahiz ta neri hor jarri
 txakurren izena,
 bi hankakoa dugu
 txakur haundiena. (bis)

Maia Zerbait esango dizut,
 kontuak aparte,
 erakutsi didazu
 nahiko borondate;
 orain kalera noa,
 agur, gero arte!
 Ondo zaindu etxea
 ni heldu bitarte! (bis)

Elizagoien:25,5-24,5-25-28-27,5-27,5-27=185
Maia:23,5-25,5-24,5-24,5-26,5-25,5-25,5=175,5

Irazu - Sorozabal

GAIA: Herriko jai alternatiboak antolatzeke zuk, Irazu, asanblada bat antolatu duzu eta gazte guztiei egin diezu dei. Urtez ondo kargatutako Jokin ere asanbladara etorri da.

Neurria: 8ko txikia (ofiziotan)

Doinua: Haizeak bidali du

Irazu Festak hobeak dira

geuk antolatuta,
bai baitakigu zein den
udalan konduta.
Agurea hor dator
urtez kargatuta,
zertan etorri zera
semia ahaztuta?

Sorozabal Semiak egingo du
 nik esandakoa.
 Jaiak izan behar du
 denen gustokoa;
 kontutan har zazu guk
 eskatutakoa:
 kalejira ondoren
 hamaiketakoa.

Irazu Guk zure eskaera
 hartu behar aintzat,
 baldin horrelakuak
 badituzu behintzat;
 pentsatua geneukan,
 hala iruditzen zat,
 baina debalde soilik
 jubilatuentzat.

Sorozabal Beraz gustatu zaizu
 gure festa mota,
 gaztea izan arren
 hori ez gorrota;
 hamaiketako ondoren
 etxafuegoak bota,
 mezik ez det eskatzen
 ez naiz juango-ta.

Irazu Mezeta ez joatea
 guztientzat hobe;
 horrek guretzat ez du
 hainbeste balore.
 Aizkolariek ere
 egongo'ira trebe
 eta bertso saioa
 mikrofonoik gabe. *

(colocar a pie de página)

* Kantatzen ari zirela mikrofonoak huts egin zuen. Entzuleek luze txalotu zuten bertso hau.

Sorozabal Nik ere ontzat hartzen det
zuk esandakua,
gauza ederra baita
asmatutakua:
mikrofonorik gabe
bertsoen kantua,
baina txalo zaparra
kronometratua.

Irazu Ondo iruditu zaizkit
zure iritziak,
eta kontutan hartu
nahi ditut guziak.
Ondo piztuko ditu
festen irrintziak,
gure beroak eta
zure esperientziak.

Sorozabal Beraz gurekin salda
hartuko dezute;
gero zaharrek zuekin
joan beharko dute.
Ezer ez dago beti
lege zaharren truke,
guk ere zuen martxa
hartu nahi genduke.

Irazu:24,5-28-26,5-29,5-31-28,5-28,5=196,5

Sorozabal:25-26,5-27-29-28-26-27=188,5

Urdangarin

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia.

Doinua: Xarmangarria zera I

Azkune Zeinen gozoa dugun
amaren magala!

Urdangarin Onartu beharra det
hori hala dala.
Nahiz ama onarena
egin beti gala,

noizpait utzi behar da
etxeko itzala.

5,5-6-6-6-6,5-6-6,5=42,5

Elizagoien

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Hitz hau neretzat oso zaharra da,
ez da oraingo berria;
orain lau urte hitz berbera zun
neri Orion jarria.
Aizu Laxaro ez zaitetz izan
zu horren aspergarria,
ta hiru aldiz behintzat ez jarri
mesedez neri *txerria*. (bis)

6,5-6,5-6-6,5-6-6-6=43,5

Sorozabal

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Bihotz gureko Tolosa zaharra

Gure Esperantza Agirrek badu
filosofoaren planta;
gure arbasoen historiari
matrailekoa galanta.
Barkatu baina iruditzen zait
zaudela neurritz pasata,
kontuz ibili, oraindik ere
gerrian degu *ezpata*.

5-6,5-6-6,5-7-7-7=45

Sarriegi

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia.

Doinua: Xarmangarria zera I

Azkune Txapelketa osoan
saio bat bakarra;

Sarriegi: nerea ez ote da
nahiko zoritxarra?
Baina hasi baino lehen
ez egin negarra;
gutxienez daukagu
saiatu beharra.

6-7-6,5-7-7-7-7=47,5

Azkune Oriotik Castrora
joan zaigu Korta;

Sarriegi egia esateko
neri ez dit inporta.
Nere ustez Oriotik
hori dute bota,
azken aldi honetan
jasangaitz dago-ta.

7-7-7-7-7-7,5-7,5=50

Sarriegi

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Beste bateko inularretan

Hitzak hartuta beraien bueltan
egin nahian zenbait dantza,
bertsolariok ez al daukagu
sarri dantzarien antza?
Hau bukatzean neri berdin zait
nora joaten dan balantza;
atseden ala parranda egin,
hori da nere *zalantza*.

7-7-6,5-6-6-6-6=44,5

Maia

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Ez nau izutzen negu hurbilak III

Kuban argiro ikus liteke
iraultzak duen indarra;
bada gizon bat bihotz zabala,
borrokarako azkarra.
Che Gevararen eredia dut
hemen aipatu beharra,
munduko izar haundina baita
bost puntatako *izarra*.

7-7-7-7-7,5-7-7=49,5

Irazu

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia.

Doinua: Xarmangarria zera I

Azkune Irabazi ta galdu
 ez baita berdina,

Irazu oso diferentea,
 da gauza jakina;
 batek pena dakar ta
 harek atsegina.
 Nik irabaztean alde
 gaurko ahalegina.

6-6,5-6-6,5-7-6,5-6,5=45

Azken oina emanda

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Herri txikien negu gordina

Urte askotako gure borroka
ez zan gertatuko hutsa,
bainan oraindik beharko du hark
zerbait gehioren laguntza.
Seguru nago, iritsiko da
gure egizko iraultza,
bakar batean biltzen denean
euskaldungoan *gorputza*.

6-6,5-6-6-6-6-6,5=43

Urdangarin - Sorozabal

GAIA: Zu, Jose Luis, berrogei urteko gizasemea zara. Orain dela hamar urte basektomia egin zenuen Jokin medikuarekin; gaur mediku berarengana etorri zara konpontzeko eskatzera.

Neurria: 10eko txikia (ofiziotan)

Doinua: Antton eta Maria

- | | |
|------------|---|
| Urdangarin | Lehen eginagatik
parranda ta festa,
aspaldi nahi hodia
jarririk trabeska.
Orain zugana nator,
ez hasi parrezka;
buruan badet orain
berriz ere kezka
gaur ezagutu baitet
bihotzeko neska. (bis) |
| Sorozabal | Lehengo gaia bezela
gazterik ezkondu,
eta zeure bizitza
nahi zenuen landu.
Egoera berriak
orain zuregandu,
nahiz lehengo aberia
txukuntzen lagundu,
hamar urte zahartzea
ezin da konpondu. (bis) |
| Urdangarin | Medikuak gauza onik
ezin erakutsi,
baina nik nereari
behar diot eutsi;
familia izateko
ez det-eta etsi,
barrabilak ireki
eta gero itxi
ta hortik aurrerakoa
nere kontu utzi. (bis) |
| Sorozabal | Gauzak adierazteko
bai era xarmanta!
Filosofia dezu
eder ta galanta.
Saiatzeko asmotan |

hau da zure planta,
ez dedila izan ez
saiatuan falta,
saiatze hortan ere
disfrutatzen da-ta. (bis)

Urdangarin Ez alferrik dantzatu
mesedez mingaina.
Zerbait egingo al dezu
neretzako aina?
Kezkatuta dabilkit
orain burugaina,
eta sortu nahi nuke
famili apaina;
heldua sentitzen naiz
berandutxo baina. (bis)

Sorozabal Noizbait heldu zera ba
ta horri eskerrik,
gaur lortu zenezake
famili ederrik.
Baina ahalegina suerta
liteke alferrik;
gu laguntzeko gaude,
ez da esan beharrik,
medikua naiz baina
ez hori bakarrik. (bis)

Urdangarin:18-20,5-18-18,5-19,5-19,5-19,5=133,5
Sorozabal.18,5-19-18-20-20,5-19,5-20,5=136

Maia - Sarriegi

GAIA: Zuri, Jon, hogeit hamar urte bete berriak dituen Aitor zure semeak ezkontzeko asmoa azaldu dizu. Zeu ere adin horretan ezkondu zinenez, zerbait esan nahi diozu.

Neurria: 10eko txikia (ofiziotan)
Doinua:Espainian behera

Maia Kotseju bat nahi dizut
semea bialdu,
zure inuzentzia
ez baitez galdu;
oraindik hainbat gauza
behar dezu landu,
eta garbi diotsut:
ez zaitez ezkondu!
Aguroegi baino

hobe da berandu. (bis)

Sarriegi Azaldu dedanean
nik nere asmoa,
gustatu ez zaizula
baneukan susmoa;
aita, hau ez da nahia,
hau ez da gogoa,
maitasuna da aita,
entzun arranoa!
Asko maite det eta
ezkontzera noa. (bis)

Maia Ezkontzeko badezu
nahikoa umore,
nahiko konbentzimentu
ta nahiko balore!
Eta maitasuna da
pertsonek ondu;
bera maite badezu,
dudarikan gabe
berdin maiteko dezu
geroago ere. (bis)

Sarriegi Maitasuna ez denez
horren hitz hutsala,
asko maite det, aita,
ez al da normala?
Jakirik zu lehenago
berdin zenbiltzala,
ezezkoan hor zaude
hola eta hala,
ez dezu ba esango
damutu zerala? (bis)

Maia Damutu naizenikan
ez zazula uste,
amarekin pasa det
makina bat urte!
Ta oraindik hor nabil
maitasunan eske,
hala ere hor kontuz
ibili zaitetzte!
Orain ez uste arren
damutu zaitetzke. (bis)

Sarriegi Nere ustez egin det
aukera onena,

hortarako bildurik
behar dan kemena;
eman nahi nuke nere
pauso haundiena,
baina ez noa pozik,
esan nahi det dena,
onespena nahi baitet
eta ez baimena. (bis)

Maia:19,5-20,5-18,5-19-20-19,5-20=137
Sarriegi:20-20,5-19,5-20-20,5-19,5-20,5=140,5

Urdangarin

GARTZELAKO GAIA: Orain dela gutxi jakin zenuen HIESa duzula eta zure lagunmin bati kontatu zenion; harrezkero, ordea, ohartu zara ez dizula lehen bezala begiratzen.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Gogoan daukat ez dula aspaldi

Dirudienez azken aldian
badaukat birus bilduma.
Senda nahiean hasi naiz baina
alferrikako jarduna;
nere bizitza azkenetan da,
horra gauza ezaguna,
ta zuk ordea jartzen didazu
horren kopeta iluna;
halakoetan ikus daiteke
nolakoa dan laguna. (bis)

Txikitatikan nere ustez behintzat
nere laguna zera zu;
gure herrian topatu degu
HIESaren hainbat kasu.
Zuk nahi badezu aurrerantzean
ospa egin dezakezu;
ez dakit nolaz egin dizudan
horrenbeste enbarazu,
zure beharra gehien nuela
bizkarra eman didazu. (bis)

Dirudienez nere ondoan
ez zabiltz guztiz ondradu.
Adio lagun ta betirako
ondo agurtuak gera gu;

kontuan hartu zure laguna
dezula erabat saldu.
Ene laguna zure lotsarik
ez badezu guztiz galdu,
nere aldeko hiletatara
ez zaitez arren azaldu. (bis)

18-20-17,5-19-21,5-21-21=138

Sorozabal

GARTZELAKO GAIA: Zarauzko hondartzako garbitzailea zaitugu. Egunsentian lanean hasi eta estreinako bainuzaleak etortzen hasi direnean, zure lanak bukatu eta bazoaz. Zer darabilkizu buruan?

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koxkor bat itsuarreko

Hiru-lau ordu behar izan ditut
hondartza hau garbitzeko;
adorea're behar du batek
lan honetan aritzeko.
Badatoz orain bainuzaleak
haurtxo txikien antzeko;
gizarte hontako legea da hau
gauzak garbi azaltzeko:
batzuek lana egin beharra
besteak dibertitzeko. (bis)

Goizeko bostak jo ordurako
zalea naiz hona heltzen;
hor aritzen naiz hondarra bildu
eta zakarrak aldentzen;
aritu ohi naiz zarpa zikinak
inguruetatik kentzen.
Hainbeste zabor ikusi eta
pena batez naiz geratzen:
txanponik eta karterarikan
inork ez duela galtzen. (bis)

Eguraldia ez dugu beti
beroa ta oskarbia;
jendea ez da berdín etortzen,
hori da gauza garbia.
Tamalez atzo ibiliko zen
marea bajuegia;
ia lehenbailehen igotzen zaigun,
hori da nere egia,

bañistek berdin gozatu eta
neretzako lan erdia. (bis)

17,5-22-21-21,5-21-21-22=146

Maia

GARTZELAKO GAIA: Orain dela gutxi jakin zenuen HIESa duzula eta zure lagunmin bati kontatu zenion; harrezkero, ordea, ohartu zara ez dizula lehen bezala begiratzen.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Pertsonak beti pairatu ohi du
bizi beldurren morrontza;
aldi batzutan harrotu eta
aldi batzuetan lotsa.
Badakit ondo kontu honekin
zein dan gizarteko hotsa;
barruan mina sentitu arren
egin behar det aitortza:
pozoindurikan dituzu biak,
begirada ta bihotza. (bis)

Mespretxugarri al da ba jaunak
pertonaren desgrazia?
Nere bizitza hala izan da
ta hau al det merezia?
Ez nuen lehendik begirada hau
horren triste ikusia;
besteen gaitza ta desgrazia
daude ezin irentsia.
Mundu honetan gaitzik haundina
ez al da hipokresia? (bis)

Hor zaude lagun begi zorrotzez
niri begira jarduna;
zure jarrerak ez dit sortuko
nere barrenean trauma.
Izkutukorik ez daukat ezer,
denentzat da ezaguna;
zu zerala-ta ez naiz jarriko
hemen kopeta iluna;
nik berdin-berdin jarraituko det
zuk galdu duzu laguna. (bis)

20,5-20,5-21-21,5-21,5-21-21=147

Sorozabal

Neurria: Berezia

Doinua: Uso xuria errazu I

Amaierako agurra Nahiz lanari gogor ekin
ta zuek laguntzen jakin,
arazoak mikroekin
edo argi-indarrarekin.
Esango zuten “ elektrizista
ez al da ba gure Jokin?”
Barkatu baina bi lan batera
nik ezin nituen egin. (bis)

FINALAURREAK

Bera **97-XI-16**

Aurkezlea: Mikel Taberna

Zelaia

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan

Hasierako agurra Gidoiak dio “bostetan hasi”,
beraz has gaitezen bizkor.
Gu sei aktore eta Taberna
direktorea dago hor;
kamarak ere dozena erdi,
ez da libratuko inor,
bakoitzak bere artista maila
eman beharko du derrigor,
ni naiz bigarren mailako aktore
baina Oskarran bila nator. (bis)

Iturriaga

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Habanera

Hasierako agurra Ostiralez ilargi zahar,
igandez beheruntza doa.
Mugazainen amesgaitza
gaueko haize hegoa;
baso zilarreztuetan
haize hegoak naroa.
Legasse zaharrak alferrik
ez zun zabaltzen ahoa;
gaur pozik egon liteke
Ziburuko pikaroa,
kontraseñatzat daukagu
gure mintzarira arraroa;
doinu, errima, polboraz
zamatatu dugu mandoa,
has dadila ideien da
bertsoen kontrabandoa!

Maia

Neurria: Berezia

Doinua: Iparragirre abila dela

Hasierako agurra Udazkeneko tonu goxoak
duen kolore gordina,
nola liteke infernuraino

horren bide atsegina?
Ohorezko borroka,
hau da gure erronka,
ia nor den izokina,
Bidasoatik Urumeara
salto egiten dakina. (bis)

Zelaia - Iturriaga

GAIA: Inaki, semea izan duzulako, aurrezki kutxak libreta ireki dizu semearen izenean bi mila pezetarekin baina, zuri ez dizu grazia handirik egin. Unai, aurrezki kutxako zuzendaria da.

Neurria: 8ko nag. (ofiziotan)

Doinua: Haize hegoak hurbiltzen ditu

Zelaia Berak libreta ireki eta
 hementxe nator galdezka,
 zein helburukin egin ote dun,
 horra nik daukaten kezka;
 berak bidea zabaldu nahi du,
 negoziante txarra ez da,
 lehen pañalak eros ditzadan
 badauzkat bi mila pezta. (bis)

Iturriaga Bi mila pezta ez dira asko,
 zeozer badira, tira!
 Nahi ez baduzu aurrezki kutxak
 gaur ditzaëe erretira,
 baina ez zaite haserre jarri
 begi horiekin begira;
 lau mila pezta izango ziren
 bikiak izan balira. (bis)

Zelaia Nahiz ta jaiotza guztiok pozik
 dugun etxean ospatu,
 bankariaren lana nik ez det
 oso egoki juzgatu.
 Bi mila gutxi dira ta gero
 bikiak dizkit eskatu;
 badaezpada ez dit berakin dedan
 prestamorian barkatu! (bis)

Iturriaga Mundu honetan badabil solte
 gaur hoinbeste majadero!
 Nik prestamoa barkatzeik behintzat
 zuk ezin zendun espero;

sartu'izkiozu beste horrenbeste
astero edo hileru,
ta milioiduna duzu semea
hirurehun urte ta gero. (bis)

Zelaia Ez dakit broman esan ote dun
edo jo nahi dun adarra;
berak uste du dirua lortzen
dedala nik barra-barra,
eta beretzat ez dit ez eman
honek hain ideia txarra.
Hemen zu zera milioiak sobran
dauzkan pertsona bakarra. (bis)

Iturriaga Milioiak sobra ez dauzkat baina
nago ederki jarria:
kotxe ederra, traje polita,
txalet ikaragarria.
Guk ez dugu inoiz ezer ematen,
hori ez da gauza barria,
nola uste zendun loditzen dala
libretoieko txarria? (bis)

Zelaia: $19-17-18-18,5-18,5-18-18,5=128,5$

Iturriaga: $21,5-19,5-20,5-20,5-21,5-20=143,5$

Egaña - Loidisaletxe II

GAIA: Zu, Andoni, irakaslea zara. Ikastetxeko komunean zigarro bat-edo erretzen harrapatu duzu Loidisaletxe II, zure ikaslerik txintxoena.

Nuerria: 8ko nag. (ofiziotan)

Doinua: Balentin Berriotxoarena

Egaña Disemuloan hor irten zera
gaurkoan klase ostera,
ta komunean topatu zaitut
alde batetik bestera;
bota ezazu zigarrilloa
horko lababu ertzera,
hori ahotan daukazulako
haundiagoa ez zera. (bis)

Loidisaletxe II Irakaslea gaur errietan
hemen zait neri hasia,

uste ez zuen gauza da nunbait
komun honetan pasia;
sartu da eta hor ikusi du
komuna keaz josia,
matematikak bezela hau're
dizut zuri ikasia. (bis)

Egaña Ni soldadutzan zigarrillo bat
erreaz hasi aurrena,
ta lanpostuan pakete erdi bat
erretzen nuen hurrena;
gaur lau pakete xahutzen ditut
egun batean barrena.
Horixe dezu ikas litekeen
biderketarik txarrena. (bis)

Loidisaletxe II Bide txarrean sartu ote naiz
nahiz izan mutil formala?
Alde batetik kezkarri da,
beste batetik normala.
Gogoratzen naiz ilustre batek
honela esan zuala:
gauza txar dana ahal baldin bada
erre egin behar dala. (bis)

Egaña Neuk esan nuen esaldi hori,
neurea da gogoeta;
ikasle honek azkarra da-ta
buruan zeukan gordeta.
Hain gaztetatik sartzen badezu
ke beltz hori biriketa,
gutxi barrura iritsiko da
zure autobirrinketa. (bis)

Loidisaletxe II Honek zioen kontseju hori
egitazkoa ote da?
Bere aldetik noa ni ere
orain hauxe esatera:
ta aizu maixu, Ducados bana
gu biontzako atera,
horiek erreta gero klasera
joango gera batera. (bis)

Egaña:20-20,5-20-20,5-21-21-21,5=144,5

Loidisaletxe II:21,5-19,5-19-18,5-18,5-18,5-19,5=135

Zelaia - Loidisaletxe II

GAIA: Zu, Loidisaletxe, hil eta gero zerura joan zarenean, orain dela urte batzuk kalean diru guztia kendu zizun Iñaki Zelaia lapurrarekin aurkitu zara.

Neurria: 8ko txikia (ofiziotan)

Doinua: Kantatzera nijoia

Loidisaletxe II Ondo bizitzen neri
zidan galerazi;
gertatzen da hainbeste
ekintza berezi,
eta bat nahi nuke nik
gaur adierazi:
ona izaterikan
bate ez du merezi. (bis)

Zelaia Hona etorri nintzan
lehengo hilabetean,
ta honekin topo egin
zeruko atean.
Diru guztiak ostu
nitun bat-batean,
baina gero banatu
pobreen artean. (bis)

Loidisaletxe II Nahiz gauz polita esan
bere azken puntuan,
honek esandakorik
ez hartu kontuan.
Hemen ibili da hau
danakin tratuan,
nere diruz San Pedro
erosiko zuan. (bis)

Zelaia Lehen bazun ta oraindik
badauka kasketa,
ni ikusita kolpetik
belztu du kopeta.
Ez det San Pedro erosi,
utzi berriketa,
lehendik Jangoikoaren
lagunmin naiz eta. (bis)

Loidisaletxe II Lapurra ta eskasa
izan zan munduan,
hemen'e ibiliko da
lurreko moduan;
hau ez edukitzeko
luzaro onduan,

askozaz nahiago nun
infernura juan. (bis)

Zelaia Hori nahio bazendun
zuretzat kaltea,
hautsi nahiko zenduke
egin dan katea;
ta gustoko badezu
beherantza joatea,
oraindikan zabalik
daukazu atea. (bis)

Loidisaletxe II: 21,5-19,5-19-18,5-18,5-18,5-19,5=135

Zelaia: 19-17-18-18,5-18,5-18-18,5=127,5

Iturriaga - Lujanbio

GAIA: Zu, Unai, elbarri baten hanka sanao zara eta Maialen hanka postizoa. Ohatzera joateko tenorea da eta Unai ohatze epelerat sartzera zoaz; Maialen ohatze ondoan utzi dute.

Neurria: 8ko txikia (ofiziotan)

Doinua: Kantatzera nijoa

Iturriaga Goxo-goxo sartzen naiz
ni jabearekin,
zu hor bazter utzita
triste eta erkin;
ohepean zaudela
nik badakit jakin,
kontuz ibili zaite
orinalarekin. (bis)

Lujanbi Gainera adar joka
ondoko laguna;
aspaldi banekien
ez naula kuttuna,
baina gure jabea
da oso txukuna,
bera izango da kontuz
ibili behar duna. (bis)

Iturriaga Parka orinalarekin
berriz jarraitzea,
baina imajinatzen dut
zuk duzun trantzea;
orinala da txiza

dagoen eltzea,
barrura sartu ezkerro
ze hankasartzea! (bis)

Lujanbio Nagusian adina
areagotua;
hanka sanoa dauka
erdi tontotua.
Gau osoan zaude zu
hotzez akatua,
nik gutxinez badaukat
nola berotua. (bis)

Iturriaga Parkatu hanka faltsu,
ez zara enteratzen,
ohe barruan ez da
bate hotzik pasatzen;
ni beti nago gradu
berdinak mantentzen,
hanka laburra daukat
izterra berotzen. (bis)

Lujanbio Ondo moldatzen zera
zu ohearekin,
lanik egin behar ez
eta berdin-berdin,
baina jekitzerako
garaiean ezin;
bihar goizean ezetz
hainbeste par egin! (bis)

Lujanbio:19,5-18,5-20-18-18-19-18=131
Iturriaga:20-19,5-21,5-21-21,5-22-21=146,5

Egaña - Maia

GAIA: Zuk, Jon, telefono movila, hau da portablea, erabiltzen duzu lanerako. Astelehen goizean telefono mugikor horren bila zabiltzala, Andoni zure amonak bere gelan duela ohartu zara.

Neurria: 8ko txikia (ofiziotan)
Doinua: Dama gazte xarmant bat

Maia Adelantutan dago
gure zoriona,

baina zaharrek dute
arazo sakona.
Zenbat alditan esan
behar dut hor dagona
telebistan mandoa
ez dela amona. (bis)

Egaña Zazpitan neukanez
meza dotorea,
bostetan esnatzea
neretzat hobea;
honek ez du uxatu
nere logurea,
ez dabil ondo zure
despertadorea. (bis)

Maia Amona egina zait
neure gauzen jabe,
gainera jokutzen du
izenaren pare;
batera ta bestera
hor dabil herabe,
hitz egin dezakezu
zeu mugitu gabe. (bis)

Egaña Zure trepeta honek
bazuen bai sona,
baina eroturikan
dabilki amona;
zure traste hau ez da
bate traste ona,
kirkil bat ematen du
gaixorik dagona. (bis)

Maia Nere amona dago
jada nahiko mehar;
galduta ibiltzen da
pasilotan zehar;
telefonoak “ring, ring”
eta berak dar-dar,
hortik hitz egiteko
ez da orraztu behar. (bis)

Egaña Beraz, dexentea da
trepetan konduta,
beste aldekorikan
ezin aditu-ta,
hementxe ari nintzen

indarrak ahituta,
orain segi behar det
ruloak kenduta. (bis)

Maia:20,5-19-20-20-21,5-20,5-21=142,5
Egaña:22-20,5-22,5-21-21-19,5-20,5=147

Zelaia

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia
Doinua. Xarmangarria zera I

Taberna Barazkia ugari
okelatik gutxi,

Zelaia horrelakorik neri
ezin erakutsi;
afari onak badu
hamaika garrantzi!
Nik txuleta jateai
nahi nioke eutsi.

6,5-6,5-5,5-5,5-6,5-6,5-6,5=43,5

Taberna Setienen mintzoak
sortu du marmarra,

Zelaia elkarrizketarena
ez da kontu txarra;
elizak ere badu
guregan indarra,
ta herri honek dauka
zerbaiten beharra.

7-7-6,5-6-7-7-7=47,5

Zelaia

Azken aurreko puntua emanda

Neurria: 10eko nag.
Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan

Setien jaunak hitz egin eta
bada hainbat tira-bira;

berak esan du “ denan gainetik
mintzatzea komeni da”.
Ta ustez etsai ditugun batzuk
erdi ados jarri dira;
*esandakoen erdiak behintzat
egiazkoak balira,*
egun batean bakea heldu
daiteke Euskal Herrira. (bis)

7-8-7-7-6,5-7-7,5=50

Iturriaga

Azken aurreko puntua emanda

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Herri honetan izan ditugu
makinatxo bat aukera;
lehenago Iñakik esan dun gisan
heldu gintezke bakera,
baina sarritan traidore asko
elkartzen dira batera;
*hitz ematea ta betetzea
ez direnez gauza bera,*
euskal presoak oraindik ere
ez dira etorri etxera. (bis)

7,5-7-7,5-8,5-9-7,5-7,5=54,5

Egaña

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua. Xarmangarria zera I

Taberna Zure buruarekin
 bakean al zaude?

Egaña Batzutan uzkur nabil,
 hurrena herabe;
 sarritan ez naiz neure
 buruaren jabe
 ta ez dut atsedetik
 bakerikan gabe.

6,5-6-6-6,5-6,5-6,5-7=45

Taberna Hondamenak zigortu
 du Extremadura,

Egaña denboraleak bertan
 bota du aingura;
 batzuen pena eta
 besteen arrenkura,
 lagundu dezaiegun
 ahal degun modura!

6-7-6-6,5-7,5-6,5-7-6,5=47

Azken aurreko puntua emanda

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan

Setiengatik espainiarrak
sekulakoak esanez;
preso kontuak ere sortu du
ez dakit zenbat esames!
Etsipenari kabi egiten
geneukake oso errez,
baina aurrera begiratzea
komenigarria denez,
segi dezagun esperantzaren
iturritikan edanez. (bis)

7,5-9-9-9-9-8-8=59,5

Lujanbio

Azken aurreko puntua emanda

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan

Txikitatikan ekinagatik
bertsoaren abentura,
ondo egiten ari al naizen
izaten det mila duda:
zein dedan nere bidea eta
zein dedan nere helmuga;
aspaldikoa izanagatik

gure arteko lotura,
abizenean soilik da berdin
lehengo Txirrita zahar hura. (bis)

7-7-7-6,5-7,5-6,5-8=49,5

Maia

Azken aurreko puntua emanda

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke

Euskal Herriko histori hontan
bada nahiko karanbola,
adar makurrez begira dago
Gernikan dagon arbola;
lagunek eta anai-arrebek
isuri dute odola.
Zenbait unetan pentsatu arren
dena galduta dagola,
libre izateko esperantzari
ez diot uzten inola. (bis)

7,5-8-8-7-8-8,5-7,5=54,5

Zelaia - Lujanbio

GAIA: Iñaki ikastetxeko zuzendaria eta Maialen irakasle gaztea zarete. Maialen institutura irakasle sartu zenetik, mutil guztiak txoraturik eta aztoraturik dabilta.

Neurria: 10eko txikia (ofiziotan)

Doinua: Espainian behera

Zelaia Eskolan bagenduan
 hobetzeko planik,
 irakasle berri bat
 heldu da jadanik;
 badauka lan-gogorik,
 badauka afanik,
 baina txoramena hain
 haundia izanik,
 zer erakusten dezun
 jakin nahi nuke nik. (bis)

- Lujanbio Denetik erakusten
nahi nuke saiatu,
pedagogiaz eta
didaktikaz sartu;
nik hitz ågin dezaket
baju edo altu,
txintxo portatu edo
jenioa batu,
baina atraktibo hau
ezin det aldatu. (bis)
- Zelaia Gauzak hoberantza jo
behar zuten noizpaiten!
Erakusten du honek
irakurri-idazten,
eta atraktiboai
segi luze eusten;
bazabiltza denetik
bertan erakusten,
nik ere hasi behar det
berriro ikasten. (bis)
- Lujanbio Zuk dadukazuna da
aurpegi galanta!
Ikasten hasi nahi du
ta hau da hau marka!
Nik onartuko zaitut
klasean presaka,
abisatuko dizut,
ez zan besteik falta!
Oraindik praktikara
ez gera pasa-ta. (bis)
- Zelaia Irakasle gaztea
guztiok tentatzen,
taktika ona dala
ez degu ukatzen.
Lehen ni aritzen nintzan
klaseak banatzen,
ikasleengan guzti hau
onerako izan zen,
latigoa ez zitzaien
gehiegi gustatzen. (bis)
- Lujanbio Ni klaseetan ez naiz
pasatu hainbeste,
nahiz ikasleak jardun
gehiagoren eske,

nik ez nien egin nahi
janzte ta biluzte;
kimika ikasterik
ez det asko uste,
baina gorputz atalak
ikasi dituzte. (bis)

Zelaia:18-20-20-17-17,5-19-20,5=132

Lujanbio:18,5-20-20-19-18,5-19,5-19,5=135

Egaña - Iturriaga

GAIA: Zu, Andoni, ogibidez ipuin kontalaria zara. Eguna lanean pasa eta neka-neka egina etxera sartu orduko, Unai, zure seme txikia, hurbildu zaizu ipuina kontatzeko eskatuz.

Neurria: 10eko txikia (ofiziotan)

Doinua: Espainian behera

Egaña Ipuinek badute
berezko txinparta,
bat leun-leuna da
bestea enbata.
Egun osoa pasa
det nik zirti-zarta!
Ipuinen kontu hau
ipuina da-ta,
bestentzat soberan dut
ta zuretzat falta. (bis)

Iturriaga Etxetik joaten zara
goizean goiz laster;
kanpoan badaukazu
ohore ta esker.
Lanean jardunean
horrenbeste bazter!
Etxera heldu eta
zerbait dabil oker;
maite zaituztenentzat
ez al duzu ezer? (bis)

Egaña Nere seme txikiak
nolako eztena!
Maitatzen dut oholtza
ta maite eszena,
baina pisutsua da
egunan azkena.

Seme, uler ezazu
jota nagoena,
zuretzat muxu bat da
ipuin onena. (bis)

Iturriaga Kanpoan duzu ospea
eta abentura;
kanpoan letra haundiz
daukazu kultura,
baina etxera heldu
eta momentura,
ipuin txiki bat baino
ez nun entzun gura;
kontaidazu nire aita
zineneko hura. (bis)

Egaña Semen mihi zorrotzak
kolpetikan danba!
Orain iritsiko da
erantzunan txanda,
bere grazia ezin
inola jasan-da;
aitan ipuinana
polita izan da,
grazi gehiago dauka
amatxok esanda. (bis)

Iturriaga Aita bat banuen nik
beste danen gisan,
orain duda bat daukat:
izan ala ez izan;
bere semea ere
ezin badu jasan,
nere ipuina hau zan
ta hala ez bazan
argitaratu bedi
ETBko plazan! (bis)

Egaña:21-21-20,5-21-21-20,5-21,5=146,5

Iturriaga:21,5-21-20-21,5-22-21,5-21,5=149

Lujanbio - Egaña

GAIA: Etxe oneko bi anai-arreba zarete. Zuk, Maialen, bizitza guzia zeure aitaren ondoan eraman duzu. Orain, aitaren heriotza dela eta, gazterik munduz mundu joan zen Andoni

zure anaia etorri da ezustean.

Neurria: Sei puntukoa (ofiziotan)

Doinua: Aizak hi mutil mainontzi (behartua)

Lujanbio Anai maitea barkatu,
ez dut hitz egin nahi altu;
nik ez zintudan espero eta
ein naiz ikaratu.
Gure destinu ta patu,
ustekabeen elkartu,
heriotzak batzuk urruntzen ditu
ta besteak batu. (bis)

Egaña Munduko bidezidorra
ez izan arren idorra,
ez dut gogoan gure aita zenak
leukakeen altxorra.
Sentimentuak bai sobra,
etorri egin naiz, horra!
aitarekiko nola banuen
hainbesteko zorra. (bis)

Lujanbio Orain zor zahar bati kasu
egin nahiean jo ta su!
Bien bitarte munduan zehar
beti bezelatsu.
Baina Andoni aizazu,
betiko min bat daukazu:
gutxien behar zaituenean
azaldu zera zu. (bis)

Egaña Lehenago heldu ezina
asuna edo osina;
aitarekiko beti izan det
amodio grina.
Egina dut ahalegina,
horra egia gordina!
Beretzat bada aski ukendu
nere oroimina. (bis)

Lujanbio Elkarrengandik aparte,
itsaso haundi bat bitarte
egondu gera ta gaur aitzakiz
zatozkit jo ta ke!
Adio, Andoni maite,
ez dizut barkatzen bate,
ta ondo bizi, hurrengo hileta

elizkizun arte!

Egaña Arreba dut parez pare,
ez da mintzatu xuabe,
hementxe nator burumakurka
ta hitzetan bare;
egin nahi nuke halare,
dote erdiaren jabe,
ibili bainaiz aita batere
molestatu gabe. (bis)

Lujanbio:21,5-21-21,5-20,5-23-21,5-22=151

Egaña:22-21-22-21-20,5-20,5-22=149

Egaña

GARTZELAKO GAIA: Goi-goian dabilen eliteko kirolaria zara. Nahiz eta egunen batean harrapa zaitzaketela jakin, hala ere dopatu egiten zara.

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Itsaso hori dago zatarra

Zenbaitek dio “ze disparate!”,
urrun daudenek hori diote.
Nere burua ez dut ikusten
elitetikan aparte; (bis)
gaztetandikan gaur arte
gorputza pastilaz bete,
izan mesede nahiz kalte,
nere neurrian dagonarentzat
normala da baldinbaite!
Maila pitin bat jetsi ezker
jendeak ez bainau maite. (bis)

Kirolariek hainbeste treta
geure barruan degu gordeta,
sarritan izan naiz ni lehiatzen
gorputza ajez beteta. (bis)
Egina dut gogoeta
edo barne-azterketa:
bizitza den lasterketa,
neri berdin zait urte gutxitan
bukatu guztiz erreta,
neure bide hau hobetsiko dut
neuk aukeratu dut eta. (bis)

Gaur kirolean ze martingala!
Dena gora nahi, nola edo hala,
erdipurdiko kirolaria
oso da gauza hutsala. (bis)
Nahiz neretzat den zitala
arriskuaren itzala,
hil ninteke berehala.
Nere errua aitortu dut nik
legezkoa den bezala,
baina jendeak aitortu beza
berea ere badala. (bis)

23,5-21,5-24-23-23-22,5-23,5=161

Maia

GARTZELAKO GAIA: Atzerritik ekarritako hartza zaitugu. Lepoan, zu kontrolatzeko, mikrotxipa jarri eta Pirinioetan utzi zaituzte.

Neurria: Zortzi puntukoa
Doinua: Habanera

Udazkena iritsi da
basoan bada orbela,
txoriak zeruan eta
erreka ondoan igela;
hor doa nere pausoa
astuna eta motela,
begira dut gizakia
zein basapizti ergela!
Kontrolatu nahi gaituzte
horrela eta honela,
nahiz eta mendia izan
haundia eta itzela,
gizonen jokabidea
zabarra eta ustela,
pentsatzen dute generala
beraiek diran bezela. (bis)

Piztia izatearren
jartzen digute isuna;
gure bizimodua da
iluna eta lizuna.
Baso-pagadi artean
sarri korrika jarduna;
aske pasatu dut beti

berdin gaba ta eguna,
baina orain jarri dute
barnean neurri astuna,
ta ez da bide zuzena
piztiok daramaguna.
Behingoz konturatu bedi
gure gizaki laguna:
txip txikitxo baten ez da
kabitzen askatasuna.

Jadanik sartuak gara
hoita batgarren mendean,
eta oraindik bizia
gizaki horien menpean.
Denok ulertu dezute
ondo nere esanean,
nola bizi nahi genduke
libre izateko planean.
Ta zer egin behar dut nik
hemendikan joatean?
Arnasa sakon hartuaz
nere ibilera askean,
agian bihar ta etzi
igoal datorren urtean,
ni libre sentituko naiz
hiltzen naizen egunean.

22-22-22-23-22-21-21=153

Iturriaga

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Haizea dator iparraldetik

Amaierkao agurra Igoal aurrera igoyal atzera
edo hartzak bezela lotan,
damurik ez dut etorri izanaz,
pozez diot nik berotan;
halako giro ederrik ez da
txapelketetan askotan;
gaur bezelako egunengatik
segi nahi nuke bertsotan.

Egaña

Neurria: Berezia

Doinua: Iparragirre abila dela

Amaierako agurra Bertsozaleak izango ahal zun
gozamendun ilun txinta!
Guk horrenbeste zor bageneukan
honuntzaino iritsita.
Naparren ezaugarri
bitxitasuna sarri,
gaur egin dute polita:
kultur etxean jarri kartzela
koartela bertan eukita. (bis)

Lujanbio

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Anderea gorarik

Azken agurra Bertsolai eta entzule
gaurkoz bat dia;
hainbeste txalo nola
liteke ordia?
Hola egin leike bertso
saioen bidia,
zuek erdia eta
guk beste erdia.

FINALAURREAK

Igorre
97-XI-23

Bernardo Mandaluniz

Murua

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Hasierako agurra Ongi etorri gazte sasoiko,
heldu eta agurea;
lasaitasunak alde egin digu,
aldendu da logurea.
Gu gera bertso errementari,
plaza degu ingudea;
geuk gozatu ta gozaraztea
da guk daukagun legea,
batera bete behar ditugu
zuen nahia ta gurea. (bis)

S.Lizaso

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Hasierako agurra Agur ta erdi entzulegoa,
arren egiguzu babes!
Behar gendukeen patxadarikan
ez dakarkigu tamalez.
Bainan hala ere beti aurrera
begiratu behar denez,
saio polit bat egin nahi dugu
geure uztatik emanetz,
zuen txaloak esango dute
asmatzen degun edo ez. (bis)

I.Elortza

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Habanera

Hasierako agurra Atzo Otxarkoagara
egin nuen bertso buelta,
etxera iristerako
hotzikadaren fereka;
termometroa hartuta:
“mekagoen la puñeta!
Hogeita hamazortzi gradu
eta bihar txapelketa!”.
Aspirinak, frenadolak,

ohea mantaz beteta,
baina oraindik pare bat
dezima ditut kolpeka;
arerioei eskatu
nahi nieke gogoeta;
ibili zaitezte kontuz
bero-bero nator eta.

Murua - S.Lizaso

GAIA: Zuk, Iñaki amak, zeure semeari kondoiak eman egiten dizkiozu beharrik badu erabiltzeko. Sebastian amarentzat hori gehiegizkoa da.

Neurria: 8ko nag. (ofiziotan)
Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Murua Realidadeai ama moduan
nik ezin eman atzerik,
ez nuke nahiko nik familian
ustegabeko trantzerik;
ez nuke nahiko gure etxean
zorigaiztoa sartzerik;
ez nuke nahiko maite dudana
SIDAz kutsauta hiltzerik. (bis)

S.Lizaso Semeari kondoiak emanaz
nolako ama ausarta!
Barkatu baina jokabidea
ez da neretzat aparta;
eskuan hartu mutil koxkorak,
makina bat zalaparta!
Laguna ere zeuk ematea
besterik ez dezu falta. (bis)

Murua Aizu laguna zu ere zera
zeure semearen ama.
Ahal banu behintzat laguna ere
baietz bildu beregana!
Aurreraoia izan nahi nuke,
hori da nere afana,
hark haseratik goza dezala
nik gozatu ez dudana. (bis)

S.Lizaso Aurreraegi joan nahi duna
atzerako ohi da sarri,
zure bizitzak semeakin
ez baitu hainbat lokarri.

Nahiz ta kondoiak izaten diran
segurtasunan oinarri,
aukerarikan ez duen arte
tentaziorik ez jarri. (bis)

Murua Nere semeak badu aukera
ta ez du sexurako izu,
bainan batetik gaixo txar batek
sortzen du hainbeste mezu!
Nere jokera gaizki hartuta
kritikan zorrotz zaude zu,
zure alaba haurdun uztean
berdin esango al dezu? (bis)

S.Lizaso Berriro diot horren presaka
ez zaitezela abitu.
Zuk semeari egindakoa
ez zat ongi iruditu;
hura ezin leike kondoiarekin
horren eroso aurkitu,
hamabi urte bakarrik dauzka
ta urez beteko ditu. (bis)

Murua: 20-19,5-19,5-19,5-19-18,5-18 = 134

S.Lizaso: 21-21,5-21,5-21-20,5-19,5-20 = 145

I.Elortza - Mendiluze

GAIA: Kotxeko irrati aparailu bana erosi duzue biok, konpakto eta guzti modelo berbera.
Zuk, Igor, ehun mila pezeta ordainduta denda ofizialean; Aitorrek, berriz, kale bazterrean
hamar mila pezetaren truke.

Neurria: 8ko nag. (ofiziotan)

Doinua: Santa Barbara zure bizitza I

I.Elortza Gu aparato berdinarekin
aurkitu gara honela;
nik gogoan dut ehun mila pezta
ordainduak nituela,
ta honek berriz eskuratu du
erregalu bat bezela,
gero amak dio lapurren lagun
izatea txarra dela! (bis)

Mendiluze Ez da izaten bizitzan ezer
ikasten ez den egunik,
ta negozio bat nola egin

gaurkoan ikasi dut nik.
Hala uste dezu baina nik ez det
lapur artean lagunik,
eta nork dio dendariak'e
lapurtu egin ez dunik? (bis)

I.Elortza Pixkat lasaitze aldera nahi dut
banku batean eseri.
Lapurren lagun ez omen dela,
badauka nahiko aurpegi.
Gutxienean esaten ditu
behintzat hiruzpalau egi;
dendariak ere lapurtu egin du
baina kasu hontan neri. (bis)

Mendiluze Beraz lapurtu egin dizute
eta ez zabilta lasai;
dendan erosi dezu zuk baina
gutxiago ordaindu nahi,
eta nik berriz tipo azkar bat
kantoi batean neukan zai;
nik negozio ona egin det,
saldu didanak ere bai. (bis)

I.Elortza Beraz guk lapur desberdinekin
hontan egin dugu paktu;
Aitor gogoan izan ezazu
egin duzula pekatu.
Honenbesteko diferentzirik
ezin nezake onartu!
Beste gauzarik ez dizut opa
ez dezala funtzionatu. (bis)

Mendiluze Ibili edo ez traste berbera
ekarri degu etxera,
baina ikusi det zu inbiritan
nola zatozen atzera.
Hala ta guztiz zabilta lasai
eta neronen antzera
berriz dendara joan baino lehen
rastrotik pasako zera. (bis)

I.Elortza: 18,5-19,5-19,5-19-19-19-19,5 = 133

Mendiluze: 19,5-19,5-20,5-19,5-19-19-19,5 = 136,5

Murua

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Mandaluniz Goseaz mintzo gara
janari artean,

Murua ia ulertu ezinik
ahoa betean;
tontotzen ari gera
gehiegi jatean,
eta goseak hiltzen
geure etxeko atean.

6-6-6-6,5-6-7 = 44

S.Lizaso

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Mandaluniz Hirugarren mundua
hain dago aparte,

S.Lizaso ta guk sentimenturik
ez daukagu bate;
gu gabe haien nahirik
ez liteke bete,
anai generala baina
ez ditugu maite.

7,5-7-7-7-6-6,5-7,5 = 48,5

S.Lizaso

Azken aurreko puntua emanda

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Ikusirikan azken boladan
borrokan nola gabiltzan,

beti ez dago zer egonikan
konpenezinan peskisan.
Egunen baten batu gaitezen
aberriaren kerizan,
ametsak amets izanik ere
beharrezkoak bizitzan,
etorkizunan aurrean nahi dut
beti amestia izan. (bis)

7-7,5-7,5-7-6-5,5-7 = 47,5

I.Elortza

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Mandaluniz Zabor artean ito
behar dugu laster,

I.Elortza kontsumismoa eta
anbizioei esker;
dena zakarrontzia
eskuin eta ezker!
Ezin gara ohartu
gabiltzala oker.

6,5-7-7,5-7-6,5-6-6,5 = 47

Mandaluniz Ni santua naiz eta
pekataria zu,

I.Elortza denok horrela gabiltz
arrazoi daukazu;
besteak salatzeko
denok gara maisu,
baina atzamar horiek
prakan sar itzazu.

7-5,5-6-6-7-6,5-6 = 44

I.Elortza

Azken aurreko puntua emanda

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Zuen gustoko izatea da
gure desio bakarra,
baina batzutan irteten zaigu
bastante saio kaxkarra.
Lehen puntua jarri dit honek,
hortik entzun dut marmarra;
*nahiz ta sarritan mingarria den
egia entzun beharra,*
neuk be badakit ta esan lasai
izan dela bertso txarra. (bis)

7,5-6,5-6,5-6-7-6,5-6,5 = 46,5

Mendiluze

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Mandaluniz: Joan bagoaz baina
al dakigu nora?

Mendiluze: Ezetz erantzutea
hobe izango da.
Bidea aukeratzen
hainbeste denbora!
Ta azkenean ez gera
helduko inora.

7,5-7-7,5-7-7,5-7-8 = 51,5

U.Agirre

Azken aurreko puntua emanda

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan

Bake bidea aipatua du
batek lehengo esanean;

jende ugari ari da gogor
era hortako lanean.
Hamaika zepo ta zakandilla
bada denbora joanean!
Harri koxkorak aurkitu arren
eguneroko bidean,
helmuga ere iritsi ohi da
gogo jartzen denean. (bis)

7-7-6-7-7,5-6-7 = 47,5

Mendiluze – Arzallus

GAIA: Zuek bi lagun zarete. Zuk, Aitor, kaleratzen diren aurrerapen guztiak erosten dituzu: telefono portatila, interneta eta abar; Jexux, berriz, modernitate hauek guztiak gorrotatzen hasi da.

Neurria: 10eko txikia (ofiziotan)
Doinua: Espainian behera

Mendiluze Mundua aldatu da
aurrekoz atzeko
eta jada ez dago
lehen zegon antzeko.
Zuk asmoa daukazu
hartan jarraitzeko,
ta nik modernidade
guztiak lortzeko,
bizi dudan garaia
aprobetxatzeko. (bis)

Arzallus Garaia izan leike
bastante laburra;
aurrerapena dugu
egungo ikurra.
Pantailan sarturikan
du beti muturra,
kontsumismo hutsa da
hain gauza makurra,
nik gehio maite ditut
sega ta atxurra. (bis)

Mendiluze Horregatik zera zu
horren aldrebesa,
hobetzeko daukazu
halako pereza!

Ta nik berriz dadukat
hortan interesa,
denbora izango baita
gu bion jueza,
eta alferrik dezu
aurrera nahi eza. (bis)

Arzallus Kontsumoak nunahitik
jotzen du bandoa,
eta haien atzetik
du honek gogoia;
pantaila horiengatik
hain buru eroa.
Urraska aurreratuz
nik badut mandoa;
hau aurreratu ustez
atzeraka doa. (bis)

Mendiluze Halere probatzeko
dut borondatea,
ezer ez jakitea
delako kaltea;
zuk bertan jarraitu nahi
patxadaz betea;
txarra izan liteke
atzerantz joatea,
baina ez al da okerrago
geldik egotea? (bis)

Arzallus Geldik egoteko ere
badaukat aukera,
bainan beti urraska
noa ni aurrera;
zu berriz sarri zabiltz
kangreju antzera:
aurrera joan nahi ta
nahi gabe atzera;
aurrerapenen mende
ehortziko zera. (bis)

Mendiluze: 19,5-20-19,5-20-19,5-18,5-19,5 = 136,5

Arzallus: 20,5-19-18-19-18-18,5-18,5 = 131,5

I.Elortza - S.Lizaso

GAIA: Zuk Igor, entrenatzaileak, partidu garrantzitsu baten aurrean zaudetela-eta,
Sebastian jokalaria harreman sexualak galerazi dizkiozu.

Neurria: 10eko txikia (ofiziotan)

Doinua: Antton eta Maria

I.Elortza Aspaldi ikusten zaitut
nahiko nekatuta;
asteburu honetan
badugu disputa,
eta mediku bati
ein diot kontsulta,
hobe zenuke utzi
sexuen burruka,
izan ere gehiegi
gustatzen zaizu-ta. (bis)

S.Lizaso Gure prestatzaileak
hainbat zeremoni!
Prestaketa txukuna
ez dit ez eskeini,
harreman sexualentzat
hesiak ipini.
Beti golak sartzeko
hain prestu nago ni!
Sartzen entrenatzea
ez al zait komeni? (bis)

I.Elortza Esaten hasi eta
honek ditu borlak!
Inoiz ez dira nahiko
ez nire kontrolak.
Ez zaizkio ajola
futbol ta futbolak,
gorde itzazu indarrak
ta gorde odolak;
futbol-zelaian sartu
behar dira golak! (bis)

S.Lizaso Zurekin alferrik da,
nago ni etsita!
Gaur ere andreakin
gauean dut zita;
zergatik galerazi
betiko bisita?
Hobe dezu praktikak
egiten utzita,
nik golak sartzen ditut
begiak itxita. (bis)

I.Elortza Itxita ere egiten
 omen du primeran,
 bere fantasietan
 beti dabil hegan.
 Kontseju bat eman nahi
 nizuke aukeran:
 ezker ta eskuin hanka
 jar itzazu eran
 eta erdikoari
 deskantsua eman. (bis)

S.Lizaso Ez gerade gu biok
 gaur ulertzeko gai,
 alferrik nago hemen
 zure baimenan zai.
 Neurria hartzen diot
 beti nere gauzai,
 ohiturak aldatzea
 gerta leike etsai;
 utzi taldetik kanpo,
 ez dut jokatu nahi. (bis)

I.Elortza: 18,5-19-21-19,5-19,5-19-19,5 = 136

S.Lizaso: 19,5-19,5-20,5-20,5-18,5-20-20,5 =139

S.Lizaso – Mendiluze

GAIA: Amona eta biloba, biok, ispilu aurrean kezkatu zaudete. Zu, Sebastian, amona, zimurrez beteta zaudelako; Aitor, biloba, granoz beteta dagoelako.

Neurria: Sei puntukoa (ofiziotan)

Doinua: Dozena bat bertso berri (behartua)

S.Lizaso Ispiluai begiratzen
 hasiak gaude kezkatzen;
 barka biloba, nik zure berdin
 gaur ez det pentsatzen.
 Ta nola zera kezkatzen?
 Nei hori ez zait gustatzen;
 pena bat daukat: neri granorik
 ez zait ateratzen. (bis)

Mendiluze Bat lehertu, bestea hautsi
 eta granoak nagusi;
 nahita're nere itxura onik

ezin erakutsi.
Zu zeure ximur ta guzi
ez zaude horren itsusi,
baina ni nerez naizena ezin
nezake ikusi. (bis)

S.Lizaso Iloba zaude negarrez
gaurkoan halabeharrez;
zuk grano batzuk, nik aurpegia
beteta zimurrez.
Entzun zaidazu mesedez,
esperientzia dedanez:
granoarena konpondu leike,
urteen karga ez. (bis)

Mendiluze Esaten dezun bezala
denbora aurrera doala,
ta horregatik zu ximurtzea
da gauza normala.
Norbaitek esan du hala:
ximurra ederra dala,
baina nola esan nere granoak
ederrak dirala? (bis)

S.Lizaso Zure granoak gaitzetsi
ta nik hainbat pazienti;
ximur ta guzi ez ote nago
betiko itsusi?
Zuk amonari sinetsi,
biloba ez zazu etsi!
Granoarena konponduko da
bihar edo etzi. (bis)

Mendiluze Jakintsu eta zuhurra
zure arrazoi ziurra,
baina nik orain pasa nahi nuke
daukadan adurra;
granoei egin agurra,
galdu horien iruzurra,
zu ikusteak poz ematen du
eta ni bildurra. (bis)

S.Lizaso: 21,5-21,5-20,5-20,5-20,5-20,5 = 145

Mendiluze: 19-19-20,5-19-19,5-19,5-19 = 135,5

Mendiluze

GARTZELAKO GAIA: Behe mailako futboleko arbitroa zaitugu. Jada ohiturik zeunden

igandero biraoak, mehatxuak eta irainak jasaten; gaur, ordea, jipoitzera iritsi dira. Aldagela umel batean pentsakor zaude.

Neurria: Zazpi puntukoa

Doinua: Gregario edo laguntzaile naiz

Beti bezela bere orduan
partidua det bukatu,
“ez det gaur horren gaizki egin nik”,
orduan hala pentsatu;
jokalariek jipoitu naute,
hutsik ez dute barkatu,
nahiz ta asmorik ez hartu,
egin det zenbait pekatu. (bis)
Bainan beraiek gola huts egin
ta ez da ezer gertatu;
neroni ere gizakia naiz,
ezin al dute ulertu? (bis)

Hona heldu naiz beti bezela
saiatzeko afanean,
bainan erruak ez ziren sartzen
jokalarien planean.
Beren gustoa egin ez eta
egurtu ondorenean;
ni aritu naiz lanean
borondate onenean, (bis)
baina kristonak entzun behar ditut
beti edo gehienean,
zaletasuna alferrik baita
interesak daudenean. (bis)

Arbitro lana ikasi nuen
denek bezela poliki,
bainan saiatzen naizenik ezin
inork kontuan eduki.
Nerekin inork ez du izaten
ez esker ta ez erruki;
nazkatu naute ederki!
Kulpa botatzeaz beti. (bis)
Utzi egiten det, aurrerantzean
ez naiz inorren aitzaki,
ta orain zuek epai zazute
eta zeuek erabaki. (bis)

19,5-20,5-20-20-19-20,5-21,5 = 141

I.Elortza

Neurria: Berezia

Doinua: Sorlekua utziz gero

Amaierako agurra Batzuetan erdi pattal,
 besteetan nahiko trebe;
 gutxienez bukatu da
 ta sentitzen naiz errege.
Eskerrik asko, zuen txaloek
egin digute mesede;
zuek gabe hau ez litzateke
denaren erdia ere!

Mendiluze

Neurria: Bederatzi puntukoa

Doinua: Gaztalondo handian

Amaierako agurra Ez nuke bukatu nahi
 barkatu esanez,
 nik ahal izan dudana
 eman dedanez.
Saio ona egin nahi
nuen gutxienez,
baina kale egin det
gogoen ordainez;
lanei erantzunez,
dudana eman ez,
borondate onez
saiatu naizenez,
pena badaukat baina
damurikan ez. (bis)

FINALAURREAK

Beasain

1997-XI-30

Aurkezlea: Laxaro Azkune

A.Lopategi

Neurria: Berezia

Doinua: Ikusten duzu goizean

Hasierako agurra Arratsaldeon deneri;
hementxe gatoz kantari,
dozena erdi bertsolari;
Laxarok gaiak ipini eta
guk jarraituz bideari,
zuek entzun adi-adi,
bata eta besteari
eta jo txalo ugari.

Mendizabal

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Zarauzko balearena

Hasierako agurra Beasain bihurtu da
jendetzaren ibai,
bertsoa batzuetan
bada hortako gai;
zuek zalapartaka
ez zaudete lasai,
hemen bada lekua,
ikusmira ere bai;
tabladura ez al du
inork etorri nahi? (bis)

Irazu

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Habanera

Hasierako agurra Goizeko zortzitan jeiki
animoso eta baikor,
mokau bat urdailazpiko
ta bi arrautz prejitu koxkor;
kotxia hartu ta Larraitza,
gainera gaur ez zan inor,
euripian Txindokira
korrika ez baino bixkor;
laino artetik begira:
Donosti han, Beasain hor;

Gaintzan bazkari legia
modeju ta guzti jator!
Lau t'erditan Antzizarren,
Koldori errespetua zor,
planik txarrena ez zan baino
siestatik jeikita nator. (bis)

A.Lopategi - Sorozabal

GAIA: Zu, Aritz, finalurreko saioan parte hartu zenuen bertsolaria zara. Saio hartako kartzelan hoztu eta egundoko pulmonia harrapatu zenuen. Kalteordainen eske zatoz Bertsozale Elkarteko Jokin lehendakariarengana.

Neurria: 8ko txikia (ofiziotan)

Doinua: Nere senarrarekin

A.Lopategi Antolatzaile jauna
 gura naiz kexatu:
 Beasainen ez zinan
 oso ondo portatu;
 batetik egin nuen
 pulmonia hartu,
 gainera finalera
 ez nintzan pasatu. (bis)

Sorozabal Gaxotu egin zinan
 eta a ze pena!
 Orain zergatia da
 aurkitu behar dena:
 hotza izan liteke
 pulmoniarena,
 baina ez egindako
 bi poto haiena. (bis)

A.Lopategi Nahiz ta nik ona egin
 neure sesioa,
 ez zan zuzena izan
 zeure ofizioa;
 batzuentzako hotza
 eta bizioa,
 eta Egañarentzat
 kalefazioa. (bis)

Sorozabal Kalefazioa da
 gaur aurrerapena,

ondo ibiltzen baita
bai hura duena.
Baina hura ez zan ez
guk emana dena,
baizik berak etxetik
ekarri zuena. (bis)

A.Lopategi Ene lagun ez zaite
mintzatu horrela,
kolpeka ere hasi
naiteke bestela;
eta esango dizut
sentitu bezela:
zuen erruagatik
galdu dut txapela. (bis)

Sorozabal Inguru hontan bada
hamaika hotz-bero!
Gaitzetan ere bada
hamaika jenero!
Holakorik bazenik
ez nuen espero:
pulmonia harrapatu
kaka einda gero. (bis)

A.Lopategi: 20,5-19-19-19-18-20-19 = 134,5

Sorozabal: 21-21-20-19,5-18,5-19,5 = 139,5

Sarriegi

Azken aurreko puntua emanda

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Gogoan daukat ez dula aspaldi

Informatika fakultatean
itxi dira zenbait ate,
gose greba bat egin baitute
ta arrazoa daukate;
presoen gaia gainean dugu,
hautsi behar da zenbait kate.
*Malkoak eta poza ez daude
elkarrengandik aparte,*
baina malkoak gehiago dira
etxera ekarri arte. (bis)

7,5-7-6,5-7-6,5-7-7 = 48,5

Mendizabal

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Azkune Amodioak sarri
 loa galerazi,

Mendizabal hala ta guztiz ere
 pena du merezi;
 berak du hainbat indar
 ta hainbat fantasi,
 maitasunikan gabe
 ezin leike bizi.

$7-6,5-8-8-8-7-7 = 51,5$

Azken aurreko puntua emanda

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke

Inguruneak jasan ohi ditu
galtzeko hainbeste zori;
horra Leizaran ta horra Itoitz,
badago hainbat istori.
Proiektu on bat badago orain
ta datorkigu denori;
*ez gaitzela harri berean
behin eta berriz erori!*
Arrisku hortan ikusten baitet
Lareoko asmo hori. (bis)

$7-7,5-6,5-7-7,5-6,5-7 = 49$

O.Enbeita

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Azkune Presoak urrutian,

gose greba hemen,

O.Enbeita munduan baitaukagu
horrenbeste zeken;
nola eskubideak
hain galduta dauden,
neurriak hartu behar
ditugu lehenbailehen.

6,5-6,5-6,5-6-6-7-6,5 = 45

Azken aurreko puntua emanda

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Hainbat gerreruk ni konkistatzen
atera dute ezpata;
laudoriotan jausi ohi dira
eta azkenean kaka!
Ezin onartu hainbat pelmada
ta gero kristoren lata;
miresle asko ditudan arren
nik maite dudana falta,
gauero daukat ohe ondoan
horren hutsune galanta! (bis)

6,5-6-6-7-6-6,5-5,5 = 43,5

Sorozabal

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Azkune Nun da Lazkao-Txiki,
ez da hemen ageri?

Sorozabal Kantatu nahi nioke
bertso bat berari;
zeru aldetik dago
gaur begira guri,
isildu, ia bera
hasten den kantari.

7,5-7-6-7,5-7,5-7,5-7 = 50

Irazu

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

Azkune Jende asko ari da
 loteria hartzen,

Irazu baina saltsa horietan
 neroni ez naiz sartzen;
 mila duroko asko
 horretan gastatzen,
 ta Egoarritan ez da
 xoxikan tokatzen.

6-6-5,5-7-6-6-7 = 43,5

Azken aurreko puntua emanda

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Gogoan daukat ez dula aspaldi

Majinat bertso kantatu zaizka
gailur zoragarri horri,
egunsentitan ta inularretan
eguzki printzetan gorri;
muturra xutik ez zera gero
errespetokua jarri!
Hainbat ahalegin eta ametsen
lekuko zera Aizkorri;
gu zuregana ez goaz eta
zu guregana etorri. (bis)

7,5-7-7-7-8-7,5-8 = 52

O.Enbeita - Irazu

GAIA: Zu, Oihane, hirurogei urteko emakumea zara; Irazu hogeitau urteko mutil gaztea.
Irazuk bere maitasuna agertu dizu, baina zuk badituzu zeure zalantzak.

Neurria: 10eko txikia (ofiziotan)

Doinua: Antton eta Maria

O.Enbeita Hirurogei ta hogeitau
 gogoz zara sartu,

diferentzia ezin da
hain errez kontatu;
nahiz ta maite nauzula
didazun kantatu,
nik zer egin behar dut,
ezin dut asmatu,
muxu bat emon edo
txupete bat hartu? (bis)

Irazu Oraindik baiezkoak
badu esperantza,
biok egingo degu
maitasunan dantza.
Aurpegian al daukat
txupetean antza?
Bildu beharko degu
elkarrenganantza
zu zera nere larrox,
ni zure arantza. (bis)

O.Enbeita Nahiz ta bete nahi dudan
muxuka kupela,
aspaldi joan zitzaidan
hortako batela;
urteak karga dute
normal den bezela,
ez al duzu uste nahiko
aldrebes gaudela?
Arantza zorrotzegi,
lorea zimela. (bis)

Irazu Orain berriro keja
daukazu osterara;
biharamuna zera,
ni berriz bezpera.
Halare joan behar
zu ta ni batera;
nahiz ta aurkitzen zeran
ximeldu antzera,
nere ihintzarekin
berpiztuko zera. (bis)

O.Enbeita Hilda ere ez nago
ta ez berpiztu, aizu,
baina oso zaharra naiz
ta ondo dakizu.
Nahiz ta ligatzen zauden
gazte eta maixu

zeure edadekoak
bilatu itzazu,
morboa baino ez da
ta ahaztuko nauzu. (bis)

Irazu Nere itxaropenik
ez ezazu urka,
nere buruarekin
bestela muturka.
Ondo ikusten zaitut
nerekin muxuka;
garbi aitortu dezu
morboa badauka,
bi belaunaldi gera
eta ezin uka. (bis)

O.Enbeita: 20,5-20-21,5-20, 19, 20,5-19 = 140,5

Irazu: 20-20-21-20-20,5-18,5-20,5 = 140,5

A.Lopategi

GARTZELAKO GAIA: Zure kapritxoa izan da urtero-urtero, Aralarren, zuhaitz bat landatzea. Gaur konturatu zara azken urteetan landatutakoak hautsita daudela. Aurtengo landareari mezu bat erantsi diozu.

Neurria: Zazpi puntuko berezia
Doinua: Historiaren hari zahar hori

Mendia eta basoa beti
izan dut oso atsegin;
ai, ene, zenbat ahalegin
egin ditudan Aralarra
puntara igoaz arin! (bis)
Hainbat arbola sartuagatik
bizirik mantendu ezin,
baina han idatzi dut fin,
eta hara zer ipini dudan
argiro gelditu dadin:
hemen Aritzek landatu nau ta
kontuz ni apurtzearekin. (bis)

Sarri askotan etortzen bainaiz
ni Aralar ingurura,
hau da nire abentura,
eta zuhaitzak bertan sartzea
hartu nun neure ardura. (bis)

Baina tamalez denek ez dute
holaxe mantendu gura;
zaindu dezagun natura!
Ta entzu'idazue zabiltzatenok
hemendik pizti modura:
guk ez badugu natura zaintzen
zeinek zaindu behar du ba? (bis)

Ohitura hori hartu nuen behin
eta ez nuke nahi eten,
nahiz ta ez den errez izaten,
gau ta egun nabil natura zaindu
behar dugula esaten; (bis)
eta arboletaz ematen ditut
ez dakit zenbat azalpen!
Bat sartu nuen behin baten,
baina jentuza klase horrengan
ez dut askorik sinesten,
eta hilero etorriko naiz
nola dagoen ikusten. (bis)

21-18-18,5-19,5-19,5-21,5-20 = 138

Mendizabal

GARTZELAKO GAIA: Zure kapritxoa izan da urtero-urtero, Aralarren, zuhaitz bat landatzea. Gaur konturatu zara azken urteetan landatutakoak hautsita daudela. Aurtengo landareari mezu bat erantsi diozu.

Neurria: Zazpi puntuko berezia
Doinua: Atmosferatik atera eta

Zuhaitzik gabe mendia zer da?
Galdera egin liteke,
hemen guztion langintza baita
hori zaindu eta bete.
Atxurrarekin joan izan ohi naiz
eta lurra hola maite;
lanean urterik urte
egin dut hainbat jardute.
Dirudienez hemen zenbaitzuk
lotsa gutxitxo daukate,
batzuk maitatzen degun hainbeste
besteek gorroto dute. (bis)

Arbolak duen itzal freskoa

zergatik ez dute maite?
Arbolak duten edertasuna
horren gaizki al legoke?
Beraren baitan aurkitzen baita
mendiko zenbait iraute;
egiteko hainbat kalte,
kontzientzia nun ote?
Gizakumea nola portatu
liteke horren arlote?
Aizkorarekin behatz muturrak
ebakiko nizkioke. (bis)

Landaretxo bat daukat eskutan;
beste hainbeste bezala
jarriko zaitut lur azpi hontan,
ta itsastea ojala!
Galdu direnen leku berean
hori da zure magala.
Ene landare apala:
egin zazu eginahala;
arrazoiaren zentzutasunak
pixka bat gorde zaitzala,
mendiak eta menditar denok
goza dezagun itzala. (bis)

21,5-21-25-21,5-19-20,5-20,5 = 149

Irazu

GARTZELAKO GAIA: Liburu bat zara, herriko liburutegiko apal batean. Azken hamar urteotan hautsa kentzeko baino ez zaituzte mugitu.

Neurria: Zazpi puntukoa
Doinua: Munduan libre bizi izatea

Ez dakit baino esaten dute
anonimoa naizela,
egia da bai ez zait tokatu
halako suerte itzela;
bi mila urtetan edukia det
bilakaera ustela:
apal zaharraren umela
edota hautsa bestela.
Biblia nauzu ta hementxe nago
lehen idatzia bezela,
eta eskerrak apaiz xaharra

tarteka etortzen dela! (bis)

Apal batean nola liteke
hainbat urteko bizia?
Nere barruan gordea dago
kristautasunan hazia.
Ondo letuta gordean badet
piparra eta grazia;
baina hau ez da guzia,
bakar nagola auzia;
bibliotekaio gaixuak nauka
baztar batian utzia,
baina halare herriak nauka
ia buruz ikasia. (bis)

Oso begiko izana nau ni
beti Erroma kuttunak;
herriarengan ipini ditut
oso lezio astunak.
Nere begikin ikusi izan du
sarri pertsona itsunak;
nere orrialde lizunak
ta tartekako hutsunak.
Garai batean gazte asko ta
bakandu zaizkit egunak,
halare ez da hain gaizki bizi
nere beharrik ez dunak. (bis)

22-23-24-21,5-20,5,20,5-22 = 153,5

Sarriegi

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Nahiz eta banuen

Amaierako agurra Nahiz eta banuen
 nik nahikoa premi,
 ideia onikan ez
 ganbara zahar honi;
 besteak ondo eta
 gaizki nenbilen ni,
 gehiago esaterik
 ez zaigu komeni. (bis)

FINALA
Goizeko saioa

Donostia
97-XII-14

Aurkezlea: Laxaro Azkune

S.Lizaso

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Hasierako agurra Egunon denoi, hastera doa
hitz neurtu ta rima dantza;
“zer pasako da?” hau da haseran
denok daukagun zalantza;
nahiz eta batek dadukan hemen
faboritoaren antza,
ikusirikan zaletu batzuk
nigan duten konfiantza,
etsiak jota netorren baina
berpiztu zait esperantza. (bis)

Irazu

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Hasierako agurra Atzo Retegik eta Titinek
lehia bizirako gogoz,
denok hunkitu ginduen pozik
txapa gain-gaineko jokoz;
apustulari bat baino gehio
hiltorian bihotzekoz.
Gaurkuan ere atzoko bera
errepikatzeko asmoz,
zaharrak nagusi baina gaztiak
egurra ematera gatoz. (bis)

Egaña

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Herri txikien negu gordina

Hasierako agurra Ez da bakarrik Belodromoko
jendetza honen dizdira,
bertsolaritza aurrera doa
emakumeen harira;
laroeita biko txapelketari
jarri gaitezen begira,
orduan gaitzat hartzen genitun
ta orain eurak gai dira.

Iturriaga

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Gogoan daukat ez dula aspaldi

Hasierako agurra Hitzaren kirol nazionala
omen da bertsolaritza;
hitza da gure lehengaia ta
elkar jostea langintza.
Hitzezkoa ta nazionala zan
mahaikideen eskaintza,
ta erantzuna dute zigorra
eta ziega zulo hitsa;
hitza lapurtu dieteneri
eman diezaiegun hitza. (bis)

Lujanbio

Neurria: Bederatziko txikia

Doinua: Betroiarena

Hasierako agurra Horrenbeste amestu
gendun finalera,
hementxen gaude beraz
iritsi gera;
egunkarietako
titular karrera,
normala ta absurdoa
da biak batera;
gazteen tankera,
besteen kantakera,
neska bat gainera,
ta total bai zera!
Hemen denok daukagu
dardar bat bera. (bis)

Maia

Neurria: Bederatziko haundia

Doinua: Nere gorputza dardarka daukat

Hasierako agurra Ahoa daukat bihotzean da
bihotza daukat ahoan,
txiki garaiko nere amets bat
egiz ikusitakoan.
Beraz hor nago, lagun bateri

esan nion azaroan:
“aizak Hilario” erdi brometan
“aurten bai Belodromoan”;
irratiz ere ezin entzunda
preso haukate kanpoan;
kartzeletako zuloan,
jende gehiago dago han;
kriseilu bat dut txiki-txikia
jarria bihotz ondoan,
Euskal Herriko presoak eta
senide denak gogoan.

Mendizabal

Neurria: 10eko nag.
Doinua: Abiatu da bere bidean

Hasierako agurra Abiatu da bere bidean
azken txanparen gurdia,
orain hasi ta iluntzera arte
dago kilometro pila;
zuek eta gu guztiok gatoz
asmo berdintsuen bila:
historiaren memorirako
egun hau gerta dadila,
Belodromo hau dagoen bezain
haundi eta borobila. (bis)

A.Lopategi

Neurria: Bederatziko txikia
Doinua: Betroiarena

Hasierako agurra Lehendabizi egunon,
entzule ondradu;
gaurko giroa dago
guztion kargu.
Txapelketa gorantza
doa graduz gradu;
jadanik finala ere
hementxe daukagu;
txapela helburu,
etorri gara gu,
denok buruz buru
eta egon seguru:
gaur daukagun guztia

emango dugu. (bis)

S.Lizaso – Irazu

GAIA: Bizilagunak zarete zuek. Beste askotan bezala, gaur etxeko atarian topo egin duzue. Sebastian S.Lizaso txikiteotik zatoz eta Jexux Mari Irazu alkoholaren ondorioak aztertu dituen hitzaldi batetik.

Neurria: 8ko nag. (ofiziotan)

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

S.Lizaso Bizitza hontan izaten degu
noiznahi aukera ugari,
eta bakoitza bere bidetik,
sarri hori gera ari;
gaur zein nundikan etorri geran
ez ote dago nabari?
Zu oso triste etorri zera
eta ni berriz kantari. (bis)

Irazu Kantari zatoz eta pozikan
aitortu dezun moduan,
alkoholak jota nahiz ta jendia
gaizki dabilen munduan,
arratsaldetan txikiteoa
baizik ez dezu buruan;
nere hitzaldira juan bazina
askoz hobeto zenduan. (bis)

S.Lizaso Zuk animoak hotz daduzkazu
ta nik berriz bero-bero,
hiru-lau trago afalaurretik
ohitura dut egunero;
zure gisara nik etsitzerik
arren ez zazu espero,
gauza guztiak ongarri dira
neurria hartu ezker. (bis)

Irazu Pozik zabilta, denborarekin
itzali leike irria,
alkoholismoa gizarte hontan
hain da arazo larria!
Zeure eskusa beti bezela
merke didazu jarria,

baina badakit zein izaten dan
eguneroko neurria. (bis)

S.Lizaso Erabakia norbere esku
ez al daukagu gaurkoan?
Sermoiarekin horren urruti
mesedez ez zaitez joan,
“denborarekin itzali baietz!”
esana zaude alboan;
surikan ez da inoiz itzaltzen
alkohola botatakoan. (bis)

Irazu Halare zure sententzi hori
ezin liteke omendu,
pixkanaka hasi ta azkenean
bizioraino gailendu;
haseran hartu nahi izaten da
eta gero ezin kendu,
surikan ez da itzaltzen baina
gorputza erre egiten du. (bis)

S.Lizaso Gorputza pixkat erretze hori
ez da izaten kaltean;
esango dizut lehen neuk esana
beste egunen batean:
“asko ta asko usteltzen dira
sartu ta gero lurpean,
eta nik berriz usteldu nahi dut
bizirik nagon artean”. (bis)

Irazu Neronek ere bizi nahi nuke
baina ez alkohol hutsean,
ez dago zertan beti egonik
bizimodu zorrotzean;
oaindik negana helduko zera
burumakur hotz-hotzean,
orain izena daukazun hori
anonimo bihurtzean. (bis)

S.Lizaso: $26,5-27-27-28,5-27-27,5-27 = 190,5$

Irazu: $27-27,5-27-29-28-27,5-27,5 = 193,5$

Egaña - Iturriaga

GAIA: Zuk, Andoni, beharrezko ikusten dituzu 0'7 plataforma, Medikus Mundi eta horrelako erakunde ez gubernamentalak; Unairen ustez hori ez da bidea.

Neurria: 8ko nag. (ofiziotan)
Doinua: Santa Barbara zure bizitza I

Egaña Iparraldea eguna bada
 hegoaldea arratsa;
 zoritxarrean gainean dugu
 kontsumoaren erratza;
 oraintxe ia hondoa jota
 gure munduan orratza,
 elkartasuna izan liteke
 lehendabiziko urratsa. (bis)

Iturriaga Hegoaldeko arratsa dago
 iparraldera begira,
 eta guk beti bezain mugatu
 dugu gure ikusmira;
 zero zazpia ta horrelakoak
 ez aipatu neri, tira!
 Gure kontzientzi hipokritaren
 lasaigarri baino ez dira. (bis)

Egaña Era hortako plataforma bat
 nik det barreneko zita,
 holakotara ahal den sarrien
 egiten baitet bisita;
 erruki soila ez izan arren
 hain sentimentu polita,
 elkartasuna irits liteke
 hipokresitik hasita. (bis)

Iturriaga Hipokresitik hasita ezin da
 inoiz inora iritsi;
 gure kontzientzi makalak behar du
 makinat halan igurtzi.
 Mendebaldean hipokresian
 gorenari zaio eutsi,
 0,7a eskeini eta
 Europar sartzen ez utzi. (bis)

Egaña Kakoxdun zifra txiki batetik
 hasten bagera aurrena,
 Europa zaharran mestizajea
 lortu liteke hurrena.
 Nik uste nuen kontu soil hauek
 apaiz kontuak zirena,
 ta egun bertan suma dezaket
 iraultzarik sakonena. (bis)

Iturriaga Gibraltarreko itsasartean,
patera baten jo ta su
hasitakoak, itsas azpian
bukatu ohi dute usu.
Afrikakoei mendebaldetik
ez zaiezu eman musu,
hari zifrarik ez eskeini gaur,
hari lana emaiozu. (bis)

Egaña Hemen erreten sakona dago
eta hori da tristea,
hegotar horiek merezi dute
iparraren gerizpea;
gure lehenengo pausua degu
arrainen batzuk uztea
ta hurrengo izan liteke
arrantzan erakustea. (bis)

Iturriaga Guk nola dena ikusten dugun
geure ikuspegi estutik,
sari askotan ez gara joaten
joan behar dan bide juxtutik;
zuk urrutitik beiratzeai utzi
ta begiratu gertutik;
lagundu nahian bazaude hasi
Bilboko San Franziskotik. (bis)

Egaña: 27,5-27,5-27,5-30,5-28,5-27,5-28,5 = 197,5

Iturriaga: 27,5-28-29-29,5-27,5-27,5-28 = 197

Lujanbio - Maia

GAIA: Etxetik kanpo lan egiten duzuen bikotea zarete, zu, Maialen, emakumea eta Jon gizona. Zuen lehen haurra izan duzue eta biotatik lana nork utzi erabakitzen ari zarete.

Neurria: 8ko nag. (ofiziotan)

Doinua: Arratsaldeon lehendabizitik

Lujanbio Gure etxean gau eta egun
nagusitzen da hutsuna;
orain haurtxo bat degu ta bada
nahiko erantzunkizuna.
Ez al zera zu liberal fama
hainbeste aitutzen dezuna?
demostra zazu aukera hontan
zure modernotasuna. (bis)

- Maia Nere bizitza ez da izaten
tralari eta tralara,
lan gogorrean igaro ohi dut
berdin egun hala gaba.
Lana utziko det, zure onetan
egingo dut beharbada;
etxeko lanak egitea ere
lan egitea ez al da ba? (bis)
- Lujanbio Gure bikote bizimoduai
hartu genion neurria,
alde batera utzi ere bai
ezkontzaren lokarria;
haurra dala-ta koherentzian
ikusten zaitut jarria,
zentzu guzitan ia bazeran
aita eredugarria. (bis)
- Maia Azken aldian modernitatez
nahastu da ingurua
eta papelak aldatu dira,
aldatu baita mundua;
zuk zeuk kanpoa zaindu ezazu,
nik zainduko det barrua,
etxeko enpresa aurreratzea,
horixe dut helburua. (bis)
- Lujanbio Ume txikiak egoten dira
elkarbizitzan gakoan,
baina itxuraz dexente ondo
moldatu gera gaurkoan.
Dudatan nago alproja honek
ez ote daukan gogoan,
umea bere amari eraman
ta txikiteora joan. (bis)
- Maia Aizu Maialen bota didazu
arrazoia dotorea,
ez det onartzen halan da guztiz
jarri didazun legea;
esan dezuna egia da bai
ez litzateke hobe,
txikiteora joan ondoren
eramatea umea. (bis)
- Lujanbio Ez nuen uste jarrera hori
zenuenik zuk hartuko,

lana uztea erabaki du
ta denak gera lekuko;
baldin eta nik nere lanari
egingo banio uko,
ez dakit ziur ez ote nintzan
lasaiago geratuko. (bis)

Maia Ulergarria iruditzen zait
orain zure pentsakera,
jende guztiak uler dezake
horrelako esaera;
banatu behar dugu ziurki
mundu hontako papera
ta ez dezagun inor juzgatu
sexuaren arabera. (bis)

Lujanbio: 27-27,5-25,5-27-26-26-26 = 185

Maia: 26,5-25-24-27-25-26-25,5 = 179

Mendizabal - A.Lopategi

GAIA: Orain dela hogeita bost urte UEUren sorreran parte hartu zenuten bi irakasle zaituztegu. Zu, Mikel, hogeita bost urte hauetan egin den aurrerapenaz oso gustora zaude, baina Aritz ez dago horren gustora.

Neurria: 8ko nag. (ofiziotan)

Doinua: Oihan beltzean zoinen eder den

Mendizabal Mende laurdenak gure bizitzan
egina du bere jira;
ibilbidea aztertzea ere
une hontan komeni da.
Itxaropentsu jarria nago
geure lorpenei begira:
guztia ez da eskura baina
urrats onak eman dira. (bis)

A.Lopategi Iruñeako Larraonara
joan ginan biok lehenbizi;
garai haietan euskara gendun
nahiko motel ta itsusi.
Egia esan gaur ere ez naiz
ni oso gustora bizi,
oraindik ere ezin baileike
dena euskaraz ikasi. (bis)

Mendizabal Irakaslego euskaldunaren

urratsa zabalik dago;
modu hontako aukerarikan
ez gendun izan lehenago.
Nahiz eta alor guztietara
ez den iritsi zeharo,
gure ametsa begiztatzan det
geroz eta gertuago. (bis)

A.Lopategi: Unibertsital giro horretan
badago ikasle pranko,
halan da guzti hizkuntza aldetik
bizi dira nahiko plako.
Euskeraz zerbait badago baina
halere aitortu beharko:
pauso gutxitxo ez al dira eman
hogeita bost urterako? (bis)

Mendizabal Hainbat ikaslek aldarrikatuz
egin dute irrintzia;
irakasleen ardura onak
badu bere garrantzia.
Egin ditugun lanei buruzko
ona daukat iritzia,
horri eskerrak berpiztu baita
egungo kontzientzia. (bis)

A.Lopategi Kontzientzia piztea gendun
aspaldi baten helburu,
baina gaur egun zertan gabiltzan
ez nago oso seguru;
hara, Goiriena gendun hor lehen ta
orain dago Salaburu;
horien eskutan ehun urte barru
guztia euskeraz dugu. (bis)

Mendizabal Aitortzen dizut alor askotan
oraindik dagon zaputza;
egindakorik ezin da uka,
eman daiogun laguntza;
batzuek goitik ta besteek behetik,
denok bide horri bultza,
ahal dan azkarren lortu dezagun
euskararen normalkuntza. (bis)

A.Lopategi Dena euskeraz ikasi nahia,
hori gendun geure ames,
baina ikusten da hainbat urtetan
ez dala gertatzen errez;

bide hontatik jarraitu ezker
diotsut halabeharrez:
guk ez dugu hori ezagutuko
ta gure haurrek ere ez. (bis)

Mendizabal: $26,5-26,5-27-26-25,5-25-26 = 182,5$
A.Lopategi: $27,5-26-26,5-26,5-26,5-26,5-25 = 184,5$

S.Lizaso

Deskribatzeko hitza: Sukaldea

Neurria: 10eko txikia
Doinua: Hamalau heriotzena

Amona sartu ohi da
goizean aurrena,
atzetikan katua
atean barrena;
gero ondoren denok,
gauza nabarmena,
denok baitegu hura
geure kokapena,
etxeak izaten dun
txoko goxoena.

$7,5-7-7-8-7,5-7-7 = 51$

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Xarmangarria zera

Azkune Etsipena daukagu
 sarri ate joka;

S.Lizaso Zabaldu ez ta ere
 ez zaio inporta.
 Esperantzari behar
 deiadar bat bota,
 etsi ezker hemen
 galdua nago-ta.

$6,5-7-6-7-9-7-7 = 49,5$

Hitza/GAIA: Gutuna

Neurria: Bederatziko txikia (behartua)

Doinua: Betroiarena

Nere lagun jator bat
lehengo baten hil zen,
ta orain berarekin
ez naiz ibiltzen.
Lehenago kontu pranko
gendun erabiltzen;
gutunez saiatu naiz
berriro hurbiltzen;
saiatu idazten,
kontuak azaltzen,
alferrik ote zen
hasi naiz kezkatzen;
haren erantzunikan
ez zait etortzen. (bis)

6-5,5-4-5,5-6-4,5-5 = 36,5

Irazu

Deskribatzeko hitza: Erratza

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Espainian behera

Bera eskuan dula
ikusi ohi det ama,
berak nahi hainbestetan
ezin neregana;
zikina biltzea da
gailu horren plana,
ondo irteten ez bada
gure bertso-lana,
zabor danak garbitzen
izango du lana. (bis)

4,5-4-4-4-5-4,5-4,5 = 30,5

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera

Azkune Beste bi urte barru
bi milagarrena;

Irazu oaingoa pasatzeak
ematen du pena.
Orduan ni gogoan
gaztea nintzena,
hortaz ez oroitzea
neretzat onena.

6-6-5,5-5,5-6-6,5-6 = 41,5

Hitza/GAIA: Kartzela

Neurria: Bederatziko txikia (behartua)

Doinua: Betroiarena

Borrokak zein luzea
dun ibilpidia!
zoritxarrekoa da
oso guria;
behin hasi zena eta
etenik gabia,
“askatasuna noizko?”
askoren galdia.
Askok izerdia
odolez ordia;
borrokan gurdia,
han dago geldia,
baina sartu behar da
noizbait argia. (bis)

6-6-5,5-6-5,5-5-7 = 41

Egaña

Deskribatzeko hitza: Burua

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Batzutan da argia

Batzutan da argia,
besteetan iluna;
batzutan pilakoa,
besteetan astuna;
kanpotik ilea du,
barruan garuna;
lepo gainean denok

daukagun laguna,
gehielik gutxiegi
erabiltzen duna.

8,5-9-9-9-9,5-9-9 = 63

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Xarmangarria zera

Azkune Kontsumismoan menpe
gaude gabonetan,

Egaña ta hori igartzen da
denon patriketan;
denok oparo gabiltz
kanpo kontuetan,
eta urritasuna
gure animetan.

6-7,5-8-8-8-7-7,5 = 52

Hitza/GAIA: Astelehena

Neurria: Bederatziko txikia (behartua)
Doinua: Gaztalondo handian

Xebastianen basoa
ta nere kikara,
ahora iristean
a ze dardara!
Iratzargailu, manta
edota izara,
denak ahaztuak ditut
ohi dedan gisara.
Bukatu da jada
gure abiada,
lasaituko gara;
nere ustez, hara:
biharko astelehena
desberdina da. (bis)

7-7-7-8-7-7-8 = 51

Iturriaga

Deskribatzeko hitza: Basoa

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Espainian behera

Irati parajea
gainezka dagona;
pagadi berde ilun,
lurralde sakona;
nostalgia askoren
on ta zoriona,
baina hitz horrek badu
berarekin broma:
zerbeza gordetzeko
ze inbentu ona! (bis)

$8-7-8,5-8,5-7-7,5-7,5 = 54$

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera

Azkune Euroa datorkigu,
 akabo pezeta!

Iturriaga Karteran nahiz ta izan
 pila bat gordeta,
 sarri ibili gara
 buelta eta buelta.
 Pozik nago erregea
 desagertzen da eta.

$6-6-6,5-7-7,5-8-7,5 = 48,5$

Hitza/GAIA: Ilargia

Neurria: Bederatziko txikia (behartua)

Doinua: Betroiarena

Horrek gogorazten dit
naturan tunela
badakit atzo ia
bete zegoela;
neretzako da behintzat

ikusgai itzela,
emozionatzeko
goxo ta epela.
Hortxe dago bela
ta agertu dela,
poza dut honela,
ohartzen garela:
oindik naturan menpe
bizi naizela. (bis)

6,5-6-5,5-5-5,5-6-6,5 = 41,5

Lujanbio

Deskribatzeko hitza: Ordenagailua

Neurria: 10eko txikia
Doinua: Espainian behera

Aparailua modan
azken urteetan;
ziur asko salduko
dira gabonetan.
Teklatxoei begira
ni nago penetan;
dena txukun jartzen du
atal banaketan,
ta ni galtzen naiz bere
laberintoetan. (bis)

6,5-6-6,5-6,5-7-6,5-6,5 = 45,5

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Xarmangarria zera

Azkune Bilbon dago Guggenheim,
Donostian Kontxa,

Lujanbio bat bestean ondoan
gerta leike hutsa;
diruak eman die
bieri laguntza,
baina gauz txikigoak
behar dira bultza.

6-6,5-6-6-5,5-6,5-7 = 43,5

Hitza/GAIA: Bakardadea

Neurria: Bederatziko txikia (behartua)

Doinua: Zaldi zuriarena

Beti taldearentzat
gure begirada,
lagunen babeseko
parre algara;
bakarti gaudenean
izutu ohi gara,
pentsamentuei eman
hamaika zartada!
Sarritan dardara,
gure begirada,
bakardadez, hara,
badaukat patxada,
norberak aukeratzen
duena bada. (bis)

5-4,5-5,5-5,5-5-4,5-5 = 30

Maia

Deskribatzeko hitza: Kalea

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Itziarren semea

Bere kartel ta guzti
sari da hiztuna
eta eskaleentzat
zein leku astuna!
Gizon ta emakumeek
hor dute jarduna,
ta poliziarentzat
lantoki txukuna.
Lantoki txukuna
zein leku astuna!
Eta gazteak bere
egin behar duna.

6-6,5-6,5-7,5-7,5-7-7,5 = 48,5

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera

Azkune Berriz ere Retegi
txapela jantzita;

Maia denok harritu gera
 hori ikusita,
 eta bere izena
 nahi dut aldarrika,
 historiak berekin
 sarri baitu zita.

$6,5-6-6-6-6,5-6,5-6 = 43,5$

Hitza/GAIA: Izerdia

Neurria: Bederatziko txikia (behartua)

Doinua: Gaztalondo handian

Hitz hori ez da noski
gaur txorakeria,
sarri bustitzen baitu
gure aurpegia;
ezaguna da hori,
ez al da egia?
Gugana iristen da
horren nabaria;
batzutan gorria,
sarri mingarria,
nahikoa da ia,
jarraitu haria;
ez bedi alferrik izan
gure izerdia! (bis)

$7-6,5-6,5-6,5-6-6-7 = 45,5$

Mendizabal

Deskribatzeko hitza: Leihoa

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Zer da gaur Donostian

Etxe barruetatik
ikusten da urrun,
zirrikitu txikiak
nolatan dauzkagun;
batzutan dizdiratsu,

besteetan ilun,
gune horiek zabal
behar dira egun,
bakearen argia
dastatu dezagun. (bis)

7-6-5,5-5-6,5-6-6 = 42

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Xarmangarria zera

Azkune Burgosko epaiketa
 berriro gogora,

Mendizabal nahiz ta pasatu zaigun
 hainbeste denbora;
 adierazpen hitza
 kartzela zulora,
 estrategi horiekin
 ez goaz inora.

7-7,5-8-8-8-7-7,5 = 53

Hitza/GAIA: Fedea

Neurria: Bederatziko txikia (behartua)
Doinua: Gaztalondo handian

Batzuntzat izan laike
arraro samarra,
beste askorentzako
badauka garra,
bultza arazten baitu
barruko hausnarra,
bizitzari eman ez
gatza ta aparra;
itsumenen marra
haustea ez da txarra;
nahi dut azpimarra:
zeinen den edarra
barruko sinismenak
duen indarra! (bis)

8-7-8-7,5-8-7,5-7 = 53

A.Lopategi

Deskribatzeko hitza: Erromeria

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Espainian behera

Hitz hori denontzako
dugu ezaguna,
oso atsegina baita
beraren jarduna;
hortan pasako neukez
gaua ta eguna,
traguka eta dantzan
ze gauza leguna!
Final hau bukatzean
egingo duguna. (bis)

$7-7-6,5-6-6-6,5-6,5 = 45,5$

Lehen puntua jarrita

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera

Azkune Txapeldunak behar du
traje ta korbata,

A.Lopategi baina nik utzi ditut
etxean lagata;
nire jantzi normalez
hona aterata,
hala ere egin nahi nuke
saio bat aparta.

$6,5-6-7-5-5,5-6,5-6 = 42,5$

Hitza/GAIA: Giltza

Neurria: Bederatziko txikia (behartua)

Doinua: Betroiarena

Giltzak mereziko du
gure aipamena,
haundia baita horrek
duen ahalmena;
berekin sartu leike
atean barrena.

Badakizue giltzan
beharrez gaudena;
txikia aurrena
ta fina hurrena,
baina giltzarena
gauza nabarmena:
aterik astunena
zabal leikena. (bis)

7,5-6-6-6-7-6-6,5 = 45

Irazu - Egaña

GAIA: Zu, Irazu, ama, pozik izan zara orain arte Egaña, alaba, garaiz etxeratzen zelako.
Gaur, egusentian etxeratu da eta alaba da oso pozik datorrena.

Neurria: Sei puntukoa (ofiziotan)
Doinua: Aizak hi mutil mainontzi (behartua)

Irazu Hau nik zenbat maite deten!
Baina gaur barruak jaten;
zure irriak nere tristura
eragin du aurten.
Hamarrak aldera irten,
goizaldean buelta, kirten;
desberdin baino biok ai gera
gaupasak egiten. (bis)

Egaña Galdua lo ordu batzu,
ama mintzo da indartsu;
ni bitartean dantzalekutan
ibili jo ta su!
Halare amatxo aizu:
hainbeste maite banauzu,
ni hola ikusiz zerorrek ere
poz hartu behar duzu. (bis)

Irazu Lehenor etxean isila
ta piztu da neskatila,
lagun koadrila eta parranda
daukazu hurbila.
Parrandan zer iskanbila!
Hara eraman mobila,
ta gau osoa pasatuko det
alabaren bila. (bis)

Egaña Ni zorionez betea,

takoi eta eskotea;
askatasuna hola hartzea
zeuretzat kaltea.
Hau señorita eitea,
ene amatxo maitea!
Nahio al zendun zure alaba
tuntuna izatea? (bis)

Irazu Lehenago errita pranko,
makal antxeko zalako,
orain poztu da ta ama ere
alaitu beharko.
Urduri ta zenbat malko!
Zu berriz parrandan bapo!
Biharko zita egin dezagun
gosaritarako. (bis)

Egaña Hau, hori eta halako,
badut aitzakia pranko,
etxera lagun hor izan ditut
bi mutiko guapo.
Gorputza ez daukat bapo,
logureti bezain plako.
Aizu, mesedez, deitu zaidazu
bazkaritarako. (bis)

Irazu: 20-18,5-16-18,5-19-19,5-20,5 = 132
Egaña: 23-22-22,5-21-21,5-21,5-23 = 154, 5

Iturriaga - S.Lizaso

GAIA: Zuen aspaldiko ametsa beteaz Kuban zaudeten bi lagun zarete. Zuk, Unai, herri honekin liluratuta, bertan gelditzea erabaki duzu; Sebastian, berriz, etxera itzultzeko irrikitan dago.

Neurria: Sei puntukoa (ofiziotan)
Doinua: Aizak hi mutil mainontzi (behartua)

Iturriaga Dolarrekin bete-bete,
makina bat travel-txeke!
Ta ze sorpresa hartu dudan nik
hemen derrepente!
Bertan geratu nahi nuke,
herri hau baitut nik maite;
ez naiz joango Fidelek bere
bizarra moztu arte. (bis)

- S.Lizaso Ametsa genduen lehendik,
bete degu zuk eta nik;
bilatu degu gauza politik
eta zorionik!
Bertan gelditzeko planik,
ez dadukat zuk esanik;
puru batzuek erosi eta
banoa hemendik. (bis)
- Iturriaga Hemen ez da falta ronik,
ezta ere puru onik,
baina ni hemen geratuko naiz,
baina lujo barik;
ez da falta irudirik,
ez eta gogo bizirik,
diruan faltan alaitasuna
aurkitu baitut nik. (bis)
- S.Lizaso Zertan hartu hainbat neke,
ni konbentzitzen jo ta ke!
Alferrik zabiltz, geldi gaitezen
gauza horren eske.
Euskal Herritik aparte,
nik pozikan ez dut maite;
haruz joanda biak batera
izan genitzazke. (bis)
- Iturriaga Ezetz dio eztarriak,
ez dira une larriak;
nik maite ditut Kuba hontako
zuri ta gorriak.
Aberri eta herriak,
balantza baten jarriak,
zer ikasia badu Kubatik
gaur Euskal Herriak! (bis)
- S.Lizaso Misiolari antzera,
arazoa konpontzera
ez gera etorri; bide hortatik
zu zer ari zera?
Banoa hegazkinera
eta ondoren etxera;
hurrengo urtean itzuliko naiz
zu bisitatzera. (bis)

Iturriaga: 19,5-18,5-20-20,5-20,5-21,5-20,5 =141

S.Lizaso: 19-21-20,5-22-22-20-23 = 147,5

Maia - Mendizabal

GAIA: Zuk, Jon, aita, gogor hartu duzu gaur Mikel semea; zure haserrealdiaren ondoren, semeak pasiloan pintada haundi bat egin du protesta gisa.

Neurria: Sei puntukoa (ofiziotan)

Doinua: Aizak hi mutil mainontzi (behartua)

Maia Ez ote zaigu inporta
 heziketaren porrota?
 Gure etxean gertatzen dira
 hainbat gauza mota.
 Semea dator mokoka,
 ez natzaio joango joka,
 berak bakarrik asmatu baitu
 pasilo-borroka. (bis)

Mendizabal Hitz gogor asko esana,
 errita frango emana;
 espraiarekin margotua det
 pasilua dana.
 Orain dator zuregana,
 bikoitza izango den zama:
 hasarreak dun nekea eta
 garbitzeko lana. (bis)

Maia Ezin dut ezer kritika
 ta badut nere logika,
 aita-semeek izaten dute
 mila ika-mika!
 Baina pentsatzen jarrita,
 hemen nahi dut aldarrika:
 adierazpen askatasuna
 etxetik hasita! (bis)

Mendizabal Zu zaude malaletxean,
 ta nik mina bihotzean;
 edo zertara ausartzen gera
 hola berotzean.
 Ez naiz gelditu atzean,
 beldurtiaren antzean,
 kalean degun estrategia
 ona da etxean. (bis)

Maia Ez da diskurtso herrena!
 Badaukazu ahalmena.
 Nere semea txikia baina

ekintzaz zuzena.
Ematen diot baimena,
egiteko nahi duena,
aita polizi izango balitz
ezingo lukeena. (bis)

Mendizabal Hola naiz ahalegindua,
lehenago zeunden mindua,
baina pixka bat baretu zaigu
giro sumindua;
buka zaizu agindua,
ta ni nago hurbildua;
bion artean garbi dezagun
biok zikindua. (bis)

Maia: 20,5-20-19,5-21,5-22-21-22 =146,5

Mendizabal: 21-21,5-20,5-22-22-21-21,5 =149,5

A.Lopategi - Lujanbio

GAIA: Rock talde bateko kidea zaitugu zu, Aritz. Urte batzuk badira entsaioetarako lokala eskatu zenutela, eta erantzunik jaso ez duzueenez, talde osoa, zuen tresna guztiekin udaletxeko batzar aretora sartu zarete; Maialen dugu alkatea.

Neurria: Sei puntukoa (ofiziotan)

Doinua: Aizak hi mutil mainontzi (behartua)

A.Lopategi Hertzainakoen antzera
gabiltza gora ta behera,
baina lokalik gabe gaude ta
hau gure ibilera!
Hona etortzean eskera,
beti egin duzue atzera,
ta udaletxeko plenora gatoz
hementxe jotzera. (bis)

Lujanbio Rocka omen dago modan
azkenaldiko denboran,
baina talde hau behintzat ez dabil
txukun ta ganoran.
Gitarrarekin aproban,
ondo jotzeko nahiko lan;
igoal txoko bat utziko diet
musika-eskolan. (bis)

A.Lopategi Hauxe da gure bizitza,

rock and rollean gabiltza,
munduan zehar ikusten diran
beste askoren gisa.
Zuk eman diguzu hitza,
musika gelan eskaintza,
baina ez gara hitzez fiutzen,
emaiguzu giltza. (bis)

Lujanbio Musika hori entzutian
bateriaren kolpian,
ezinegona barnean eta
pena bekokian.
Musika-eskola joatian,
saiatu gogo betian,
baina txokoa uzten dizuet
klaseen trukian. (bis)

A.Lopategi Beraz ein dugu tratua,
ez da izango bekatua;
gure aldetik badugu orain
nola saiatua.
Musika gela gertua
duzuenez onartua,
zuen omenez emango dugu
lehen kontziertua. (bis)

Lujanbio Idearikan gabean,
hementxe dauzkat parean,
eta musika ez dute utziko
maila dotorean.
Nahiz jardun eginahalean,
elektrika magalean,
baietz bukatu guztiek banda
munizipalean! (bis)

A.Lopategi: 22-19,5-21-21-21-21,5-19,5 = 145,5

Lujanbio: 19,5-19-21-19-19,5-19,5-20,5 = 138

S.Lizaso

GAIA: Antimilitarista zara. Zure protesta azaltzeko auto militar bat margotu zenuen dotore-dotore. Hori dela eta, epailearen aurrean zaude.

Neurria: Zazpi puntukoa

Doinua: Leiho ertzetik entzun dezaket

Epaile jauna zu behingoz izan
zentzudun buru azkarra,
mundu guztiak gaitzesten baitu
egoera militarra.
Eta protesta egiteko nik
barrendik nuen indarra;
auto bati hiru marra,
ez da ekintza baldarra. (bis)
Nolabait ere legortu nahi nun
egonezinan negarra;
arrazoia da kontra egiteko
nedukan arma bakarra. (bis)

Nik hotz-hotzean egin nun dena,
ez nintzaden odolbero;
behin egin nuen ta atxilotu,
ezin egin egunero,
baina ni ez naiz kakidun horiek
diran bezain majadero,
errukirik ez espero,
ez dut hainbeste endredo. (bis)
Egin dudana damutzerikan
arren ez zazu espero,
eta gorroto gehiago baietz
kondena jasota gero!

Atxilotuta ekarri naute
akusatuen aulkira,
itzali nahia nedukalako
zenbait izarren dizdira;
gogoan izan mundu guztia
dagola guri begira;
portatu zaitez neurrira,
zeuretzako komeni da. (bis)
Kondenaturik bidali arren
ni orain presondegira,
ez naiz bakarra eta atzetik
asko etorriko dira. (bis)

19-19-18-19,5-19-18,5-19,5 =132,5

Irazu

GAIA: Injinerua zara. Espazioko ikerketa garrantzitsu bat dela-eta, espaziontzi bat eraikitzen izugarritzako dirutzak gastatu dituzue. Martxan jarri orduko, zure begien aurrean lehertu egin da.

Neurria: Zazpi puntukoa
Doinua: Munduan libre bizi izatea

Urte askotan egin genduen
sekulako ahalegina,
challenger haundi eta ederra,
espaziountzi bikaina!
Motore denak martxan jarrita
ze sorpresa alajaina!
Espaziorako azaña,
hor kolpean hauts egina.
Alper gastua egon ote dan
askok usteko du baina,
seguru izan nik neuk dedala
sufrirenturik haundina. (bis)

Zer gertatzen dan pentsatzen hasi,
kausarik ezin ulertu.
Marte aldeko bidai politak
barruan grina suspertu.
Azken usteko okerren batek
proiektu dana okertu;
halare ezin baztertu,
malkotan behar gelditu,
baina aurrera segi behar da,
akats horretan aztertu.
Proiektu on bat lehertu da baina
ametsikan ez da lehertu. (bis)

Kea ta hautsa besterik ez ta,
sufrirentua daukagu;
jendeak berriz gaizki esaka
barru-barrutik dihardu.
Erru guztia dudarik gabe
hartzten degu geure kargu.
Horra jokatu hobe du,
itsuturikan gaude gu,
gure ametsa izan dedila
ilargiaren eredu;
oaindik bizitzik ez dago baino
geok ipiniko degu. (bis)

20-20,5-21-20-19,5-20-21 =142

Egaña

GAIA: Azokan dozena bat porru erosi duzu gaur hamar pezeta merkatzeko gogor saiatu ondoren. Etxera etorri eta porruen edertasunari begira zaude sukaldean.

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Itsaso hori dago zatarra

Nere bizio izan da gula,
orain porrua, orain tipula,
jakina baita gizasemeek
dexente jaten dugula. (bis)
Ez daukat ongi brujula,
ez nun espero sekula,
egina didate burla,
sorta itxuraz ona zen baina
hurretik ez da mardula;
esaten nun bai saltzaile harek
errexegi etsi dula! (bis)

Horrexegatik nago letxean,
pentsatu nuen bart arratsean:
“tajuzidade haundirik ez dek
Andoni heure etxean!”. (bis)
Pezeta lotu motzean
ta azokara jotzean,
trukea nun bihotzean;
baserritarrak gaur jokatu du
benetan normal antzean,
nik ere berdin jokatzen baitut
nere bertsoak saltzean. (bis)

Gaur geratu naiz tonto planean,
porruen bila jo afanean;
edozein ziri gera liteke
bihotz gogorra danean. (bis)
Galtzaileen oihanean,
harra gaiztoak barnean,
bai orain ta bai lehenean.
Ni kejatzeraz azokaraino
joan behar dut zuzenean;
a ze porrua sartu didaten
porru hauen izenean! (bis)

20,5-20-18,5-22-22-22,5-23 =148,5

Iturriaga

GAIA: Misiolaria zara. Zeure urterik ederrenak eman dituzu behartsuen alde lan eginez. Orain zeure herrian zaude eta hemengo bizimoduari buruzko kexak besterik ez dituzu entzuten.

Neurria: Zazpi puntukoa

Doinua: Leiho ertzetik entzun dezaket

Behin bueltatzeko atera nintzen,
luzatu egin zen biajea;
orain herrira bueltatu eta
nago esperantza gabea,
nere ustetan izan nintzena
misiolari trebea.
Baina hau zer da ordea?
Ontasuna da gordea. (bis)
Baina nik nola kritikatu
dut bada hemengo jendea,
elizak ere ahaztu baditu
oinarriak ta fedea? (bis)

Misiolari gisa kristautzen
bete nuen nik papela;
ezagutu dut garai beroa,
ezagutu dut ospela,
eta herrira bueltan nentorren
heroia banintz bezela.
Eta ikusi dut horrela,
gauzak aldatu direla. (bis)
Konturatu naiz neure herrira
bertara iritsi ta bela,
mundu honetan bere barruan
mundu txikiak daudela. (bis)

Nik uste nuen beste modutan
joango zala geroa,
baina ikusten da txarrera aldatu
dala hemengo jeneroa;
nahiz beste erara nuen barruan
herriaren esperoa.
Hango jendea beroa
ta hemengo jende eroa! (bis)
Nererik ez dut ezer aurkitzen
eta hemendik banoa,
neure herrian sentitzen bainaiz
inun baino arrotzagoa. (bis)

21-19,5-22-21-20-20,5-21 = 145

Lujanbio

GAIA: Herri txiki batean bizi zara. Astelehen goiza da eta herriko haur guztiak ondoko hirira joan dira eskolara. Zu leihotik begira zaude.

Neurria: Berezia

Doinua: Trumoaia ortzi beltzean hoska

Hemen ez gera hainbeste jende,
lau katu gaude, baina jo ta ke
aritzen gera herrian alde
gogoz eta pozez bete.
Gure umeak autobusean
doaz etxetik aparte;
gure herriaren kalte,
eta hirian kaxero deitu
ta parre egiten diete. (bis)

Baditut nere eginkizunak,
herri honetan nere jardunak,
eskola batek beteko ditu
orain arteko hutsunak. (bis)
Herrian bertan geratu bitez
seme-alaba kuttunak!
Eurak ta euren lagunak;
ttantta batetik hasi behar du
gero haundi izan nahi dunak. (bis)

Autobusari nago begira

gure umeen parre dizdira,
arratsaldetan jolasten dabiltz
herrian jira ta bira. (bis)
Baina goizetik alde egin eta
joaten dira urrutira;
geratzea komeni da!
Hola aurrera gure umeak
bertako izango dira. (bis)

21,5-19-20-22-22-20,5-20,5 = 145,5

Maia

GAIA: Hamabi urteko zure alabaren eskutitz samur bat aurkitu duzu bere gela jasotzerakoan. Zenbait gogoeta eragin dizkizu.

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Habanera

Badakit ume garaiak
garai politak dirala;
karta bat idatzi dezu
ta ez da karta makala!
Begiak gorritu zaizkit
hori irakurri ahala;
berriro zure ondora
joan nahi nuke berehala,
alabak jokatzeko baitu
bere aitatzok bezala.
Nere alaban jokaera
nik ikus dezaket hala:
ondo estaltzen zaitula
zure aitaren itzala;
sentimentuzko enborretik
sentimentuzko ezpala.

Aitaren enbor beretik
etorri zera mundura,
ta zure aitatzok ditun
ezaugarriak ingura.
Folio zuri batean
jarria dezu aingura,
arrainak ekarri asmoz
zure bereko itxura;
baina jokatu ezazu
zure garaia heldu da.
Bihotzetik miresten det
orain daukazun freskura,
gauza bat bakarra orain
etorria zait burura:
zein goxo den idaztea
idatzi ezin den hura.

Eskutitzez jo nahi dezu
maitatuaren aldaba;
irakurri hutsarekin
etortzen zait hotzikada.
Boligrafoz nabari da

zure eskuen dardara;
zintzoki jokatzen dezu
beti bertatik bertara.
Ejenplo bat zera eta
segi horrela ta hara;
aitatxo harroa dago
alabaren begitara,
ta orain egin dezuna
oso gauza haundia da;
lortzen ez badezu ere
bejondeizula alaba!

24-20,5-22,5-21-22-20,5-22,5 = 153

Mendizabal

Hemen inguruan, Anoetako dorreetan, bizi zaren espainiar etorkina zara. Bigarren pisuko leihotik harriturik zaude gaur Belodromora doan jendetza ikusita.

Neurria: Zortzi puntukoa
Doinua: Gaztalondo haundian

Leihotikan begira
ze ikuskizuna!
Non-nahi doa laguna
ta ezaguna.
Txapelketan finalak
gaur bere eguna.
Kalean sumatzen det
jendetzan lurruna,
ze berotasuna
ta ze oihartzuna,
kanpotik entzuna!
Zer ote du bertsoak
guk ez deguna? (bis)

Nik euskeraz ez dakit
eta hau da zama!
Guztia ulertzeko
nolako lana!
Belodromo aldera
jendetza aldana,
bide-prozesioan
pozik da juana,
ulertzea dana,
dastatuz afana,
ez da hain bakana,

inbidi sanoa da
senti dudana. (bis)

Beraz erabaki bat
dut gaur aterako:
euskaltegira azkar
juan beharko,
isuri baititzazket
pozez hainbat malko,
inprobisatze hori
ederra, delako,
egin gabe planto,
saiatuz, kuantu!
Ez nabil hain bapo,
neu ere presta behar naiz
hurrengorako. (bis)

20,5-19-18-19-19,5-18-18,5 =132,5

A.Lopategi

GAIA: Mendizalea zara. Zeure helburua hamalau zortzi milakoak egitea zenuen eta ongi kostata, baina bai lortu ere! Gaur jakin duzu hamabosgarren zortzi milako bat azaldu dela.

Neurria: Zazpi puntukoa
Doinua: Leiho ertzetik entzun dezaket

Zortzi milako hamalau mendi
nituen nik ezagunak;
puntarik punta eginak ditut
amaigabeko jardunak,
elur artean pasata gero
egun hotz eta ilunak;
entzun ditut oihartzunak,
esan didate lagunak. (bis)
Hamalau tontor igo nahiean
pasatu ditut egunak,
hamabost ere igo ditzake
hamalau igo ditunak. (bis)

Mendi puntara iritsi eta
Han hasten nintzan orruka;
gainean zero urdina ikusiz
igoz barrua poztuta.
Beste mendi bat dala orain ta
hain aurkitzen naiz lotuta!
Jarrantuko dut burruka,

orain ezin geldituta. (bis)
Beste mendi bat ere badago
eta irrikitan nauka,
banoa hara neure botak ta
neure kordelak hartuta. (bis)

Mundu osoko laino urdinak
izan ditut parez pare;
gora helduta sentitu izan naiz
mundu osoaren jabe,
mendia baita nere bizitzan
dudan oinarri ta habe.
Beste bat dago halare,
oraindik nik igo gabe. (bis)
Beraz horretan jarraituko dut
mendirantza trebe-trebe,
hori igota sentituko naiz
mendi tontorren errege. (bis)

21,5-20-20,5-20,5-20,5-20,5 = 143,5

Lujanbio

Neurria: Sei puntukoa
Doinua: Dozena bat bertso berri

Amaierako agurra Goizeko saioa hau zen,
ez da gehiago tokatzen,
nahiz ta jendea ihesi joan
ta hasi altxatzen;
jarri eskuak freskatzen,
izotzetan deskantsatzen,
ta atsaldean segi gozatzen
eta txalo jotzen. (bis)

FINALA

Arratsaldeko saioa

**Donostia
97-XII-14**

Aurkezlea: Bernardo Mandaluniz

Mendizabal

Neurria: Berezia

Doinua: Aizazu Suantxa I

Hasierako agurra

da datorkiguna;
ea hobetzen degun
goizean juna!
Daukagun jarduna
ta erantzunkizuna,
ipintzean urruna,
gauean argituko
zaigu eguna. (bis)

Bigarren ekina

A.Lopategi

Neurria: Berezia

Doinua: Iparragirre abila dela

Hasierako agurra

denei esan beharko;
goizean jende ugari bazan,
orain ere bada franko.
Mendi aldera joanda,
janaria eroanda,
bazkaldu dugu edarto,
ta indar berriak harturik gatoz
bigarren asaltorako. (bis)

Arratsaldeon eta on egin

S.Lizaso

Neurria: Berezia

Doinua: Iparragirre abila dela

Hasierako agurra

ez dago esan beharrik,
nahiz oraindikan ez degun kendu
urduritasunen harrik;
animoka jardunak
ta bazkaldu degunak,
baldin badute indarrik,
emozioa sortu nahi degu,
ez tentsioa bakarrik. (bis)

Gogotsu gatoz berriro ere,

Irazu

Neurria: Berezia

Doinua: Iparragirre abila dela

Hasierako agurra Lagun arteak jarri dezake
bat egoera gaiztuan,
goizian ere hala nengon da
orain ere arriskuan;
batean Xebastian
ta Andoni bestian,
ta ni ezin sinistuan,
ingurun kea besterik ez ta
surikan ezin piztuan. (bis)

Egaña

Neurria: Berezia

Doinua: Iparragirre abila dela

Hasierako agurra Arratsaldeon, bazkaldu eta
berriro bagatoz garaiz.
Bazkal garaian mintzatu gera
goizeko bertso eta gaiz;
neri pasa zaidana,
xelebrea da dana,
aldrebes gertatzen da maiz:
porruarekin kolokatu orde
deskolokatu egin naiz. (bis)

Lujanbio

Neurria: Berezia

Doinua: Joana Bixenta Olabe

Hasierako agurra Hau da hau marka,
banan-banaka
hor dijua bigarren bertso lata!
Txalo, buila eta olatua,
Jode, nago erdi lotsatua!
Ez nuen uste,
eskuak fresko asko dituzte,
gure buruak ez horrenbeste.

Iturriaga

Neurria: Berezia

Doinua: Uso zuria errazu

Hasierako agurra Eskertzen dira txaloak,
oihuak eta orroak.
Nik banituen Belodromoan
gaur ikusteko gogoak
zenbateraino piztu gaitzakeen
bazkal orduko ardoak. (bis)

Maia

Neurria: Berezia

Doinua: Era una noche de invierno

Hasierako agurra Hemen txirrindulariak
izaten dira askotan,
baina guk gaurko honetan
ez dugu jardun nahi hortan;
indarrez hartu behar da
gustora egitekotan,
Euskadiko sei orduak
bertsoz burutu asmotan.

Mendizabal - A.Lopategi

GAIA: Eguneroko paseoan dabiltzan bi jubilatuz zarete. Orain arte denbora eta dirua, biak faltan izan dituzue; orain, bietatik soberan.

Neurria: 10eko nag. (elkarrizketa ofiziotan)

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Mendizabal Bastoia hartu ta mantso-mantso,
ezin jua bixi-bixi;
kontu gozotan elkarri mintzo,
zer entzun ta zer ikusi,
denborarekin hainbeste gauza
gugan baitira berezi,
aldaketarik inportanteena
nahi nuke adierazi:
lehen denboraren atzetik eta

orain beraren ihesi. (bis)

- A.Lopategi Biok ere lan asko egin dugu
bizitzan, aspertu aina;
denbora eta soldata ona
ditugu orain ordaina,
ta pasioan ibiltzen gara
hartu nahiean tamaina;
orain dirua eta denbora
ugari ditugu baina,
horiek gasta ta disfrutatzeko
gorputzik ez, alajaina! (bis)
- Mendizabal Gazte denboran ibili ginan
askotan juxtu samarrik;
sasoia ere saltzeko zegon
ta ez zen izan alferrik.
Gaur pasioan trago txiki bat
tarteka eginez bakarrik.
Hala ta guztiz konformismoa
ta badegu poz ederrik,
diru askorik ez degu bainan
ez da gehiagon beharrik. (bis)
- A.Lopategi Gazte sasoiko animoeri
eman diegu egurra;
bazter batean utzi ditugu
kodaina eta atxurra.
Zaharren bizitza egia esan
ez dugu horren samurra,
pasiatzera goaz goizez ta
gero musean egurra;
ahal dan ondoen goza dezagun
gelditzen zaigun apurra. (bis)
- Mendizabal Orain arteko denbora degu
beti presaka pasea;
orain astia sobre daukagu
eta eguna luzea;
musean eta kontutarako
jubilatuen etxea;
gauza ederra denen gainetik
patxadan hola elkartzea.
Jubilatuen zoriona da
horretaz konturatzea. (bis)
- A.Lopategi Bizkar gainean baitaramagu
urteen karga astuna,

hara ta hona pasiatuaz
pasatzen dugu eguna;
bazkal ostean gero kartetan
eguneroko jarduna,
geure kapritxo hauek beteaz
jarrai dezagun laguna,
ta bilobentzat gelditu bedi
guk gastatzen ez duguna. (bis)

Mendizabal:20-20-20-19,5-18,5-19,5-19=136,5

Lopategi:20,5-19,5-21-20,5-20-20,5-19=141

S.Lizaso - Irazu

GAIA: Zuen herrien egoerak kezkatzen zaituzten bi adiskide zarete, Sebastian euskalduna eta Jexux Mari irlandarra. Egun hauetan biok Euskal Herrian zabiltzate.

Neurria: 10eko nag. (elkarrizketa ofiziotan)

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko.

S.Lizaso Herrian kezka elkarrizketa
sortua digu propio,
zerbait konpontzen hasteko badut
zuk hainbeste intentzio;
behin betirako pakea lortu,
ez dut besterik desio;
elkarrizketan egin dezute
Irlandan hainbeste saio,
zuen bideak Euskadirako
ez ote digu balio? (bis)

Irazu Adibidea nere herrian
ia ezin argiago:
begiak itsu baldin badaude
orduana dena akabo.
Mahai inguruan eseri dira
ta gauza dago oparo;
mahaietan aitzakin Irlanda aldean
pakea da hurbilago,
eta hemen bat ez da mugitzen,
bestea kartzelan dago. (bis)

S.Lizaso Aste honetan izan ditugu
adibide nabarmenak:
batu nahi gendun kritikatzeko
epaiketaren kondenak,
ta atzo Bilbon biltzeko ginan

abertzalerik gehienak,
baina ametsik ez digu bete
zoritxarrez ondorenak;
esnatu ezkero eteten dira
ametsikan politenak. (bis)

Irazu Geronek ere bizitzan degu
urte askotako pena;
Jerry Adams ta Tony Blairekin
nolako aurrerapena!
Batzuk hizketan eta besteek
bota zuten suetena;
zuek ametsak ta esnatzean
desegin omen da dena;
konpromezua behar da hemen
baina alde guztiena. (bis)

S.Lizaso Aznarrek garbi erakusten du
Franco txiki baten planta;
Mayor Orejak ez entzuteko
belarri pare galanta;
Espainia aldetik prentsak gogorra
gure aurka daukan lata,
baina bidea aurki dezagun
konponezinak lagata,
itxaropena gorde dezagun
oraindik bizi gera-ta. (bis)

Irazu Zuek halatsu eta guk ere
borrokatzen urte pranko;
itxaropena ta odol beroa
daramakigu biharko.
Lasaitu zaitez, egoera honek
noizbait hobetu beharko;
gurearekin laster zuentzat
bakea helduko da bapo,
penagarria izateaz gain
lotsagarria dalako. (bis)

S.Lizaso:22-23,5-24,5-23,5-21-21,5-23=159
Irazu:21-22-23-21,5-20,5-20-22=150

Egaña - Lujanbio

GAIA: Gabonetako jaiotza bizi bat antolatu dute herri honetan. Zuek jaiotza horretako bi ardi zarete.

Neurria: 10eko nag. (elkarrizketa ofiziotan)

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Egaña Behin espiritu santuak edo
ume txiki bat ernaldu;
hura gogoan dugu den-denek
herri gutxi batzuk salbu.
Odon Elortzak zinta moztean
hau goiz-goizetik zabaldu;
hemen gertatu zaigunak, aizu,
grazi dexente ez al du?
Oraindik ere gu ikustera
kristorik ez da azaldu. (bis)

Lujanbio Kristorik ez da azaldu, hau da
etsipenezko kolpea;
gure artzaiak erabaki du
gu biok hemen uztea;
gerora apaiz sotanadunak
bendizio bat botea,
kristautasuna da erlijio bat
dogma pozoitsuz betea,
ohore bat da jaiotza hontako
ardi beltza izatea. (bis)

Egaña Ni txuria naiz eta hargatik
ez daukat suerte makala!
Estalpe ondoan kokatu naute
artzaiak nola edo hala.
Horrexegatik daukat halako
belardi eder zabala,
eta zerorrek esan dezunez
zu ardi beltza zerala,
igoal hargatik jarri dizute
belar artifiziala. (bis)

Lujanbio Nahiago nuke loreen orde
belar piloak banitu!
jaiotza hontan egon beharrak
baditu mila arrisku;
Jesus haurtxoa ere gertutik
ein da zeharo txikitu,
jaiotza bizi honen ideia
ez zait ona iruditu,
erreala egin nahi dute baina
guk ezin degu mugitu. (bis)

Egaña Gure gustoa ahal dala aske
hurreratzea larrera,

zoritarrean jarri digute
arkume otzan papera.
Gu egizkoak gerala guztiz
egi osoa ote da?
Erregetan hartuko dugu
kartoizkoaren tankera;
udaletxeko almazenetan
hobeto biziko gera. (bis)

Lujanbio “Udaletxeko almazenetan
hobe geundeke aukeran”
zuk esan dezu, nik hori bera
pentsatua nun haseran.
Ingurutara begiratuta
adizu ze beldur dedan:
Gabon egunez jarri gaituzte
jaiotzako pieza eran
ta Eguberri eguerdirako
artzaiaren kazuelan. (bis)

Egaña:21,5-20,5-22-22,5-21-21-21=149,5

Lujanbio:19-20-19-20-19,5-21-21=139,5

Iturriaga - Maia

GAIA: Bi neska zarete, beti hurbileko harremana izan duzuen bi lagun min. Konturatzen ari zarete zuena adiskidetasuna baino zerbait gehiago dela.

Neurria: 10eko txikia (elkarrizketa ofiziotan)

Doinua: Antton eta Maria

Iturriaga Eskolatik batera
gabiltz pausuz pausu;
toki beretan topo
egin dugu usu,
baina zerbait arraro
darabilgu, aizu;
lagun gisa gehiago
neri ez eman musu,
titi muturrak puntan
jartzen dizkidazu. (bis)

Maia Batetik muxua ta
bestetik fereka,
berotzen ari gara
gu biok uneka;
ni ez naiz harrituko

normala da eta.
Gaia esandakoan
hara ze iseka!
Ez dakit zertan hasi
zareten barreka? (bis)

Iturriaga Sexu harremana beti
baita oso sanoa,
mutilekin izan nun
lehenago asmoa,
baina orain topatu dut
sentipen beroa,
ta pentsatu bezala
esatera noa:
hau da esperientzia
klitoridianoa. (bis)

Maia Klitoridianoa,
hara ze matraka!
Ez da ez hain goxoa
gure erresaka;
gizarteak altxatu du
guretzat aldapa,
gu gera eredu,
gainera aparta;
maitasun sentipenak
sexorik ez dauka. (bis)

Iturriaga Berriz jaio naizela
gaurkoan dirudi,
biok gaude hain goxo!
biok guri-guri;
zuretza ur pixkat
behar dut isuri,
ase zure egarria,
daukadana tori,
mutilekin asetu
ezin zendun hori. (bis)

Maia Batzuntzat arraroa
besteentzat saria,
sexurako ez degu
gorputza nagia.
Harriduraz betea
zuen aurpegia,
ez nintzela asetzen
hori da egia;
mutilek jan zazute

zuen inbidia! (bis)

Iturriaga:20-20-24-22,5-22-21,5-21=151

Maia:17,5-17-19-20,5-20,5-20,5-20=135

A.Lopategi - S.Lizaso

GAIA: Zu, Aritz, premiak jota kaleko komun mugikor batean sartu zara. Sebastian brigadako langileak komuna gruari lotu eta beste leku batera airean daramala ohartu zara.

Neurria: 8ko txikia (ofiziotan)

Doinua: Kantatzera nijoia

A.Lopategi Jan da edaten nenbilen
lehenago jo ta su!
Eta jakina gero
hainbat enbarazu!
Grua hona lotuta
zertan zabilta zu?
Ez dut bukatu eta
nora naramazu? (bis)

S.Lizaso Eginkizuna degu
bakoitzak berea;
zu estu eta larri
ta nik umorea,
bebingoan nerekin dut
era dotorea
kalean zabaltzeko
anbientadorea. (bis)

A.Lopategi Baneukan komunean
nik zeregin frango,
baina lasaitu ditut
gorputz eta zango.
Orain galderatxo bat
eingo dizut ondo:
hor kotxean papelik
ez duzu izango? (bis)

S.Lizaso Papelan faltan zaude
bildurri ta izu,
eta nik ezin bete
hainbat konpromisu.
Ateari itxita
zuk heldu zaiozu
edo bestela galtzak
galduko zaizkizu. (bis)

A.Lopategi Hemetxe aritu naiz
gogor indarrean,
baina zu ez zatozkit
hain modu txarrean;
orain nago etxera
juan beharrean,
eta utzi nazazu
portale aurrean. (bis)

S.Lizaso Guri entzuten daude
hainbeste testigu!
Egoera gogortzen
orain ari zaigu;
etxera eramatea
ez da nere kargu,
guk simaurrak soroan
zabaltzen ditugu. (bis)

A.Lopategi Hementxe goaz biok
gora eta behera,
nun bukatuko ote da
gure ibilera?
Zuen zerbitzu honek
egin du hobera,
komuna ta taxia
bi gauzak batera. (bis)

S.Lizaso Zure ametsa ez da
ongi aterako,
bidaia izango da
zeure kalterako.
Grua puntan bazaude
puxka baterako!
Argazki polita da
karnabaletako. (bis)

Lopategi:29-28-30-27-28-28-27,5=197,5

S.Lizaso:27,5-28,5-30-26,5-26-28-28,5=195

Irazu - Mendizabal

GAIA: Zu, Jexux Mari, San Pedro, zeruko atezaina zara. Mikel lurrean pilatutako diru guztiak zakuan sartuta aurkeztu zaizuna.

Neurria: 8ko txikia (ofiziotan)

Doinua: Haizeak bidali du

Irazu Horrelako gauzarik
noiz ikusi nuan?
Hara zenbat zalantza
daukadan buruan!
Diru pila hartuta
Conderen moduan,
hotelen bat egin nahi
al dezu zeruan?

Mendizabal Zure galdera ez det
hartuko ontzako,
asmoa dakart beste
zerbaitetarako,
Karitasen lanean
jardun naizelako,
dirua dakarkizut
behartsuentzako. (bis)

Irazu Arretaz entzuna det
zure albistea,
ez zaizu gutxi kostatzen
hona iristea!
Pobreentzat dirua,
ez da ez tristea!
Ordun hobia zendun
lurrean uztea.

Mendizabal Nik badakit Txirrita
zeru hontan dala;
lurrean pasa zuen
bizitza makala,
batera ta bestera
behartsu bezala
ta opari honekin
gozatu dezala.

Irazu Txirrita eta biok
hor gabiltza bapo!
Eta proposamena
hartu det aintzako;
bizio denak dira
gorputzarentzako,
diru beharrik ez da
animarentzako.

Mendizabal Gauza bat utzi nahi dut

adierazia:
nere bilketa izan da
oso berezia;
aberatsei kendua
nola den guzia,
Jainkoari eskeintzea,
horra justizia!

Irazu Aberatsai kenduaz
 dirua, gajuak!
 Zure ibilerak dira
 halamodukuak.
 Inpernura juteko
 elkarren tratuak,
 lehen ere bertan daude
 zu bezelakuak!

Mendizabal Bion artean bada
 nahikoa disputa!
 Nik neure pekatua
 ezin dut ezkuta.
 Inpernuraino noa
 zakua hartuta
 bestela zeuretzako
 gordeko dezu-ta.

Irazu:29-27-30-28,5-29-27-29,5=200

Mendizabal:27,5-27-26-26,5-27-27-26,5=187,5

Maia - Egaña

GAIA: Zuri Jon fimosiaren ebakuntza egin behar dizute. Andoni mediku gaztea urduri samar ikusten duzu, eskuak dardarka, lehen ebakuntza baitu.

Neurria. 8ko txikia (ofiziotan)

Doinua: Dama gazte xarmant bat

Maia Operatu asmotan
 nator ni zugana;
 beldurtuta zeharo,
 amatxo laztana!
 Kontserbatu nahi nuke
 luzaro buztana,
 eta bere lekuan
 sar zazu labana. (bis)

Egaña Badaukat tituloa,
badaukat ospea,
zortzi urte luzean
ederki kostea.
Ez du asko inporta
dexente moztea,
gorputz proportzioan
badezu bestea. (bis)

Maia Proportzionala bada
zuretzako errez,
ta ez naiz aterako
herio suharrez.
Zure lana zehazki
egizu mesedez,
azala moztu baina
haragirikan ez. (bis)

Egaña Ez da gauza samurra
labana hartzea;
ezin ditut berezi
aurre ta atzea;
nola gaingituko dut
holako trantzea?
Onena ni neroni
anestesiatzeta. (bis)

Maia Akats txikina ere
ezin da barkatu,
ta bildurturik nago,
ezin det ukatu.
Anestesia harturik
deskantsoz osatu,
zu anestesiaturik
eta nik lo hartu. (bis)

Egaña Ebakuntza aurretik
nolako jarduna!
Haragi xamurra du,
azala leuna;
oker moztuta ere
zu lasai laguna,
hortan meritua da
berezitasuna. (bis)

Maia Berezitasunakin
hasi zera deman;
horrelako haririk

ezin dut eraman.
Ni ondo heldu eta
badezu nahiko lan,
ekarri dudan dena
eraman dezadan. (bis)

Egaña Onena degu Maia
mahaian etzatea;
bi aukera dauzkazu
ta ez da kaltea;
bietan bat hautatu
ai, Maia maitea:
arriskatu edota
birjin izatea. (bis)

Maia:27,5-24-24-25,5-25,5-26-26=178,5
Egaña:28,5-29-30,5-29,5-29,5-28-28=203

Lujanbio - Iturriaga

GAIA: Zu, Maialen, orain dela hamabost egun hasi zinen zirkoan lanean lehoiak zaintzen.
Dagoeneko jaso duzu hirugarren ukitua; Unai nagusiarengana zoaz.

Neurria: 8ko txikia (ofiziotan)
Doinua: Nere senarrarekin

Lujanbio Lehoi baten haginek,
lehoi baten hortzek
ze min egiten duten
nik esan dezaket;
laugarren ukitua
jadanik jaso det,
zeinek domestikatu
zitun pizti hauek? (bis)

Iturriaga Lanpostu hortan ondo
zaitut nik ikusten,
badakizu lehoiak
ederki bereizten;
kariñoak dira,
has zaitez sinisten,
baina kariñoa ez dute
hain ongi bereizten. (bis)

Lujanbio Zu omen zera hemen

- jabe eta maixu;
 nere bizitzarekin
 nago oso izu.
 Inbento berriren bat
 ba omen da, aizu:
 teledirigituak
 jarri zaizkidazu. (bis)
- Iturriaga Bereiztea bi aldiz
 ezin leike jasan;
 zirkoan arriskua
 beti dago plazan,
 baina halako gauzarik
 ez zaidazu esan;
 elefanteak balira
 okerragoa zan. (bis)
- Lujanbio Hitz egiten didazu
 beti babo-babo,
 ni zurekin etsita
 naukazu zeharo;
 pizti aldaketa bat
 nuke nik nahiago,
 tximuekin tratatzen
 ohituago nago. (bis)
- Iturriaga Tximuengana egin
 nahi duzu zuk buelta,
 ondo onartzen dizut
 zure azterketa;
 tximuei zuk garbitu
 kaka ta kopeta,
 espezie berekoak
 konpontzen dira eta. (bis)
- Lujanbio Orain tximuen kakak
 aipatu beharko,
 harro hitz egiten du
 jabea dalako.
 Lehoiak pasatuko
 dira igoal bapo,
 baina aro hortatik
 ni ez naiz pasako. (bis)
- Iturriaga Zirko munduan kontra
 dijoa denbora,
 aisialdia urri
 telebista gora;

gurea izan behar zan
azkenengo aproba,
zirkoa dugu baina
karpatik kanpora. (bis)

Lujanbio:26-25-26,5-25-26,5-27-24,5=180,5
Iturriaga:27,5-22-23-24-23-25,5-25,5=170,5

Mendizabal - Egaña

GAIA: Zu, Mikel, zeure artaldea zaintzen ari zaren artzaina zara. Andoni otsoa artaldera inguratzen ari da.

Neuria: Berezia (ofiziotan)
Doinua: Iparragirre abila dela (behartua)

Mendizabal Aralar hontan neure ardiekin
aurkitzen naiz arduratsu,
bainan pizti bat sumatua det,
badakar zerbaiten mezu;
ta pixkana-pixkana
bazatoz guregana,
atrebitua zaude zu!
Ez zaitezela gehiago hurbildu
berriz jua nahi badezu! (bis)

Egaña Aspalditxoan ikusia det
artalde bat jori-jori;
badaezpadare ez diot esan
nere taldeko inori.
Hala egin dut amets:
laister ardi bat baietz
atzaparretan erori!
Indartsuenak menpekoa jan,
natur legea da hori. (bis)

Mendizabal Disimuluan gainditu dezu
borda atzeko harresia,
baina ez dezu asebeteko
dakarkizun gutizia;
txakurra doa aurrena
ta tiroa hurrena,
hain da giro berezia!
Bizitza bila etorri eta
gal zenezake bizia. (bis)

Egaña Bizia nahi ta bizia galdu,
hala da bizi berbera.
Inola ezin galtzera utzi
orain daukadan aukera;
ai, artzaia, sekula
hemen ez ezazula
txakur konturik atera!
Igoal hura ere jan egingo det
arkumeakin batera. (bis)

Mendizabal Zure arrastoak topatu nitun
hementxe atzo goizean,
ta etortzeko susmua naukan
barruan da bihotzean.
Hobe zenuke kasi
beste modura hasi
zeregin eta ehizean;
akatutako ardi zahar bat
utziko dizut leizean. (bis)

Egaña Bejondeiola! Oraingo hontan
mintzatu baita xuabe,
intentzioa bestelakoa
izan dezake halare;
eskopeta hartuta
bi kartutxo sartuta
hemen daukat parez pare.
Ia aurrean ipintzen zeran
eskopetarikan gabe! (bis)

Mendizabal:20-21,5-21-21-21,5-19,5-20=144,5

Egaña:22,5-25-26-25-23,5-21-22,5=165,5

A.Lopategi - Lujanbio

GAIA: Zu, Aritz, Baionako lantegi bateko nagusia zara eta Maialen zure langilea. Asteko lanorduak hogeita hamabostera murriztu direla-eta zuen artean bada eztabaida franko.

Neurria: Berezia (ofiziotan)

Doinua: Iparragirre abila dela (behartua)

A.Lopategi Lehen berrogei bat ordu egiten
hortxe zenbiltzan jo ta su!
Aldaketa honek ekar ditzake
uste ez hainbat arazu;
hogeita hamabost ordu

jarri beharra daukagu,
zer esanez zabilta zu?
Lan gutxiago ein beharko duzu
eta ze kexa daukazu? (bis)

Lujanbio Nagusi hauek ari omen dira
beti beren ahaleginez,
euren patrikak bete dituzte
txeke txuri ta propinez.
Nagusien modura
dezu nahiko ardura,
baina utzi nauzu minez;
irabaziak igoko dira,
langabezia jetsi ez. (bis)

A.Lopategi Gobernuaren legea da hau
egia garbi esanik,
eta guk ezin atzera egin
hori horrela izanik.
Horrela dago baina
segitu, alajaina!
Eta esango dizut nik:
ez zazu pentsa lehengo moduan
kobratu behar duzunik. (bis)

Lujanbio Lehen bezela kobratu ezik
dagona hartu beharko,
beti bezela gu langileak
zapalduta gaudelako.
Nagusi bihotz gabe,
ez zabilta dotore
ta ez zera portatu bapo,
elkartasuna patrikarekin
bakarrik daukazulako. (bis)

A.Lopategi Lehen bost egun lan egiten zan
eta bi egunetan jai,
baina horretan jarrai dezagun
gobernu honek ez du nahi;
hainbeste langabetu
nahi ditugu hobetu
eta egon zaite alai,
lana banatu egingo baita
eta soldatak ere bai. (bis)

Lujanbio Nagusi baten harrokeria

geratu da nabarmena,
lehenago ere ederki daki
berak agintzen duena.
Hor da langabezia,
gu danon minbizia,
nik ezagutzen detena,
eta soldata banatuko da
zurea ez besterena. (bis)

Lopategi:20,5-19-20-20-20-20,5-19=139
Lujanbio:19,5-20-20-18,5-19-19,5-21=137,5

S.Lizaso – Iturriaga

GAIA: Zuek biok minbiziak jota zaudete. Ameriketan zuen gaitzak sendabiderik izan lezakeela jakin duzue. Zu, Sebastian, hogei milioiko kreditua eskatu eta joatekotan zara; Unai ez du joateko asmorik.

Neurria: Berezia (ofiziotan)
Doinua: Iparragirre abila dela (behartua)

S.Lizaso Sendabidea badaukagula
 entzun det aurpegi alaiz,
 Ameriketan sendatzen baita
 hemen ezin dan zenbat gaitz;
 eskatu kreditua,
 presaka abitua,
 iritsi nahi nuke garaiz,
 eta ordaintzen ez daukat lanik
 aurretikan hiltzen banaiz. (bis)

Iturriaga Lehenago ere egin izan dut
 makinatxo bat ahalegin!
 Baina gauzarik ez da aldatzen,
 barruak beti dago min.
 Ez da segurtasunik,
 asmorik gaur ez dut nik,
 hemen geratzen naiz berdin,
 hil hurreneko minbizi txar hau
 bizimin bihurtu dadin. (bis)

S.Lizaso Bihar goizean da hegazkina,
 aireportura azaldu,

azken aukera bezela baita
zirrikitu hau zabaldu.
Atoz lagun nirekin,
muzinikan ez egin,
kezka guztiak bialdu,
aproba behintzat egin dezagun,
zer galdurik ez daukagu. (bis)

Iturriaga Galdu liteke familia ta
galdu liteke babeseta,
etxetik kanpo hiltzea ere
ez da asunto erreza.
Har zazu hegazkina,
nirezako berdina,
joango naizenik ez pentsa!
Lehenago ere sarri huts izan da
Amerikako ametsa. (bis)

S.Lizaso Aukera behintzat izan dezula
nere hitza da lekuko,
ta ezetzean zu hasi zera
berria jakin orduko.
Ni banoa hemendik,
zuk ez daukazu planik,
beraz bidaiari uko;
ez zaitez joan, etsita zaude
ta ez zera sendatuko. (bis)

Iturriaga Ez nago etsita baina heriotza
neronek nahi nuke presta,
eta zu berriz Ameriketara
“nork sendako nau?” galdezka.
Dena da gezur hutsa,
dena zakurran putza!
Neri laguntzaik ez eska,
nere lagunena babeseta baino
sendagai hoberik ez da. (bis)

S.Lizaso:21-22-23-23,5-21-20,5-21,5=152,5
Iturriaga:21,5-20,5-25,5-23-21,5-21,5-22=155,5

Irazu - Maia

GAIA: Zu, Jexux Mari, ama, modelo zara bizibidez eta egundoko sakrifizioak egin behar izaten dituzu jatorduetan. Jon alaba mardul-mardul dago.

Neurria: Berezia (ofiziotan)
Doinua: Iparragirre abila dela (behartua)

Irazu Zoritxarrear bizibideai
noizbait behar nion heldu,
hasitakoa urte luzetan
gerora behar mantendu;
ez gozo ta ez grasa,
zer dieta eskasa!
ia utzi hobe degu,
Ni modeloa izanagatik
zu zera nere eredu. (bis)

Maia Nik haragia daukat barruan
eta zuk berriz gosea;
zu hain txikia ikusten zaitut
ta ni ordea luzea.
Hauxe da desoreka!
Kontraesanez beteta,
gure harreman klasea,
batzun asean izaten baita
beste batzuen gosea. (bis)

Irazu Nik behin nerea egin nuen da
zuk berriz zure aukera,
geure bideak hola segitu,
elkarrentzako hobe da.
Mitxelin eta guzi,
ez zaude ez itsusi!
Ni linean goitik behera;
andre polita izan ninteke
baina zu ederra zera. (bis)

Maia Esan dituzun kontu guztiak
guretzat dira jakinak,
helburu beraz osatzen dira
gu biok dauzkagun grinak,
ta gure harremana,
mantentzerako lana,
aldendu itzazu minak.
Zure diruaz osatzen dira
nik dauzkadan mitxelinak. (bis)

Irazu Baina hau ez da ama-alabek
behar luketen itxura,
diferentzia ezin da neurtu

ohi dan bezela pisura.
Hau bukatuta gero,
besterik ez espero,
jarritakoa barrura!
Ta urte gutxitan jarri behar det
barrika baten modura. (bis)

Maia Betidanikan maite izan det
nere amaren epela,
bizitzan txintxo portatu izan naiz,
ez naiz izandu motela!
Ta zure pentsakera,
jarrai beza aurrera,
uler ezazu honela:
nahi dezun dana edan ezazu
ni bainaiz zure kupela. (bis)

Maia: 16,5-16-15-15-16-16,5-17=112
Irazu: 20,5-20,5-21,5-22-20,5-20,5-21=146,5

Mendizabal

GARTZELAKO GAIA: Gaztetan eraman zintuzten gerrara. Gaur, zahartuta, gerrako zeure zauriei begira zaude.

Neurria: Berezia
Doinua: Udazkena iristean

Hogeita hamaseiko urtez
ta uztaile bero batez,
eraman gintuzten katez;
lehendabiziko Nafarroara
oso ibilbide neñez,
ta gero handik Santanderrera,
osa ginan dohakabez.
Orain etxean neure hankari
so goiz eta arratsaldez,
gerra zahar hura buka zan baina
eragin zuen mina ez. (bis)

Batzuek hanka moztuta,
besteek burua beztuta,
ez daukat hori ahaztuta;
nik suertea izan nuen ta
itzulirik osatuta,
mutilazio txiki bat daukat

halare konformatuta.
Gerra kontuak gure sendian
sarri dira aipatu-ta,
bene-benetan gorrotatzen det
horrek bihotzik ez du-ta. (bis)

Burrukatzea zan xede,
bai saiatu, alafede!
Bainan joan ez banintz hobe,
zauriak eta oroimen txarrak
oraindik bizirik daude;
horregatikan aterako naiz
intsumisioan alde,
gerra piztea garai hauetan
nahiz ez degun nobedade,
gure semeak bizi daitezen
hori ezagutu gabe. (bis)

22-21,5-23-23-22-19,5-21=152

A.Lopategi

GARTZELAKO GAIA: Gaztetan eraman zintuzten gerrara. Gaur, zahartuta, gerrako zeure zauriei begira zaude.

Neurria: Zazpi puntukoa
Doinua: Leiho ertzetik entzun dezaket

Gerra Zibilan sartu ninduten
oindik mutiko nintzena;
pistola hartuta nola nenbilen
badaukat oroitzapena,
gerra bukatu egingo zela
zen denon itxaropena,
trintxera haietan barrena,
horixe zan gogorrena. (bis)
Nire azaleko zauri guztiek
ematen didate pena,
baina bihotzan erdian daukat
zaurietan haundiena. (bis)

Gerra garaian pasa genitun
oso momentu ilunak,
faxisten kontra hantxe genbiltzan
gazte ta zahar euskaldunak,
halaxe joan baitziran bertan
gure gaua ta egunak,
guztiok gerrara junak,

ez ziran une legunak! (bis)
Oraindik ere entzun ditzaket
memorian oihartzunak,
odolustuta han jausi ziren
mutiko honen lagunak. (bis)

Egunik egun ibiltzen ginan
horren jarrera etsian,
ta bitartean ama gaixoa
negarrez neukan etxian.
Sufrimendua pasa genduen
horren denbora luzian!
Gogorra nere iritzian,
beti ibili ehizian. (bis)
Gogoan daukat han sufritua,
hortxe daukat kontzientzian,
horrelakorik ezin daiteke
ahaztu bizitza guzian. (bis)

21-21-19-19,5-19,5-19,5-20,5=141

S.Lizaso

GARTZELAKO GAIA: Ekitaldi eta ospakizun jendetsuetan lapurretan aritzen zaren karterista zara. Besteak beste, Sevillako Expo 92an ere ahaleginak egin zenituen. Orain êakin duzu hogeita hamabost mila milioiko zuloa agertu dela.

Neurria: 10eko nag. (luzatua)
Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Karterista naiz ta saiatzen naiz
aldiero lapurretan;
aukera daukat jende ugari
elkartzen den tokietan,
nere azañak egin nituen
Sevilla alde horretan,
orduaz pozik nintzaden baina
oraintxe nago penetan,
ez dakit nora begira negon
harrapatzeko unetan?
Hainbeste méla milioi bazeuden
han gero zulo batetan!
Ai, zer tontoa atera naizen
espabilatu ustetan!(bis)

Berriro diot horren azkarra
ni ez nintzadela erten;

bizioaren indarra nuen
eta ezin nuen eten.
Orduko markak ustegabe
denok jakin dira aurten,
hori entzunda nere odola
jarria da irakiten,
eta ez dakit horiek nik baino
gehio nundikan dakiten,
hainbeste mila milioi eraman
ezusteko egun baten,
eta gainera ez dute inor
kartzelara eramaten. (bis)

Zer egin ere pentsatu behar,
hau ez baita jarduera!
Nere buruai nik hartzen diot
lapur eskaxan tankera;
nahiz ta Sevillan ostu nituen
hiru edo lau kartera,
lau mila pezta bakarrik ziran
eta gutxi gorabehera.
Horregatikan hau jakitean
daukat bihotza minbera,
hurrengorako aurrez kontuak
beharko ditut atera,
lapur haundi bat izango naiz ni
egun hontatik aurrera. (bis)

22-22,5-22-23,5-23-22,5-23=158,5

Irazu

GARTZELAKO GAIA: Gaztetan eraman zintuzten gerrara. Gaur, zahartuta, gerrako zeure zauriei begira zaude.

Neurria: Zortzi puntukoa
Doinua: Habanera

Goitik agindua eman:
“fusila eskutan hartu”,
gerraren gogortasuna
txikitatikan probatu;
frenteko lehen lerroa
ederki nuen gozatu,
etsaia ala laguna
aurrekoa tirokatu!
Mendian gora ta behera,

han ezin gendun nekatu;
orain begiak malkotan
ta ezin dira lehortu,
nere zauriei begira
begiak zaizkit lausotu,
zauriak ez dira itxi
ta gerra ez da bukatu.

Nahiz barrutikan beldurrez,
itxuraz behar zan trebe;
odola ez zan neretzat
sorpresa ta nobedabe;
Gerran maltzurkeri dana,
ezin da izan herabe,
nere bizia arriskuan
ezin nun utzi debalde.
Nahiz beti zalantzan izan
han gelditu edo alde,
beti onartzen ditugu
kanpokoan hainbat lege;
beti behar ote degu
etsaien zaurien mende?
Ordun zatitu gintuzten
ta oraindik hala gaude.

Nere desioan kontra
aberkide harei tira,
nork murgildu ninduen ni
hainbesteko sarraskira?
Orain hurreratua naiz
jubilazio eztira.
Oraindik gogoan daukat
orduko gauen dizdira;
halare barru-barruan
biharko egunan desira,
begiak itxita goxo
etorkizunai begira,
nere zauriak, badakit,
lurpean itxiko dira,
ojala herriarenak
han itxiko ez balira!

23-23,5-23,5-24-24-22-24,5=164,5

Egaña

GARTZELAKO GAIA: Ekitaldi eta ospakizun jendetsuetan lapurretan aritzen zaren karterista zara. Besteak beste, Sevillako Expo 92an ere ahaleginak egin zenituen. Orain jakin duzu hogeita hamabost mila milioiko zuloa agertu dela.

Neurria: Bederatzi puntukoa

Doinua: Nere gorputza dardarka daukat

Dirurik ez dut patrikan sobran,
aitortu nahi dut aurrena;
hankagorritan maiz ibili naiz
kale gorritan barrena,
ta Expo nuen nere ustetan
lapurretako eszena,
bertan kartera lapurtzen nuen
batena eta bestena;
nik atzaparra kakoa baitut
ta begirada eztena.
Nik egin dedan hobena,
barkagarria da dena;
batzuk ederki asmatu dute
lapurretako sistema,
ta nik zailena hautatu nuen,
horrek ematen dit pena.

Zurikerian hitz egitea
ez dudanez asko maite,
jende xeheak nere joera
ulertzen du baldinbaite!
Ahal nuen eran karterak hustu
eta poltsikoak bete,
berri gorria daukan batentzat
pekatu haundia ote?
Lapurretan'e batzuk iaioak
ta beste batzuek torpe.
Sufritu dut hainbat kalte,
zoritxarrik ez dut bate,
hoita hamabost milioiko horiek
poderetik ez aparte,
eta ni berriz harrapatzean
kartzelan sartuko naute.

Zenbaitentzako lapurreta da
halako disparatea!
Neretzat berriz bizi-iturri
lapurreta egitea.
Ni lapurra naiz baina halare
oso lapur arlotea,
gehienez ere hustutzen ditut

patrika ta eskotea;
besteren batzuk oso goitikan
daukate borondatea.
Zabaldute atea,
mesede edo kaltea,
politikoek eukiko dute
patrika bete-betea,
erabaki dut Expo utzi ta
Guggenheima joatea.

22,5-21,5-21-22-21,5-22,5-24,5=155,5

Lujanbio

GARTZELAKO GAIA: Ekitaldi eta ospakizun jendetsuetan lapurretan aritzen zaren karterista zara. Besteak beste, Sevillako Expo 92an ere ahaleginak egin zenituen. Orain jakin duzu hogeita hamabost mila milioiko zuloa agertu dela.

Neurria: Zazpi puntukoa

Doinua: Gregario edo laguntzaile naiz

Ondo dakigu ze izaten dan
gu pobreonon patua:
patriketako txanpon mordoxka
aspaldian agortua.
Karteren bila ibili nintzan,
batzuk ezin ulertua,
eta gertutik gertua
diru mordoxka lortua; (bis)
hogeita hamabost kiloko zorra
bat-batean agertua,
ta nik barrenen damu bakar bat:
gehiago ez lapurtua. (bis)

Ordun Felipe Gonzalez zegon
gaur Aznar dagon antzea,
bere negozio eta proiektu
haundia joan zan hutsea.
Milioi pilo bat auskalo non-da
banketxeetan haizea!
Ni jendearen ertzea
juanda kartera kentzea, (bis)
ez da pekatu ta ez espero
jendaurrean damutzea,
ia ekintza on bat'e bada
lapurreri lapurtzea. (bis)

Asperturikan nola nengoen
pobreziaren kolorez,
lapurretako nere bizitza
hautatu nuen umorez
eta Sevillan politikoak
euki ere parez parez;
gehientsunak irrifarrez,
ni barne umore txarrez. (bis)
Hango dirua banatu izan
baligute neurri berez,
Sevillan zuloik ez zan egongo
ta gure patrikan ere ez. (bis)

18-18,5-19,5-18,5-18,5-19-21,5=133,5

Iturriaga

GARTZELAKO GAIA: Gaztetan eraman zintuzten gerrara. Gaur, zahartuta, gerrako zeure zauriei begira zaude.

Neurria: 8ko nag. (luzatua)

Doinua: Haizea dator iparraldetik

Gerra izan zan gazte garaian
nere etxe ta eskola;
ziztu bizian zebiltzan balak,
gu genbiltzan edonola.
Hala ta guzti hura pasatu
eta ikusirik hola,
pentsatzen nago batzuek nola
isuri zuten odola;
eta oraindik onartu beharra
nigan ere badagola,
adierazten dit nere zauriak
oindik bizirik nagola.

Hainbeste tiro, hainbeste bala,
nik ez dut sekula bota,
ezautu ere egiten ez nun
arerio txar baten kontra!
Zenbat alditan lubakietan
nuen odola borborka!
Ez nun ulertzen zertarako zan
han egiten zan borroka.
Ta ondorioak badauzkat orain
eta gehienera jota,

gutxi batzuen garaipena zan
ta gehiengoan porrota.

Hamalau urte ta gerra baten
erdian han zegon Unai,
egunen baten arrazoiren bat
emango zitzaionan zai;
sentitzen nintzen nere pareko
edonor botatzeko gai,
mozkorraldiak lubakietan
eta gutunekin alai.
Baina denbora pasatu eta
begiratzuz joan danai,
gerra guztiak dira berdinak,
bandera denak ere bai.

23-20-22,5-21,5-21-22-22=152

Maia

GARTZELAKO GAIA: Ekitaldi eta ospakizun jendetsuetan lapurretan aritzen zaren karterista zara. Besteak beste, Sevillako Expo 92an ere ahaleginak egin zenituen. Orain jakin duzu hogeita hamabost mila milioiko zuloa agertu dela.

Neurria: Zortzi puntukoa
Doinua: Zuek horrela ikusi eta

Orain pixka bat xamurtua zait
garai bateko trantzea,
beti aurrea nola dantzatu
hala joaten da atzea.
Denborak ere aurrera doaz
ta alde daukat haizea;
beste batzuen etxea
gogoko dut xahutzea,
goitikan behera jotzea.
Aurrean dudan jende guztia
nahi nuke konturatzea:
sekulan ez da pekatu izan
lapurreri lapurtzea. (bis)

Dirurik gabe, fortunik gabe
etorri nintzen mundura,
besten etxeetan sartuaz beti
ez nabil oso gustura;
batzuk aurpegi galanta dute,
beste batzuek freskura.

Dirua nahi dut ingura,
beti ahal dedan modura,
ez det gordeko itxura;
besteek daukaten diru guztia
lotsarik gabe barrura,
beraiek ere bizi baitira
beste guztien kontura. (bis)

Estafa eta zulo horietan
ez dabiltz horren ederki,
bihotz ustelez mundu honetan
badago hainbat gizaki;
pobreak eta aberatsekin
egin gaituzte bi zati.
Morala nere lubaki
haundintsuena izaki,
orain nola erabaki?
Ez naiz hasiko erruki eske
denen aurrean lotsati,
kartzelan sartzen banaute ere
harro biziko naiz beti. (bis)

21-19-19-20-21-21-23,5=144,5

Lujanbio

Neurria: Bederatzi puntuëoa
Doinua: Beroiarena

Azken agurra Zorionak Andoni,
ze poz hartu dedan!
Denon txapelduna zu
zera aukeran.
Estropozka juan naiz
bertsoen karreran,
bertso onak ta txarrak
juan dira ileran;
Andoni haseran
ta ni amaieran,
zortzigarren eran,
harro ta primeran!
Dena da segun nundik
begiratzen dan. (bis)

Maia

Neurria: Bederatzi puntukoa
Doinua: Gaztalondo handia

Azken agurra Ama Extremadura,
aita Zamoratik,
abuela ta abuelo
haien aurretik;
herri hontan sustraitzen
asmatzeagaitik,
neuk'e maita dekazet
guztien gaintik.
Euskeraz badakit,
bertsoz darabilkit,
dena zuengatik,
halaxe dagokit,
denek kantatu dute
nere ahotik. (bis)

A.Lopategi

Neurria: 10eko txikia
Doinua: Espainian behera

Azken agurra Gogorra izan da gero
gaurko azterketa!
Hala ere bukatu
dugu lasterketa;
ahoa lehor daukat,
eztarria erreta,
halan da guzti nago
pozetan beteta,
zuengatik guztiak
merezi du eta. (bis)

Lazkano

Neurria: 10eko nag.
Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Azken agurra Bertsoen bidez elkartu gera
hainbat arreba ta anai,
hau da guretzat egizko egun,
hau da gure egizko jai;
bertsoarentzat herria denez

bere oinarri ta sustrai,
banan-banaka denok eskertu
besterik ez genduke nahi.
Txapela esku onetan dago
bertsolaritza ere bai. (bis)

Mendizabal

Neurria: 10eko nag.
Doinua: Abiatu da bere bidean

Azken agurra Aurtengoa ere buka da eta
orain lasaitasun haundiz,
gogoetako garaia dator
eta egingo degu hitz.
Ordiziako bertso-eskolan
badut ilusio anitz,
Aitor, Iñáki edota Ekaitz,
berdin Alaitz eta Aritz;
zuen freskura goza nahi nuke
neure babesa eskeiniz. (bis)

Irazu

Neurria: 10eko nag.
Doinua: Aita izena kanta beharrak

Azken agurra Mende hontako azken txapeldun,
bejondaikela Egaña!
Nere bihotzak ez du ahaztuko
une honen imajina.
Ona edo txarra gaurkoa izan da
ahaleginaren ordaina;
txalo guztiak espetxeetara
bijoazti, alajaina,
Euskal Herrira ekarri arte
ez dituzte entzungo baina. (bis)

Iturriaga

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Haizea dator ifarraldetik

Azken agurra Zakilixutek esan dun gisan
potofinisha testigu,

gaurkoan neri behintzat berdin zait
zazpi, zortzi edo hiru.
Barka bukatzen badut saioa
retorikaren gatibu,
baina gaur ere Andonik eta
bertsoak irabazi du.

S.Lizaso

Neurria: Berezia
Doinua: Iparragirre abila dela

Azken agurra Agur denori, gustora noa,
ez dago esan beharrik!
Itzali gabe oraindik ere
egonezina sugarrik.
Goizean erdi dudan,
etsipenaren muganezin atera indarrik.
Hurrengo txandan etorriko naiz
arratsaldean bakarrik. (bis)

Amuriza

Neurria: 10eko nag.
Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Azken agurra Zorion eta ohore Andoni,
bertsogintzaren arrago;
nahiz ta porruek deskolokatu
guztira aupa ta brabo!
Lehendik txapeldun haundi hintzena
bigarrenakin hor hago;
txapela ere somatzen diat
sekula ez bezain harro,
hire buruan sentitzen baita
bera ere ederrago. (bis)

Egaña

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Honuntz etorri eta den-denei
mila esker ematean,
bi txapel gehitxo ote ditudan
jabetu naiz bat-batean.
Jexux ta Natxi, Mixel, Mariasun...
zerrenda luze betean,
burutik kenduz jarri nahi nuke
zuen eskuen artean,
lanean ari zeratelako
Bertsozale Elkartean. (bis)

DOINUAK

BERTSO DOINUAK

Hemen duzu, bertsozale hori, txapelketa honetan erabili diren bertso doinuen zerrenda, neurriaren arabera sailkaturik. Doinu bakoitza zenbat ariketa desberdinetan kantatu duten adierazten dute izenaren ondoan datozen zenbakiek. Aurreko txapelketei buruzko liburuetan ere, antzeko doinu zerrendak argitaratu ditugunez gero, ez da zaila elkarrekin erkatu eta alderatzea, horrela ikus ahal izateko txapelketaz txapelketa, ze gorabehera izan dituzten bertsolariek doinu kontu honetan.

Edozein moduz ere, hiru datu behintzat argi nabarmendu zaizkigu oraingo hau aurrekoekin alderatuz gero; zortziko txikian aurrekoetan baino doinu gutxiago erabili dituztela, neurri berezikoak aldiz, behin ere baino gehiago, eta hirugarren berezitasuna ; bertsozale gehienok jabetu ginen eran, doinu berrien urritasuna. Txikian galdu dena berezietan irabazi da, eta hartara, neurrietarako aukera gero eta oparoagoa da.

Doinu berrien gorabeherak nola joan diren urtez urte aldatzen ikusteko, grafiko hau lagungarri gerta dakiguke agian, bertan txapelketa bakoitzera zenbat doinu berri ekarri diren adierazten baita.

Doinu berriak txapelketaz txapelketa

67 80 83 86 89 93 97

03 08 27 32 31 20 08

Badirudi 86-89 urtetan jo zuela goia 80ean hasi zen joera honek. Egia esan, 1967koan ekin zion mugimendu honi batez ere Jon Lopategik, Julen Lekuonaren Hiltzaile bat bezela eta Mítxel Labegerie jaunaren Hemen dela España izenekoak ekarriaz eta baita Donostiako hiru damatxo ezaguna ere, baina Xabier Amurizaren bi txapelketekin indartu zen batez ere jokabide hau, ondorengoetan gailurra hartuaz. 1990ko hamarkadan, esan genezake doinu berri gutxiago plazaratu dituztela txapelketetan, batez ere aurtengoan, baina beste aldetik, erreparatzea komeni zaigu sasoi honetan txapelketez gain, beste iturri berri batzuetatik hasi dela elikatzen bertsolarigoa. Bertso berriak disko-kaseten bidez argitaratzeak eragin du batez ere berrikuntza hamarkada honetan, lehen egiten ez zen moduan. Gogoratzekoa da adibidez, Amuriza-Duhalde bikotearen diskoak zer eragin izan zuen duela urte batzuk, eta orain berriz nabarmena izan da Sarasuatarak eta Joan Luis Lekunberrik *Fauna txiki bat* izenekoarekin lortu dutena. Horrela, kontura gaitezen, zortzi doinu berri bakarrik azaldu baldin badira ere txapelketa honetara, eta pentagramatan idatzirik zortzi soilik ikusiko dituzu atal honetan, hogeitik gora direla 1993tik aurtengora arte agertu diren berriak, doinuen zerrendan letra bereziz idatzirik datozen guztiak, alegia. Horiek guztiak, lau urteotan bereganatu ditu bertsolarigoak handik eta hemendik, txapelketaz baliatuz zortzi bakarrik plazaratu badira ere. Herri txikien negu gordina izeneko adibidez, ez genuen

ezagutzen bertso saioak gertutik jarraitzen ez ditugunok, eta zortzi bertsolarik erabili dute gutxienez txapelketan zehar.

Honetaz gain, berrikuntzak alde batera utzita, doinu klasikoan jarraipenari buruz aipamentxo bat besterik ez nuke nahi egin, garaian garaiko joera eta moden gaineratik, beti indarrean darraiten horietako batez, Pello Mari Otañoren bertsoz ezagutzen dugun Mutil koxkor bat itsuaurreko edo Limosnatxo bat izenekoaz, alegia. Garai batean, lurraldeotan behintzat, ez zen beste doinurik hamarreko handian baina orain, beste asko ugaltu diren arren, bera da txapelketa guztietan behin ere hutsegin gabe entzun dena, eta gaur ere ugariena bertsolarien ezarrietan, 24 ariketa desberdinetaraino helduaz.

Beste muturreko aipamena eginez aldiz, bada beste doinu bat, hau ere Pello Mariren bertsoz jantzia, hamarreko txikian bakarra Basarri-Uztapideren garaietan, Lagundurikan denoi izeneko, baina doinu sentikor hau, hiru aldaki desberdinetan osasuntsu ibilitakoa, hiruretan ere aspaldi edori zen txapelketen zerrendetatik. Era honetako kasu gehiago ere topa ahal izango dituzu agian. Denak ezin dira erabili eta aukera egin behar, ez da besterik. Gaur beste batzuek hartu dute adibidez garai bateko Hamaika aldiz edo Beti penetan, Aranora joan ziran, Loreak udan intza bezela edo beste askoren lekua. Askotan esan dugun eran, joera eta modak agintzen du honetan ere besterik gabe, baina ona da zaharretik eta berritik aukera zabala eskura izatea, bai horixe!

Zerrenda hauetan izendaturik datozen doinu guzti hauei buruzko informazioa, Doinutegian aurki dezakezu, baina 1993ko Txapelketa Nagusian eta 1995ko Gipuzkoakoan plazaratutako doinu berriei buruzkoa nahi izanez gero, hauei dagozkien liburuetan jaso beharko duzu halaberrez.

Bertso eta doinu, musika eta hitza batera sortzen dituen arte herrikoi honek, tradizioa eta berrikuntza ongi uztartuz etorkizun bide zabala ari digu prestatzen.

J. Dorronsoro

TXAPELKETAN ERABILI DIREN DOINUEN ZERRENDA

Zortziko txikian

1. Anderea gorarik	1
2. <u>Baionako patroina</u> (Intsumi).....	1
3. Dama gazte xarmant bat	4
4. Haizeak bidali du	2
5. Kantatzera nijoa	12
6. Maritxu nora zoaz.....	1
7. Markesaren alaba	2
8. Mendiko umea naiz	1
9. Minberatu zaizkigu	2
10. Nere senarrarekin	6
11. <u>Primadera hastetik</u>	1
12. Xarmangarria zera (behartua)	

Zortziko handian

1. Aita Jainkoak egin banindu	2
2. Anai arrebak hementxe nator	5
3. Arratsaldeon lendabizitik	715
4. Balentin Berriotxoarena	9
5. Basatxoritxu moko luzia	2
6. Beste bateko inularretan	4
7. Bihotz gureko Tolosa zarra	2
8. Donostiako hiru damatxo	1
9. Eguna pasa nekean eta	4
10. Elizan sartu ziradenian.....	1
11. Esaminatu izan tut ongi	1
12. Ez nau izutzen negu hurbilak	3
13. Gure herriko bikariuak.....	1
14. Haizea dator ifarraldetik	3
15. Haize hegoak hurbiltzen ditu	5
16. Hara nun diran mendi maiteak	6
17. Haurtxo txikia negarrez dago	1
18. <u>Herri txikien negu gordina</u>	8
19. Hil da Canovas fuera Canovas.....	1
20. Kantore berri xarmant batzuek	1
21. Kontzientzia izaten degu	1
22. Ludi bizitza abesti gozoz	1
23. Nafarroako mendi gainetan	5
24. Naiz ta hiltzea derrigorra	3
25. Oihan beltzean zoinen eder	2

26. <u>Saltarina da txepetxa eta</u>	6
27. Santa Barbara zure bizitza	10
28. Txoriak eta txoriburuak	6
29. Ume eder bat ikusi nuen	1
30. Zeru altuan zegoen jaunak	4
31. Zuk badakizu gure txikia	1

Hamarreko txikian

1. Agur sagar beltzaran	1
2. Ai gure antzinako	20
3. Aita asmo hartu det.....	1
4. Antton eta Maria	15
5. <u>Batzutan da argia</u>	1
6. Espainian behera	20
7. <u>Gogoratuko zara</u>	3
8. Hamalau heriotzena	1
9. kontzientzia izaia	1
10. Motibo bat nigana.....	1
11. <u>Zarauzko balearena</u>	2
12. Zer da gaur Donostian	1

Neurri txikian

1. Aizazu Suantxa.....	1
2. Itziarren semea	1
3. Amak ezkondu ninduen	1

Trikitia doinua

1. <u>Batean tripako minez</u>	1
--------------------------------------	---

Hamarreko handian

2. <u>Abiatu da bere bidean</u>	2
3. Aita izena kanta beharrak	17
4. Amodioa gauza tristea	1
5. Bizia ez da nehoiz egoiten	15
6. <u>Esperantzik gabeko zenbait</u>	2
7. <u>Gogoan daukat ez du aspaldi</u>	9
8. Lurraren pean sar nindaiteke	2
9. Mutil koxkor bat itsuaurreko	24
10. Santa Barbara zure bizitza	2
11. Semaforoak gorri ta berde	1
12. Sentimentua sarti zitzaidan	7

9 puntukoak

1. Betroiarena	8
2. Gaztalondo handian	9
3. Zaldi zuriarena	1

Neurri luzekoak

1. <u>Atmosferatik atera eta</u>	1
2. Begira nago jarria bera	2
3. Bizia ez da nehoiz egoiten (7 puntu)	1
4. <u>Gauza ugari irteten dira</u>	1
5. Gregario edo laguntzaile.....	8
6. <u>Haizea dator ifarral</u> .(6 puntu)	1
7. Historiaren hari zar horri	1
8. Leiho ertzetik entzun deza	10
9. Ligo bizitza ez da izaten	1
10. Maitasuna da bizi izateko	1
11. Munduan libre bizi izateko	1
12. Nere gorputza dardarka dauk.....	2
13. Sorkelua utziz	1
14. <u>Udazkena iristean</u>	1
15. Zuek horrela ikusi eta	1

Klasikoen saila

1. Gai horrek badu mamia	1
2. <u>Jende onak azken finez</u>	1

Koplen saila

1. Ai zak hi mutil mainontzi (behartua)	
2. Dozena bat bertso berri	5
3. Esateko ez naiz lotsa.....	1
4. Euskalerritik aparte.....	1
5. <u>Isildu zaigu eguna</u>	1
6. <u>Pizti arrunten modura</u>	1
7. Uso txuria errazu	4

Neurri berdinekoak

1. <u>Baserrira joan nintzen</u> (Habane)	6
2. <u>Hemen txirindulariak</u>	1
3. <u>Naiz eta banuen</u> (Bentaberrikoa).....	1

Bereziak

1. Getxo aldera heltzeko denok 1
2. Ikusten duzu goizean 2
3. Iparragirre abila dela (behart) 26
4. Itsaso hori dago zatarra (Naufrag)..... 1
5. Trumoia ortzi beltzean hoska 1

DOINU BERRIEIEN FITXAK

BATZUTAN DA ARGIA

Hamarreko txikia. Doinu hau Andoni Egañak finaleko goizeko saioan “burua” deskriba zezala eskatu ziotenean erabili zuen. Herri irratiak bertso emanaldietarako darabilen sintoia doinua jaso du Andonik. Kontakizuneko doinua hau tonu minorrean dago, etena 7/6 eta egituraz AB1AB2B2 da.

HERRI TXIKIEN NEGU GORDINA

Zortziko handia. Zortzi aldiz erabili dute bertsolariek txapelketa honetan Juan Luis Lekunberri musikariak sortutako doinu hau. Bertsoz Joan Sarasuak Txetxeniako gerrilariei egindako bertsoaldiaren haserakoa da. Zozoak beleari izeneko liburuaren 148 orrialdean ikus dezakezu. Kontakizunekoa, tonu maiorrean, etena 5/5/5/3 darabil eta egituraz ABDE.

ABIATU DA BERE BIDEAN

Hamarreko handia. Mendizabalek erabili zuen Donostiako saioetan lehen eta azken agurrerakoan Joseba Tapiak sortu eta Mikeli eskeinitako doinu hau. Kontakizunekoa, tonu maiorrean, etena 5/5/5/3 eta egituraz berriz AABDE.

ESPERANTZIK GABEKO ZENBAIT

Hamarreko handia. Mikel Urdangarin zornotzarrak sortu du doinua eta Iñaki Aurrekoetxearen bazkalosteko kafean izeneko bertsoz kaleratu. Oihane Enbeitak txapelketako Getxoko saioan bi agurrak kantatzerakoan erabili zuen. Amodiozko doinua, tonu maiorrean, etena 18/18 egiten du eta egituraz ABDE..

PIZTI ARRUNTEN MODURA

Koplen saila. Mikel Urdangarinek asmatutako beste doinu hau ere Iñaki Aurrekoetxearen bertsoz plazaratu zen 1997ko Bertso egunean Donostian eta Aitor Sarriegik erabili zuen txapelketa honetan Zarauzko saioan agurra kantatzerakoan. Amodiozkoa, tonu maiorrean, etena 8/8/16 eta egituraz ABDE..

HEMEN TXIRRINDULARIAK

Neurri berdinekoa. Pata Negra musika taldearen “Era una noche de invierno” izeneko kanta doinu hau Jon Maiak ekarri zuen bertso mundura Donostiako arratsaldeko saioko agurrekoan. Kontakizunekoa, etena 16/16 darabil, tonu maiorrean eta egituraz AAAA.

NAHIZ ETA BANUEN

Neurri berdinekoa. ETB.ko Benta Berri delako telesaileko kantua jaso du bertso munduak Aitor Sarriegik Beasaingo saioan azken agurra kantatuz. Irrizko doinu honek 6/6 egiten du etena, tonu maiorrekoa da eta A1A2BD egituraz osatua dago.

GETXO ALDERA HELTZEKO DENOK

Berezia. Joan Mari Narbaizak kantatu zuen Getxoko saioko azken agurrekoan bere lagun batek asmatutako doinu honetan. Kontakizunekoa, tonu maiorrean, etena berriz 10/8 eta 6/6 darabil eta egituraz ABDEAB osatua dago.

AURKIBIDEAK

BERTSOLARIEN AURKIBIDEA

1. Agirre U.....
2. Arozena E.....
3. Artza J.....
4. Arzallus J.....
5. Egaña A.....
6. Eizmendi J.....
7. Eizmendi J.J. “Loidisaletxe II.....
8. Elizagoien B.....
9. Elortza I.....
10. Elortza J.R.....
11. Enbeita O.....
12. Estanga O.....
13. Fernandez E.....
14. Gaztelurrutia B.....
15. Gorostidi B.....
16. Ibarra I.....
17. Intxausti K.....
18. Irazu J.M.....
19. Iturriaga U.....
20. Larrañaga A.....
21. Larrañaga G.....
22. Legarreta X.....
23. S.Lizaso S.....
24. Lopategi A.....
25. Lujanbio M.....
26. Maia J.....
27. Mendiluze A.....
28. Mendizabal M.....
29. Munduate J.....
30. Murua I.....
31. Narbaiza J.M.....
32. Otamendi And.....
33. Otamendi As.....
34. Respaldiza J.....
35. Rezabal M.....
36. Salegi J. A.....
37. Sarriegi A.....

- 38. Silveira X.
- 39. Sorozabal J.
- 40. Ugartetxea A.
- 41. Urdangarin J.L.
- 42. Zelaia I.

AZKEN-LAURDENETAKO BERTSOAK

- Tolosa
- Aramaio
- Hendaia
- Ondarroa
- Iruñea
- Getxo
- Zarautz

FINALAURREETAKO BERTSOAK

- Bera.....
- Igorre
- Beasain

FINALEKO BERTSOAK

- Donostia (goizez)
- Donostia (arratsaldez)